goiena
Zu hemen zaude.
2019-04-12 EGUBAKOITZA / 812. ZENBAKIA / 19. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Klika

HEMEN DA KORRIKA 21!

ZAPATUA		DOMEKA				
Oñati	**Bergara**	**Aramaio**	**Arrasate**	**Aretxabaleta**	**Eskoriatza**	**Gatzaga**
12:10	13:32	03:07	04:04	04:36	04:55	05:33

Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako mendizaleak Korrikaren alde Muru mendian. MIRARI ALTUBE

Bergara eta Arrasateko gazte batzuk Queretaron, Mexikon. ANE ZANGITU

Korrikaren lekukoa hartzeko gertu

Debagoiendar ugari batu dira Korrikara pasa den asteburuan Nafarroan eta Iparraldean, eta bihar, larunbata, iritsiko da eskualdera; hain zuzen, 60 kilometro egingo ditu ibarrean. Herri batzordeen lanari esker, dena prest dago egun handirako

Amaia Zabala DEBAGOIENA

"Ondo pasatzeko asmoarekin, garrasi eta aldarrirako gogoz hartuko dugu Korrika gurean, Korrika jai bat baita, euskararen aldeko jai bat, eta horrek dakarren guztiarekin. Beraz, debagoiendar guztiak animatzen ditut furgonetaren atzetik ilusioz eta pasioz korrika egitera eta euskararen alde klika egitera", adierazi du Josu Zubiak, Debagoieneko Korrikaren dinamizatzaileak.

Apirilaren 13an, 11:28an sartuko da Korrika Debagoienera, Oñatira, Udanan barrena. Bidaurreta igarota Kale Barrian behera joango da eta ondoren, Kale Zaharretik San Pedrora irtengo da, Zubillagarantz.

Jarraian, Bergaran sartuko da, 12:57an Elorregin, eta gero, Labegaraietara joango da. Erdigunea zeharkatu ostean, Amillagarantz hartuko du martxa eta ondoren Osintxura iritsiko da, 14:08an. Handik Soraluzerantz joko du.

Domeka goizaldean, apirilak 14, bueltatuko da Debagoienera, Otxandion barrena Aramaiora sartuko baita. Aramaioko Goikoetxea jatetxean 01:54ean izango da eta herria zeharkatu ondoren Arrasatera joango da.

Araba eta Gipuzkoa arteko mugan dagoen *Arrasate 4 km* seinalean hartuko dute arrasatearrek Korrikaren lekukoa, 03:32an. Uribe auzotik Maalako biribilguneraino joango da. Handik alde zaharrerako bidea hartuko du eta Arrasate pasealekua zeharkatu ostean Aretxabaletarantz joko du.

Aretxabaletako biribilgunera 04:28an iritsiko da eta herrian bi kilometroko ibilbidea izango du: biribilgunetik herriko plazaraino bat eta bertatik Eskoriatza aldera bestea.

Eskoriatzara Ederlan paretik sartuko da, 04:45ean; Intxaurtxueta auzoa zeharkatu eta herri erdigunean gora Aingeru Guardarantz joango da. Handik aurrerako bidea jarraituz Leintz Gatzagako errepide zaharreko bide malkartsutik herrira iritsiko dira, 05:27an, eta herria barrutik zeharkatuko dute; Gatzagainera iritsiko dira gero. Handik Gasteizerako bidea hartuko du Korrikak.

KORRIKAK 60 KILOMETROKO IBILBIDEA EGINGO DU DEBAGOIENEAN ASTEBURU HONETAN

Hain zuzen, 60 kilometroko ibilbidea egingo du Debagoienean eta kilometroen erosleen artean eskualdeko 137 eragile daude.

Saio berezia Goienan

Debagoieneko ibilbidearen irudiekin saio berezia ekoiztuko du Goienak domekan bertan: *Korrika Debagoienean*. Goiena telebistan 22:00etan emititukо dute eta sarean ere ikusgai izango da. Aitor Agiriano kazetaria ibiliko da erreportari lanetan.

Horretaz gain, Goienako lantaldeak Korrikaren 21. edizioaren erabateko jarraipena egingo du; horretarako, *Goiena.eus* atarian Korrikaren gaineko kanal berezia sortu dute. Eta papereko edizioan ere lekua izango du Korrikak, Debagoieneko ibilbideko argazki eta guzti, apirilaren 17an.

Amaiera ekitaldia Gasteizen

Apirilaren 14an, Korrikaren amaiera ekitaldia zuzenean emi-

June eta Intza aretxabaletarrak Nafarroan, 434. kilometroan lekukoa eramaten E. URRUTIA

Korrikaren Debagoieneko ibilbidea

Oñati, Apirilak 13
- **11:28** Udana gaina.
- **11:58** Olabartako semaforoa.
- **12:11** Bidaurreta.
- **12:14** Kale Barria.
- **12:16** Kale Zaharra.
- **12:21** Kasablanka.
- **12:40** Zubillaga.

Bergara, Apirilak 13
- **12:57** Elorregi.
- **13:21** Labegaraieta.
- **13:29** San Antonio
- **13:33** Artekalea.
- **13:38** Mugertza.
- **13:44** Gasolindegia.
- **14:08** Osintxu.

Aramaio, Apirilak 14
- **01:54** Goikoetxea jatetxea.
- **02:30** Sankristobalgo txabola.
- **02:36** Kurtzetako bidegurutzea
- **02:50** Gureia.
- **02:57** Uribarriko plaza.
- **03:00** Ibarra.
- **03:22** Untzillako bidegurutzea.

Arrasate, Apirilak 14
- **03:40** San Juan de Dios.
- **04:01** Udala Plazako biribilgunea.
- **04:05** Okoretegiko biribilgunea.
- **04:08** Maalako biribilgunea.
- **04:15** Bedoñabe.
- **04:18** Takoloko biribilgunea.

Aretxabaleta, Apirilak 14
- **04:28** Aretxabaletako biribilgunea.
- **04:36** Ikurrin handia.

Eskoriatza, Apirilak 14
- **04:45** Ederlan.
- **04:52** Herriko sarrera.
- **04:59** Assa Abloy-Tesa.
- **05:06** Mazmela auzoko bidegurutzea.

Leintz Gatzaga, Apirilak 14
- **05:27** Maulanda jatetxea.
- **05:40** Aterbe landetxea.
- **05:47** Marisa aurretik.

tituko dute Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian. Emankizun hori, Garesko hasiera ekitaldia bezala, ETBrekin, *Berria*-rekin, Hamaikarekin, Infosarerekin, Kanalduderekin eta Xaloarekin elkarlanean emituko dute.

Goienatik joango den erreportaria Amaia Txintxurreta kazetaria izango da, eta, hain zuzen ere, egun handirako gogotsu dagoela adierazi du: "Oso pozgarria eta hunkigarria da halako egun esanguratsu batean saltsaren erdian egotea. Protagonistekin zuzenean egoteko aukera izango dugu, Garesko hasiera ekitaldian egin genuen bezala, eta euskararen aldeko festa erraldoia barrutik bizitzeko beste modu bat da".

Txintxurretak euskal hedabideen elkarlana ere azpimarratu du: "Norberaren emozioa eta protagonistena batzen da, eta, Euskal Herriak Korrikarekin bat egiten duen bezala, euskal hedabideak ere elkarlanean ibiliko gara. Beste medio batzuetako kazetariek Korrika nola bizi duten ikusteko balio du, baita lan egiteko ditugun askotariko moduak ezagutzeko ere. Ilusioz eta gogotsu joango naiz Gasteizera, zuzenean bertan gertatzen dena eta bertan izango den giroa ikus-entzuleei islatzeko asmotan".

GOIENAK KORRIKAREN JARRAIPEN OSOA EGINGO DU DEBAGOIENEAN

Korrikaren amaiera Gasteizko Andra Mari plazan 12:30ean izango da eta egun osoan ekitaldiak izango dira. Hala, Josu Zubiak, Debagoieneko Korrikaren dinamizatzaileak, bertara joateko dei egin die debagoiendarrei: "Nahiz eta badakigun gure ibarreko herri batzuetan goizaldean pasatzen dela Korrika, uste dugu merezi duela bertara joatea, ekitaldi ugari eta jai giro ederra egongo baita".

Azkenik, Zubiak gaineratu du aurten amaiera ekitaldia Gasteizen izanik eta lineako autobusak egonik, ez dutela aparteko garraiorik antolatu Debagoienetik.

"Ehun lagunetik gora ibili dira Korrikaren herri batzarretan"

JOSU ZUBIA DEBAGOIENEKO KORRIKAREN DINAMIZATZAILEA

JOSU ZUBIA

Abenduaz geroztik ari zarete Korrika antolatzeko lanean herri batzordeetan; zein da egiten duzun balorazioa?
Oso positiboa; jendea gogoz eta ilusioz ibili da, bi urtean behineko zita honen zain ikusi dut jendea, gogotsu heldu baitio Korrikari; herritarren barruan zerbait piztu dela esango nuke.

Korrika pasako ez den herrietan ere osatu dira batzordeak; Elgetan, esaterako...
Eta oso batzorde emankorrak eta herritar ugariz osatuak, gainera, nahiz eta korrika herritik ez pasatu ilusio berarekin hartu baitute. Gainera, egitarau polita sortu dute eta denetan garrantzitsuena da herrian Korrikaren aldeko giroa eta ilusioa piztu dutela.

Batzorde guztietako jendea kontuan hartuta, denera zenbat lagun ibili dira antolakuntzan?
Ba, zaila da kalkulatzea, baina ehundik gora bai.

Zer izan da zailena Korrikaren antolakuntzan?
Beldurrik handiena jendearen erantzunak ematen du; izan ere, batzarretara datorren jendearen lana ezinbestekoa da Korrika antolatzeko garaian. Baina jendea oso ondo portatu da eta lan egiteko gogo handia erakutsi du. Kontzientzia berezia daukate Korrikaren inguruan, eta sekulakoa da.

Beste eskualdeetan ere Debagoienean besteko erantzuna izan du Korrikak?
Debagoiena eskualde berezia den errezeloa daukat. Beti da asko: jende asko, eskaera asko eta abar. Baina aurtengo edizioan, behintzat, sekulako erantzuna ari da izaten bailara guztietan eta nabarmentzekoa da bereziki Nafarroakoa: oso erantzun ona izan du eta joera hori gorantz doa, gainera.

Joan den asteburuan Debagoienetik Nafarroara eta Zuberoara joan direnak ere asko izan dira...
Bai, asko eta asko, eta aipatzekoa da astean ere Nafarroa Hegoaldera, Arguedasera, joan dela oñatiar talde bat. Jende gutxiagok parte hartzen duen herria izanik, gurasoak bertakoak dituen Lorea Navarro oñatiarra ibili da antolatzen. Eta, hain zuzen, Arguedasen bertan ere egin ditu herritarrak animatzeko ekimenak.

Inboluzioari aurre egitea lehentasun

Gaur abiatu da ofizialki Espainiako Gorteetarako hauteskundeen kanpaina, eta, horren harira, Goiena telebistak mahai-inguru berezia eskainiko du gaur, 21:00etan, Miren Gorrotxategi, Joseba Agirretxea, Mertxe Aizpurua eta Maria Luisa Garciarekin

Miren Gorrotxategi, Maria Luisa Garcia, Mertxe Aizpurua eta Joseba Agirretxea Goiena telebistan atzo. XABIER URZELAI

Eneko Azurmendi ARRASATE

Apirilaren 28an egingo dituzte Espainiako Gorteetarako hauteskundeak, eta dagoeneko kanpainan sartuta daude alderdi politiko guztiak. Lau alderditako ordezkariak izan dira Goiena telebistako platoan, *Harira: hauteskundeak* programa berezian: Miren Gorrotxategi, Bizkaitik bigarrena Espainiako Diputatuen Kongresurako (Elkarrekin Ahal Dugu); Joseba Agirretxea, Gipuzkoako zerrendaburua Espainiako Diputatuen Kongresurako (EAJ); Mertxe Aizpurua, Gipuzkoako zerrendaburua Espainiako Diputatuen Kongresurako (EH Bildu); eta Maria Luisa Garcia, Gipuzkoatik bigarrena Espainiako Diputatuen Kongresurako (PSE-EE).

Askotariko gaiak izan dituzte hizpide: autogobernua, Kataluniako egoera politikoa eta pentsiodunen egoera, besteak beste.

Hauteskunde hauetan asko dago jokoan, eta horretan guztiak ados daude. "Eskuina bat eginda dator, eta erantzuna eman behar zaio horri. Irekitzen ari den egoera honetan arrisku asko daude, eta, horien artean, herri izatea egiten gaituzten ezaugarri horiek guztiak kolokan jartzen ari direla. Ezaugarri horiek mantendu nahi baditugu, lan handia egin behar dugu, eta erantzun sendoa eman datorkigun egoera horri", dio Aizpuruak. Agirretxea ere bat dator: "Euskadira begira, guri dagokigunari erreparatuta, inportantea izan daiteke gure autogobernuak defentsa izango duen, zeinek defendatuko duen eta ze eraso izan ditzakeen. Laino beltzen antzeko zerbait dator, itxuraz, behintzat, eta horretarako prest egon behar dugu. Legegintzaldi garrantzitsua izango da herri honen beharren defentsa sutsua egiteko, orain arte moduan".

Gorrotxategiren ustez, hauteskunde konstituziogileak izango dira. "Indarrean dagoen konstituzioak ez dauka indarrik eta datozen urteetan konstituzioaren irakurketa bat sortuko da datozen urteetarako. Une garrantzitsu baten aurrean gaude, eta aprobetxatu egin behar dugu".

Garciak dio "momentu arriskutsua" dela. "Orain arte lorturiko eskubideak kolokan daude, gure autogobernua barne. Kolokan dago gehiengo progresista baten eraketa, eta inboluzioa benetako arriskua da. Eskuineko gobernua izaten bada, datozen hamarkadetan ere garapen demokratikoa baldintzatuta egongo da".

Autogobernua

Agirretxeak autogobernua defenditzearen garrantzia azpimarratu du. "Autogobernua diodanean, dira erakundeak, da kontzertu ekonomikoa, da autonomia, eta dira ditugun baliabideak. Ez dago guztia Madrilen esku, gure eskumenak hemen ditugu. Baina batzuk badatoz hori kendu nahian, eta euskaldun eta abertzale moduan hori defenditu behar dugu".

ERREFERENDUMA SOLUZIOA DA KATALUNIAN AHAL DUGU, EAJ ETA EH BILDURENDAKO

Aizpuruak gaineratu du "une historikoei erabaki historikoekin" erantzun behar zaiela. "Autonomia maila baino zerbait gehiago dago jokoan. Herri bezala erantzuteko garaia da eta une historiko hau aprobetxatu behar dugu. Aurrera ez bagoaz, atzera egiten dugu. Ataka batean gaude, eta pauso bat aurrera emanez irten gaitezke hortik. Herri gisa funtzionatu eta lan egin behar dugu, guztiok hobeto bizi ahal izateko".

Gorrotxategik, aldiz, zalantzan jarri du aurreko biek aipaturikoa. "Autogobernua, norena? Eta zer egiteko? Autogobernua, gaur egun, maila askotan kokatzen da, eta identitate loturak askotarikoak dira. Autogobernatzeko gaitasuna identitateari lotzen bazaio ere, askotariko identitate horiek lotzeko gaitasuna izan behar du. Herritarren parte hartzeko ahalmena handiagoa izan behar da, eta horren baitan dago autogobernu maila inportanteena", azaldu du.

Garciak, azkenik, hauxe dio: "Daukagunari eustea eta aldarrikatzea oso garrantzitsua da. Gure hezkuntza-sistema, Osakidetza, Ertzaintza, kontzertu ekonomikoa... Hori gabe ezin dugu ulertu gaur egungo Euskadi. Baina aurrera egiteko ituna eta akordioa beharrezkoak dira, eta hori ezberdinen artean ematen da. Akordioak beharrezkoak dira gaur egun sortu diren hainbat erronkari aurre egiteko.

LAURAK BAT DATOZ: "MOMENTU ERABAKIGARRIAN" DATOZ HAUTESKUNDE HAUEK

Identitate eta sentimendu ezberdinak daude herri honetan, eta hori aintzat hartu behar da".

Kataluniako egoera

Elkarrekin Ahal Duguko ordezkariaren esanetan, Katalunian "kontrajarri" egin dira zilegitasun demokratikoa eta zilegitasun juridikoa, "eta hori ez da inoiz egin behar". Lehenik egoera "normalizatu" egin behar dela dio. "Eta azkenean, bai edo bai, kontsulta egin beharko zaio Kataluniako herriari. Baina erreferendum hori ezin da aldebakarrekoa izan, ez duelako funtzionatzen, orain arte ikusi dugun moduan".

Jeltzaleak ere uste du konponbidea erreferenduma dela. "Estatuak beti dauka eskuan ez onartzea, eta, orduan, ez da inoiz legitimoa izango. Beraz, beti egongo gara ataka horretan bueltaka. Guztiok dakigu bi aldeek adostu beharko luketela erreferendum hori, eta Espainiako Estatuak daukan arazoa da ez duela plurinazionaltasun hori onartzen. Baina garbi dago azken konponbidea erreferenduma dela", nabarmendu du.

Koalizio abertzaleko kidearen esanetan, "sinpleki" jokatzeak baditu bere onurak politikan. "Herriaren borondatea errespetatuz, lortuko litzateke beharrezko konponbidea. Eta nik uste dut hori dela soluzio bakarra. Independentziaren aldeko sentimendua oso transbertsala da, eta ez du atzera egingo".

Sozialistak erantzun dio "herriaren borondatea baino gehiago, herri erdiaren borondatea izango litzatekeela, eta gaineratu du orain arteko bidea ez dela egokiena. "Marko legal bat dago, eta marko legal hori ezin da alde batetik bakarrik apurtu. Marko legal hori gainditzeko, desberdinen arteko akordioak behar dira. Kontsulta egiteko, legea aldatu beharko litzateke. Kataluniako herriari esaten zaio gauza bat denok dakiguna ezin dena egin, eta hori arriskutsua da".

Pentsioak

PSE-EEk "hasieratik babestu" ditu pentsionisten mobilizazioak, Garciaren esanetan. "Une hauetan Sanchezen Gobernuak badu konpromisoa 1.080 euroko pentsio horretara iristeko. %0,25eko igoera izan da, eta orain, Toledoko Ituna berreskuratzea da asmoa, baita pentsioak KPIaren

Mahai-ingurua osatu duten politikarien profila

MIREN GORROTXATEGI
ELKARREKIN AHAL DUGU

Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea da EHUn. Azken legegintzaldi honetan senatari izan da, eta, horrez gain, Europako Batzordeko parlamentaria ere bada.

"ARGI DAUKAGU CIUDADANOSEKIN EZ DUGULA AKORDIORIK EGINGO"

JOSEBA AGIRRETXEA
EAJ

2004an, Gipuzkoako Batzar Nagusietako aholkulari taldean sartu zen. 2008an eta 2011n, Gipuzkoatik diputatu hautatua izan zen. 2015ean eta 2016an, Gipuzkoako zerrendaburu.

"LAINO BELTZEN ANTZEKO ZERBAIT DATOR; PREST EGON BEHAR DUGU"

MERTXE AIZPURUA
EH BILDU

Kazetaria da, *Gara*-ko zuzendari izandakoa aurreneko bost urteetan, 1999tik 2004ra. Usurbilgo alkate izan zen 2011tik 2015era, eta Udabiltzako lehendakari ere bai, epe berean.

"ESKUINA BAT EGINDA DATOR, ETA HORRI ERANTZUN EGIN BEHAR DIOGU"

MARIA LUISA GARCIA
PSE-EE

Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakaria izan da. 1983tik 1990era, euskara irakaslea izan zen. Gero, hainbat urtez, ingeles irakaslea izan da. 2000. urteaz geroztik, PSE-EE alderdiko kide da.

"GEHIENGO PROGRESISTA BAT ERATZEA DA GURE LEHENTASUNA"

arabera gaurkotzea ere. Bestalde, ondo pentsatu behar da pentsioen jasangarritasuna. Demografia arazo larri bat dugu eta Gizarte Segurantzari egindako ekarpen urriak prekarietatea eta langabezia ekarri du".

Izan den igoera "EAJri esker" gertatu dela dio Agirretxeak. Bestalde, "ikuspegi politikotik, planteatzen duguna da Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa arloko eskumenak Euskadira ekartzea, oraingo esparru juridikoa aldatuz. Iruditzen zaigu hori guri dagokigula, eta, gainera, hobeto kudeatuko genukeela".

Gorrotxategik azaldu du pentsioak KPIaren arabera igo beharko liratekeela. "Hala ere, hori legez bermatu beharko litzatekeela uste dugu". Toledoko Itunari dagokionez, ñabardura bat egin gura izan dio Garciari. "Toledoko Itunean proposatu zena pentsiodunek atzera bota zuten, euren aldarrikapenen aurkakoa izan zelako. Erretiroa 67 urtetik gora jartzea jarri zen mahai gainean, besteak beste".

EH Bilduk "erabat" bat egiten du pentsiodunen aldarrikapenekin. "Instituzioetan funtzionatu beharko genuke etxean funtzionatzen dugun moduan. Hau da, aurrekontu bat dago. Dirua badago. Kontua da nola banatzen dugun diru hori, zertan gastatzen dugun", dio Aizpuruak.

Balizko bat-egiteak

Azkenik, hauteskundeen emaitzen ostean alderdi politikoen artean eman daitezkeen balizko akordioak izan dituzte hizpide. "Oso argi dugu norekin akordioak egin eta norekin ez. Ciudadanosekin ez; zentsura mozioa ahalbidetu zuten indarrekin, bai", dio Gorrotxategik. Garciak, berriz, gehiengo progresista baten eraketari ematen dio lehentasuna. Aizpuruak Sanchez babestu lezakeela dio, "baldin eta guk eta ERCk aurkeztutako hainbat baldintza betetzen dituen". Agirretxea, azkenik, "Euskadiren interesak defenditzeko dagoen edonori" laguntzeko prest azaldu da.

"Oinarrizko errenta unibertsala posible da"

ANGEL ELIAS ORTEGA LAN HARREMAN FAKULTATEKO DEKANOA

'Nahi dugun lanaren etorkizuna: eztabaida globala' nazioarteko kongresua egin dute Oñatin eta Angel Elias Ortega gonbidatutako hizlarietako bat izan da

Amaia Zabala OÑATI

Lanaren Nazioarteko Erakundearen mendeurrena ospatzeko mundu mailan egiten ari diren ekitaldien barruan Euskadin egingo den ekitaldi bakarra izango da Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean izaten ari den kongresu hau.

Zein dira urte hauetan lan harremanen inguruan egin diren aldaketa edo aurrerapauso handienak?

Ez dakit denak aurrerapausoak izan diren, baina aldaketa nagusia teknologia berrien ondorioz etorri dela esango nuke: inteligentzia artifiziala, robotika, digitalizazioa, eta abar. Dena den, egungo mundu globalizatu honetan arazo nagusia enpresa handiek duten boterea da. Izan ere, horren ondorioz, lan harremanak gero eta baldintzatuago daude.

Zer egin daiteke hori saihesteko?

Konponbidea aberastasuna banatzea da eta hori oinarrizko errenta unibertsal baten bitartez egin daiteke. Egun, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzua, esaterako, unibertsalak ditugu, eta guztiontzat oinarrizko errenta bat ere ezarri daiteke. Horren inguruko ikerketa mordoa egin dira eta hauen emaitzen ondorioz badakigu guztiok oinarrizko errenta bat izateko adina aberastasun badagoela gizartean. Errenta horri esker bakoitzak nahi duen proiektuan aritzeko askatasuna izango luke, eta egun lan munduan dugun arazo nagusienetako bat motibazio falta da. Izan ere, soldata ateratzeko gustuko ez ditugun lanak egitera behartzen gaitu gizarteak. Eta gustuko lana denean eta motibazioa dugunean, pozik jaikitzen gara; aldiz, aldapa gora egiten bazaigu, kosta egiten zaigu. Alde batetik, gero eta prestakuntza maila altuagoa eta aukera zabalagoa ditugu, baina gero proiektu propioak aurrera eramateko ikasleek dituzten aukerak oso mugatuak dira.

Angel Elias Ortega, etorkizuneko lanaren inguruko kongresuan Oñatin. L. KORTABARRIA

"ENPRESA HANDIEK DUTEN BOTEREA DA MUNDU GLOBALIZATU HONEN ARAZO NAGUSIA"

Oinarrizko errenta unibertsala diozunean, zein kopuruz ari zara?

EAEn, esaterako, bakoitzak 700 euroko oinarrizko errenta bat izan daiteke. Horrek ez du esan nahi nahikoa denik, baina askatasun bat ematen dizu nahi dituzun proiektuak gauzatzeko. Gainera, oinarrizko errenta unibertsal honen bitartez boterea multinazionaletan egoteaz gain, pertsonetan egotea lortuko genuke.

Hori ekonomikoki jasangarria da?

Bai, baina hori finantzatzeko gehien dutenek askoz gehiago ordaindu behar dute eta horrek egun dugun zerga sistema berrikustea dakar. Eta hori ez diot nik bakarrik, baizik mundu honetan gabiltzan askok. Esaterako, duela hiru hilabete, ToShare behatokia jarri dugu martxan eta bertan, giza eskubideak bermatzea, eskubideen berdintasuna, eta abar eztabaidatzen eta aztertzen ditugu. Enpresa, sindikatu eta erakunde ezberdinen 24 ordezkari gaude erakundean eta gure gizartean modu zuzenagoan aberastasuna nola banatu aztertzen dugu.

Sindikalgintzaren inguruko kongresua duzue egun hauetan EHUn. Badute lekua etorkizuneko lan harreman idiliko horietan?

Bai, noski; izan ere, gure gizartean ordezkariak behar ditugu, Gobernuan ditugun moduan.

Eusko Jaurlaritzak etorkizuneko lan-harremanen dekalogoa aurkeztu du Oñatin egiten ari den nazioarteko kongresu honetan, eta puntuetako bat gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zen. Etorkizunera begira baikorra zara?

Ni baikorra naiz, zorionez dagoen kontzientzia eta mobilizatzeko gaitasuna gero eta handiagoa baitira. Egia da asko falta dela oraindik, baina oso argi identifikatuta ditugu non dauden arazoak, kultur arazoak, botere arazoak eta zaintza partekatua, hain zuzen, eta hori garrantzitsua da. Fakultatean beti diogu guztion onerako dela berdintasuna.

Mondragon Assemblyk Txinan irekiko duen lantegiaren maketa. MONDRAGON ASSEMBLY

Mondragon Assemblyk lantegi berri bat eraikiko du Txinan

3,5 milioi euro inbertituko ditu eta 2022rako 25 milioi euroko salmentak eta 180 langile izatea espero du

Amaia Zabala ARETXABALETA

12.000 metro koadroko lursail bat erosi du Qiandengeko industrialde berrian (Kunshan), eta 7.000 metro koadro inguruko lantegi bat eraikiko dute bertan. Eraikinak 6.000 metro izango ditu ekoizpen gunerako eta 1.000 metro koadro bulegoetarako. Espero da eraikitze lanak 2019aren erdialdean hastea eta 2020aren lehen lauhilekoan lantegia operatibo egotea.

Munduko erreferente

Automatizazioen eta eguzki energiaren sektoreetan munduko erreferente gisa sendotzeko beste urrats bat dela jakinarazi du Mondragon Assemblyko Txinako zuzendari orokor Mikel Gantxegik: "Urtetik urtera sendotzen ari gara merkatuan, eduki teknologiko handiko proiektuetako erreferente gisa. Lantegi berri honek hazten jarraitzea ahalbidetuko digu, bai eta barruan definitu ditugun eta egun ditugun bezeroek eta etorkizunean izango ditugunek Txinakoa bezain exijentea den agertoki batean lehiakorrak izaten jarraitzeko eskatu dituzten erronka berriei heltzea ere".

GOIENA

Markel Olano, Lazpiur bisitatzen

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak Lazpiur enpresaren instalazioak bisitatu zituen Bergaran atzo goizean. Bertan, makina erremintaren enpresa horrek zabaltzeko eta inbertitzeko dituen asmoen berri izan zuen. Olanok azpimarratu zuen Lazpiur bezalako enpresei esker dela Gipuzkoa "lehiakorragoa eta orekatuagoa" gaur egun.

GUTUNAK

Galdutako medikamentuaren bila. Zer gertatzen ari da?

LAURA SANCHEZ ALVAREZ
FARMAZIALARI TITULUDUNA
ARRASATE

Nahiz eta artikuluaren tituluak igande euritsu horietako fikziozko pelikula baten izena dirudien, farmazialariei aspalditik sortzen dien buruko minaren arrazoi da.

Urte hauetan zehar, farmazietan medikamentu batzuen galera detektatu da; Nolotil, Dalsy eta Kreon, adibidez. Gutxinaka, arazoa zuzentzen joan da eta sekula ez da osasun arazorik sortu.

Baina orain dela hilabete batzuk gertatzen ari dena ez da egoera bera: farmaziak medikamentu askoren galera jasaten ari dira eta batzuetan, beste inolako erremediorik gabe.

Esan daiteke, beraz, badirela farmaziak eta pazienteak medikamentu horietara heltzeko arazoak dituztenak.

Arduratzeko moduko egoera izaten hasi da, zeren eta sekula ez baita egon horrelako medikamentu faltarik, eta ez dakigu noraino helduko den eta noiz baretuko den.

Badu logikarik gertatzen ari dena? Batzuek diote arazoaren iturria medikamentuaren prezioen jaitsiera dela, prezio oso baxuetara, zeinetan pazienteak harritu egiten diren horien prezio baxuagatik. Honek enpresa farmazeutikoen irabaziak murriztuko ditu eta, ondorioz, horien fabrikazioak ez luke inolako errentagarritasunik izango.

Egoera hau ez da berria, eta harrigarria da nola ez zaion gai honi komunikabideetan garrantzirik ematen. Beharrezkoa da iritzi publikoa mugiaraztea, erruduna ahalik eta arinen aurkitzeko.

Bitartean, pelikulako pertsonaia txarra farmazia da, zeren eta egunero aurpegia eman behar baitugu pazienteen aurrean egoera azalduz; alegia, eurek aspalditik hartzen duten medikamentua ez dela gehiago fabrikatzen eta ez dagoela beste soluziorik. Nahiz eta almazenetara behin eta berriz deitu, azkenean, pazienteak osasun zentrora jo behar du, medikuak beste errezeta bat egin diezaion, guk ez baitugu beste aukerarik.

Txernobylgo sarkofagoa

JOSU GARITAONANDIA
OPARITU ZUHAITZ BAT EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

110 metroko altuera, 150 metroko zabalera eta 256 metroko luzera duen eraikinak estaltzen du 1986ko apirilaren 26an istripua izandako zentral nuklearra.

Orduan egindakoa ez zegoen egoera onean: zirrikituetatik erradioaktibitatea ihes egiten zuen eta 30 urtera beste bat ipini beharra izan zuten.

Esaten dute honek 100 urte baino gehiago iraungo duela; denbora laburra, kontuan izanda eutsi behar duen erradioaktibitateak milaka urte iraungo duela. Artean, batzuek esaten dute energia nuklearra merkea dela; gure herrietako edozein eliza estali dezakeen tramankulu hau merkea dela? Erradioaktibitatearen eraginez gaur egun osasun arazoekin jaiotzen dira umeak... merkea dela?

Garbi daukadan bakarra da zentral nuklearrak dituzten argindar enpresei ez diedala elektrizitaterik erosiko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Hobe musu txar bat baino belarrondoko bat

IMANOL EPELDE PAGOLA
HTTPS://LABUR.EUS/WW1EY
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Zuei ere umetan emanarazten zizkizueten muxuak? Nola sentitzen zineten muxu jasa haren erdian? Orduan zergatik behartzen ditugu gure seme-alabak gauza bera egitera? Edukazioagatik? Baina, esaidazue, zer da edukazioa ume batentzat? Edukazioagatik muxuak gogoz kontra emateko eskatzen diegunean, zer ari gara erakusten? [...] Nahi dugu eurek aukeratu ahal izatea muxuak noiz eta nori eman? Gure bikotea behartuko genuke behartutako musuakematera?

Zergatik ez diogu uzten umeari bere kasa erabakitzen! Ez, beti da ez. Baita umeek esaten dutenean ere. Edo hobeto esanda: baiezkoak bakarrik esan nahi du baietz. Eta punto.

Post gehiago 8. orrialdean.

Amodio-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA

Aldaketa behetik gora

Zapatuan (2019-04-06) *Berria*-k zekarren hezkuntzari buruzko *Inertzia vs. ausardia* artikulua irakurrita, zer pentsatua ematen du.

Rebeka Ubera artikulugileak dio metodologia parte hartzaileak aplikatuz ikastetxeak berritzeko saiakerak egiten ari direla, "nahiz eta sistema arrazista, matxista eta klasista izan"; hau da, nahiz eta sistema kapitalista izan. EAEko Hezkuntza sailburuak aldaketa ekimenak bultzatzeko jarrerarik ez duela adierazten du.

Badirudi ez duela kontuan hartzen euren gustuko izan daitezkeen edo ezinbestekoak liratekeen aldaketak eginda ere, sistema mantentzea dutela agintariek helburu.

Kapitalismoan egonik, beraiek sustatzen duten eredua aldatzekotan, ba al dago beraiekin kontatzerik?

Benetako aldaketarik gertatzekotan, Euskal Herriko esperientziak behetik gorako antolakuntza baten bidez izan beharko lukeela adierazten du.

HERRIALDE HONETAN IZAN DIREN ALDAKETA HANDI GEHIENAK GIZARTE MUGIMENDUEK GARATU DITUZTE

Herrialde honetan izan diren aldaketa handi gehienak, zer hobeturik badaukate ere, gizarte mugimenduek garatukoak izan dira: ikastolak, euskalgintzak edo kooperatibak. Aldi berean, ikustekoa da sortzez publikoak ziren beste erakunde batzuek daramaten kapitalaren bidea: Euskaltel, Kutxabank, CAN...

Artikuluan ez da sistema kapitalistak historian zehar ezarri duen eta oraindik gainditua izan ez den euskararen bazterketaren inguruan aipurik.

Argitzekoa litzateke, ez baitio ezer euskara hiztunok erakundeetan dugun egoerari buruz, hezkuntza arlokoak barne: unibertsitate, lanbide heziketa, akademia... Gehienek espainieraz funtzionatzen dute.

Izan ere, askotan, ahaztuta gelditzen da hizkuntza gutxituak, baztertuak, sistema kapitalista uniformatzaile honek eraman dituela egoera horretara.

Hainbat herrialdetako egoerei begiratuz argi ikus daiteke: Brasilen portugesa, Aljerian frantsesa… Euskal Herrian frantsesa edo espainiera...

Zerk ezarri du egoera hori *klase* dominazioak ez bada?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ilusioa

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/VLHVV

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zirrara sortzen du Korrikak: emozioa. Ez da euskararen aldeko lasterketa soil bat. Bi urterik behin, barrenak mugitzen dizkigu. Bi urterik behin, herri bat astintzen du, euskararen alde. Ez bakarrik Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatzen dituen hamar egunetan. Hilabeteak lehenago, korapilatzen gaitu ibilbidea pentsatzen, deskubritzen, planak kalkulatzen –halako ordutan pasatuko den hemendik, halakotan eginen dugun laster; antolarazten gaitu kilometroak erosi eta saltzen– halako eta bertzelako elkarte, mugimendu, instituzio eta familiak euskararen alde jarrita. [...]

Heldu denean zoro zoragarri sentiarazten gaitu, goizeko ordu txikitan, mendi punta batean, lekukoa noiz iritsiko zain, hainbeste kritikatu dugun abestia kantari hasten garenean; edo elkar besarkatzen. Sekula ordu erdi baino gehiago laster egin ez dugunoi ordubete irauteko indarra ematen digu, ia orkatilak bihurritzeraino. [...]

Badu zerbait Korrikak, Euskal Herri eder bezain gorrotagarri honetan deus gutik lortzen duena. Elkartzen gaitu alderdi eta mugimendu ezberdinetako kideak –gazte mugimendu eta parlamentuetan elkarri mokoka gabiltzanak–; uztartzen borrokak. Batzen gaitu euskaldunak eta euskaraz ia deus ez dakitenak, edo jakin bai, baina guti egiten dutenak. Sentiarazten gaitu, gaur egun deus gutik bezala, zazpi lurraldeko Euskal Herri baten parte. Eta biziarazten gaitu; piztuz, euskaldun ezkorron artean garesti dagoena: ilusioa. Hamar egunez makila zati bat bi hankaren gainean gelditu gabe mugiarazteko gai bagara, pentsa zenbat gauza egiteko gai izanen ginatekeen –eta nahi badugu, garen– egunerokoan ilusio berarekin bizita.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin. Amaia Igartua.
Administrazioa Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 *harpidetza@goiena.eus*

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 *publi@goiena.eus*

EGOITZA NAGUSIA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 *berriak@goiena.eus*

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Lanbide Heziketa ere bada unibertsitaterako sarbidea"

AMAIA IRIZAR DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEKO ENPLEGU TEKNIKARIA

Eneko Azkarate ARRASATE

Hamaikagarren edizioa izan du Goiaz! azokak aurten. Astelehen eta martitzenean egin da Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka Arrasaten.

Ase ditu zuen asmoak azokak?

Bisitari kopuruaren aldetik –ikasle eta guraso, batik bat– gustura geratu gara. Lanbide Heziketa edo unibertsitate ikasketak egitear dauden 300 ikasletik gora etorri dira. Horiez gain, Helduen Hezkuntza Eskolakoak eta Gurutze Gorriko errefuxiatuen programakoak ere bai; baita norbanakoak eta Lanbide Heziketa ikasi dutenak ere.

Ikasleen gurasoak ere bai?

Bai, eta aurten inoiz baino gehiago, 30 bat.

Lanbide Heziketa ikasten aritu direnak haien esperientzia partekatzera ere etorri direla diozu.

Urtero datoz eta guztiek azpimarratzen dute heziketa aro laburra dela, praktikoa, lanbidera bideratuta...

Amaia Irizar, Debagoieneko Mankomunitatean. GOIENA

Autoestimuaren aldetik ere pozik etortzen dira Lanbide Heziketak eman dielako, esaterako, unibertsitatera ailegatzeko bidea.

Zein da azoka honen helburu nagusia?

Lanbide Heziketa ezagutzera ematea, ospea edo balioa ematea, lan merkatuan txertatzeko baleko aukera dela nabarmentzea...; akademiekin eta eskolekin harremanak egitea, udaletako edota Mankomunitateko Enplegu eta Garapen sailekin harrenenak sendotzea...

Sorrerako helburuek eta gaur egungoek berdinak izaten jarraitzen dute?

Bertsuak edo antzekoak dira. Agian, gizartean badago Lanbide Heziketaren gaineko ikuspegi hobea orain dela urte batzuetakoa baino. Hezkuntza Sailak, enpresek eta erakunde publikoek ahalegin berezia egin dute hori lortzeko eta gaur egun lehen aukera da askorendako. Unibertsitate ikasketak bezain baliagarria da goi mailako heziketa zikloa egitea.

Geroago eta gehiago dira Lanbide Heziketa ikasi ostean unibertsitatera doazenak?

Bai; batzuek frogatzen dute lehenbizi goi mailako heziketa zikloko ikasketa bat eta hori egin ostean erabakitzen dute formatzen jarraitzea eta unibertsitatera joatea. Lan mundurako hobeto prestatuta daude eta, hain zuzen ere, unibertsitate ikasketak eta lana aldi berean egin ditzakete.

Badauka zer hobetu Lanbide Heziketak?

Akaso, euskararen presentziari dagokionez bai, nahiz eta egiten ari diren ahaleginak euskarazko materiala sortzeko.

HAU BE BADOGU!

Zulo beltz baten lehenengo argazkia

Zulo beltz bati inoiz atera zaion lehenengo argazkia lortu du EHT teleskopioak, M87 galaxian:

@GariGaraialde: "Messier 87 galaxiako zulo beltza *@ehtelescope* bidez lortu bada, eta hau 8 radioteleskopioz osatutako sistema bat bada... Lortutako irudiari argazki deitzea akats bat da, ez?".

@koldotxu: "Zein itsusia den zulo beltza".

Markel Irizarren erorikoa Araban

Itzuliko 3. etapan, landara erori zen oñatiarra, eta erorikoa umorez hartu zuen:

@Markelirizar: "Zorionez pieza baten! Narruko formala baina ezer larririk ez. Bihar berriz martxan! | Arabako patata uzta nola dagoen txekeatzen! Akaso bizikleta aparkatzeko era ezta onena izan".

@davidetxebarria: "Ez dakit ni ba... Bizikleta zuri ez bazaizu aparkatu...".

Korrika, sare sozialetan ere markak hausten

Aste bukaeran azken esprinta egin aurretik, arrakasta itzela lortu du Korrikak sarean:

@IdoAnzorandia: "Etorri da... Eta energiaz eta alaitasunez disfrutatu dugu... Eta joan da... Eta mila emozio piztu zaizkigu... Eta pilak kargatu ditugu ahobizi jarraitzeko!".

@enekogara: "Korrika uzten duzun momentuan sentitzen den sentimendu berezi hori, *#klika*".

ITURRI ONETIK

Korrikako irudi bitxietako bat zapatuan Oñatin

Korrikako Oñatiko kilometroetako bat Txakurren Adiskideek –euskal artzain txakurren elkartea– egingo dute, Zubillagan. Ardiekin eta txakurrekin batera egingo dute antxintxika. Jose Mari Bengoa *Ursabal* joango da aurretik txakur batekin, eta ondoren, ardiak eta beste txakur batzuk. Goizean, artzain txakurren ikastaroa egingo dute Larraingain elkartearen ondoan eta ikastaro horretan parte hartuko dutenak ere joango dira euren ardiekin eta txakurrekin batera.

ALBISTE IZAN ZEN

GOIENA

2006-04-08

ETAren su-etena bakearen aldeko martxan

Oñati eta Arantzazu arteko ibilaldia egingo dute, beste behin, bihar, Erramu Zapatu legez. 2006koak izan zuen berezitasunik. ETAk su-eten iraunkorra aldarrikatu berri zuen eta itxaropena ekarri zuen orduko erromesaldira. Horri erreferentzia zuzena egin zion Juan Mari Uriarte gotzainak Arantzazuko hitzaldian. "Pozak eta itxaropenak adindu ditu gure oinak", esan zuen. Eta gehitu zuen: "Bake bidearen lehen urratsak eginak daude".

"Kudeaketa gardena eta eraginkorra egin dugu"

Balorazio "positiboa" egin du Arrasateko EAJk lau urteotako agintaldiaren gainean. 21 milioi euroko inbertsioa egin dutela nabarmendu dute, "Arrasateko behar historikoak desblokeatuz", "herri atseginagoa eginez" eta "Udala 'zero zor' egoeran utzita"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Eguaztenean prentsa agerraldia egin zuen Arrasateko EAJk, agintean egindako lau urteen balorazioa egiteko. Alkateak adierazi du "gakoa" lana izan dela, duela lau urteko programan aurkeztutakoak betetzeko.

Mendieta, Ezkurra, Arrupe, Ubarretxena, Garay, Aspiazu, Zeziaga eta Garitano. J. B.

Gizarte zerbitzuak

Arloz arlo egindako balorazioan, azpimarratu dute, besteak beste, gizarte zerbitzuetan egindako lana: "Estatuko hirugarren herria gara gizarte zerbitzuetako inbertsioetan. Pertsona nagusien etxeak ikuskatu eta suteen aurkako gailuak instalatu eta elkarrizketa pertsonalizatuak egin dira. Gipuzkoako Zerbitzuen Mapa osatzeko lana egin da, eta herriko harrera protokoloa agintaldi honetan ezarri da. Arrasateko giza diagnosia ere egin da eta elikagaien bankua martxan jartzea ahalbideratu da", adierazi du Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Amaia Azpiazuk.

Mugikortasun plana

Hirigintza arloan, bestalde, mugikortasun plana aho batez onartu izana goretsi du alkateak. "2007tik egin gabe zegoen mugikortasun plana jarri dugu martxan". Mugikortasunaren alorrean, oinezkoei lehentasuna emateko, espaloi gainean aparkatzen zuten autoen dinamika aldatzea, hainbat espaloiren konponketa eta zabaltzea eta oinezkoentzat espazioak berreskuratzea nabarmendu dute.

Jolas parkeak

Jeltzaleentzat, agintaldi honetako "beste ekimen garrantzitsu bat" haur parkeak eraldatzea izan da: "Zortzi jolas parke berritu –Munar, Zaldibar, Biteri, Kurtzetxiki, Itxaropena, Makatzena, Musakola, Gorostiza– eta horietako hiru estali egin dira –Itxaropena, Makatzena eta Gorostiza–. Zortzi parke horietatik sei auzoetakoak izan dira. Haur txikientzat txiki-txokoa zabaldu da eta haurren parte-hartzea ahalbidetzeko haurren kontseilua martxan jarri da".

ZORTZI JOLAS PARKE BERRITU IZANA ETA HORIETAKO HIRU ESTALTZEA NABARMENDU DUTE

Aipatutako inbertsioak

Hauek dira jeltzaleek azpimarratutako inbertsio nagusiak, eurotan.

- **5.161.894** Juan Arzamendi Musika Etxea.
- **4.438.676** Kulturola.
- **1.128.000** Zortzi jolas parke berritzeko.
- **1.000.000** Makatzenako igogailua.
- **900.000** Kirol arloko inbertsioak.
- **593.200** Asfaltatze lanak.
- **400.000** Ingurumen arloko inbertsioak.
- **377.000** Hezkuntza arloko inbertsioak.

Kirol Plana eta azpiegiturak

Kirol arloan azpiegiturak hobetzea eta plan estrategikoa izan dira agintaldiko "eginkizun aipagarrienak", jeltzaleen aburuz. "Gimnasio berria jarri dugu Uarkapen, erabili gabe eta hutsik zegoen azpiegitura bat baliatuta; berrikuntzak egin ditugu Musakolako kiroldegian, tenisko itxitura berrituz, esaterako; Iturripeko kantxako lurra berritu dugu; Mojategiko belar artifiziala aldatu dugu; eta etorkizuneko kiroldegi berri baterako aurreproiektua prest utzi dugu", adierazi du Ander Garayk.

Garitano eta Aspiazu

Ekitaldian, eskerrak eman nahi izan zizkieten zinegotzi aritu diren Karlos Garitanori eta Amaia Aspiazuri, EAJren zerrendetako azken postuetan joango baitira. Garitanok 12 urte egin ditu Arrasaten zinegotzi, 1991-1995, 2011-2015 eta 2015-2019 agintaldietan, hain zuzen.

Eneko Fernandez, asteazkenean Kulturaten batutako entzuleen aurrean berbetan. X.G.

Kirol eskaintza "deszentralizatua" defendatu du EH Bilduk

Iturripen beste kantxa bat eta gimnasioa jartzeko prest azaldu dira, eta baita auzoetan inbertsio txikiak egiteko

X.G. ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk ekitaldia egin du, asteon, herritarrei kirol arloan dituzten proposamenak helarazteko. Kiroldegia berritzeko beharrarekin bat etorri dira, baina Gobernuaren aurreproiektuan hutsuneak ikusten dituzte, eta, batez ere, ez dute eskaintza guztia Musakolara mugatu nahi. Zentzu horretan, Iturripen, adibidez, beste kantxa bat eta gimnasio bat egiteko prest azaldu dira, eta "akaso, baita igerileku bat ere". "Era horretan, Erguingo, Uribeko eta San Andresko biztanleek eskurago izango dute kirola egiteko aukera. Uarkapeko adibideak erakutsi du baliabideak hurbilduz gero jendeak erantzun egiten duela" azaldu du Eneko Fernandezek.

Iturripekoaz gain, beste inbertsio hauek ere proposatu zituzten: Txaetako etxeetan dagoen Udalaren lokal batean "osasun gimnasioa bat" –batez ere, adindunentzako–, Txaetan bizikletentzako eta skate-zaleentzako pista bat, Makatzenan kalean gimnasia egiteko makina batzuk, San Andresen gimnasio bat –Polmetasako etxe berrietan–, Maiatzaren Bata plazan boulder txiki bat eta Musakolan parkourra egiteko gune bat. "Iturripe kenduta, inbertsio hauek ez lirateke 1.500.000 eurora iritsiko".

Kiroldegirako, kuota progresiboa

Kiroldegiko kuota finkoa kendu egin nahi dute, diru-sarreren araberako kuota "progresibo" batekin ordezkatuta. "Errenta aitorpenean dauden tramuen antzerako sistema baten bidez, diru sarreren araberako kuotak ezarri nahi ditugu, langabezian daudenen edo pentsio baxuak dituztenen kirola egiteko aukerak handitzeko", azaldu zuen Nerea Hernandezek.

Bukatuta bai, martxan ez

Makatzena auzoko bizilagunen mugikortasuna hobetzeko igogailuko lanak amaituta daude, baina oraindik ez dago erabilgarri. Aurreikusitakoa baino atzerapen gehiago izan ostean, joan den astean zen estreinatzekoa, baina, "azken orduko arazo tekniko batzuen eraginez", GOIENAren erredakzioa itxi zenerako ez zegoen erabilgarri.

XABI GOROSTIDI



Mundukideko Josu Urrutia –zuzendaria–, Leire Mugerza –presidenteordea– eta Raul Garcia –presidentea–. XABI GOROSTIDI

20 urte behartsuei balio kooperatiboak helarazten

Mundukide 1999an sortu zen, munduko biztanle behartsuei ekonomikoki burujabeak izateko tresnak emateko. Bi hamarkada hauetan, hamar herrialdetara heldu dira, eta iaz, adibidez, 75.000 lagunengan izan zuten eragina. Aurten, ospakizunik ez da faltako

Xabi Gorostidi ARRASATE

Harreman, Atxorrotx, FISC eta Gernikatik Mundura GKEek kooperatiben atea jo zuten 1999an, eta, Fagorren, Maierren, Oronaren eta Ulmaren babesa jaso ostean, 1999an sortu zen Mundukide. 20 urte pasa dira, eta, urteurren borobilaren harira, prentsa agerraldia egin du kooperazio kooperatibak asteon: egindakoaren errepasoa egiteko, egun esku artean dituzten erronkak zeintzuk diren azaltzeko eta bi hamarkada bete izana nola ospatuko duten azaltzeko.

Raul Garcia presidenteak hastapenetatik gaur egun eguneraino egindako ibilbidea izan du hizpide. Besteak beste, aipatu zuen bi hamarkada hauetan hamar herrialdetan aritu direla lanean, 300 erakunderekin izan dutela harremana, 121 kooperante eta langile izan direla Mundukideren parte eta 120 boluntario eduki dituztela. Azaldu du balio kooperatiboak munduan zehar hedatzea lortu duela Mundukidek; behartsuenak ahaldunduz eta haien garapenari bidea emanez.

Leire Mugerza presidenteordeak, berriz, aipatu zuen momentu honetan "aukera paregabea" dagoela herrialdeen arteko ezberdintasunak murrizteko, eta, horren ildora, Brasilen, Mozambiken eta Kolonbian esku artean dituzten proiektuak jakinarazi zituen. Horrez gain, Malawin, Etiopian eta Ekuadorren lanean hasteko asmoa dutela ere aipatu zuen. 2018an onartu zuen Mundukidek hurrengo urteetarako lan-ildo izango den plan estrategikoa. Lau zutabe ditu, baina, Mugerzaren ustez, eraldaketa sozialarena da garrantzitsuena: "Arizmendiarrietak esaten zuen mundua ez dela kontenplatzeko, eraldatzeko baizik. Mundukideren funtzio nagusia eraldaketa hori egitea da; bai lanean dihardugun herrialdeetan, eta baita hemen ere". Beste hiru zutabeak hauek dira: lankidetzak handitzea, finantziazio jasangarria izatea eta pertsona konprometituak lortzea.

Ospakizun ekitaldia, azaroan

Egindako ibilbidea errepasatzeko aitzakia ematen du urteurren batek, baina baita ospakizunetarako ere. Bidelagun izandakoei eskerrak emateko asmoz, bideo bat egin dute. Horrez gain, urriaren 20an, bosgarren lasterketa kooperatiboa egingo dute eta azaroaren 7an, aldiz, ospakizun ekitaldia Arrasaten, Kulturaten.

Mundukideren proiektuak eta zenbakiak

Proiektuak
- **Mozambike** 18 urte hango nekazariei laguntzen.
- **Brasil** 20 kooperatiba trebatu dituzte.
- **Kolonbia** Birziklapen kooperatiba bat, 600 laguni zerbitzu ematen diona.

Erronka berriak
- **Malawi** Mozambikeko eredua, *Idai* zikloiaren eraginak baretzeko.
- **Etiopia** Nekazari ekoizpena hobetu eta gosearen aurka eragin.
- **Ekuador** Erakunde sozioekonomikoak indartu eta nekazaritza garatu.

Zenbakiak
- **10** herrialdetan aritu dira proiektuak garatzen.
- **300** erakunderekin izan dute elkarlana.
- **121** kooperante eta langile eduki dituzte.
- **120** boluntarioren laguntza izan dute.
- **75.000** pertsonarengan izan zuen eragina Mundukidek 2018an.

OHARRAK

Gaztetxoen eta nagusien Doke Txapelketa
14 urte artekoena bihar, zapatua, egingo dute, 11:00etan, Kondekuako berdegunean. Lehen lau sailkatuek sariak jasoko dituzte. Nagusiena, aldiz, apirilaren 19an jokatuko da: 10:00etan, Kondekuan; herriko elkarte gastronomikoek eta politikariek hartuko dute parte, eta sardina erreak eta ardoa izango dira.

Pentsiodunen bilkuretan bi asteko etena
Hilaren 15ean eta 22an ez dira batuko, baina 29tik aurrera berriz elkartzen hasiko dira, betiko orduan eta lekuan: 12:00etan, Herriko Plazan.

Txatxilipurdi, udalekuetarako begirale bila
Interesa dutenek curriculuma bidali behar dute maiatzaren 10a baino lehen; bulegora edo *haurrak@txatxilipurdi.com* helbidera.

Vasco-Navarro trena: dokumentala
Jendeak hala eskatuta, berriz proiektatuko dute, maiatzaren 6an eta 7an, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

Arnaldo Otegiren ekitaldia zapatuan
12:00etan izango da, Kulturateko areto nagusian.

Pello Zabala, herriko gazteen galderak erantzuten

Goiena telebistako *Galdegazte* saioko hurrengo atalean, Pello Zabala frantziskotar ezagunak Arrasateko gazteek botatako galderak erantzungo ditu. Jokin Bereziartua kazetariak aurkeztutako saioan, Arrasate Institutuko batxilergoko lehen mailako Gorka Etxabe, Eider Lasaga eta Aitor Ugarte ikasleak arituko dira galderak egiten, eta askotariko gaiei buruz jardungo dute: erlijioa, Darwinen teoria, guardia zibilek Arantzazun izandako pasarteren bat...

Saioa apirilaren 25ean emitituko du Goienak telebistak, 21:30ean eta 23:30ean, eta, ostean, *Goiena.eus* webgunean ikusi ahalko da.

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Broma zahar hori

Badaukazue lagun mota hori, beti dabilena adarra jotzen txiste berberekin? Berak bakarrik barre egiten duen txantxa zahar horiekin? Ozen egiten du berba, komunikatzaile ona izaten da, eta ez du aukerarik galtzen botetik eskupekoa ateratzeko. Kuadrillako lotsagabea, finean. Badaukagu halakorik euskal kuadrilla politikoan ere, eta gure kuadrilla politikoko lotsagabe horrek egin ohi duen broma tipiko bat hartuko dut hizpide. Hainbestetan entzun dugu, ez gara ohartzen adarra jotzen ari zaigu. Ea igartzen duzuen zein den: Parisekin eta Madrilekin konexioa izan behar zuen zerbait da; milaka kamioi errepideetatik aterako ditu; 2016rako amaituta egongo da; paisaian edukiko duen inpaktua hutsala izango da; urtero ehunka milioi euro publiko irentsi arren, inbertsioa izango da, eta denok pozarren egongo gara amaitutakoan, 2016an.

Gogoratzen broma zahar horren izena? Gogoratzen nork jarraitzen duen kontatzen txiste hori, bizkarrean kolpeak ematen dizkigun artean? Kar, kar! Konturatzen gara, txiste txar guztietan bezala, kontatzen duena bakarrik ari dela barrezka?

Kiroldegia berritzeko aurreproiektua, alderdien prismatik

BEZik gabe 23.935.620 euroko aurrekontua du Gobernuak aurkeztutako egitasmoak. Bi alderdi botatuenek kiroldegia berritzea jo puntuan dutenez, etorkizuneko inbertsio potoloena izango da Arrasaten, eta alderdi guztien iritzia batu nahi izan du GOIENAk

Aurreproiektuko kiroldegiaren ikuspegi orokorra. IZASKUN LARZABAL

Xabi Gorostidi ARRASATE

Maiatzeko udal hauteskundeak ate joka daude, eta alderdi politikoak hasiak dira euren etorkizuneko proiektuak eta lantaldeak aurkezten.

Proiektuei dagokienez, ia ziurtzat jo daiteke Musakolako kiroldegiaren berritzea izango dela hurrengo urteetako inbertsio nagusietakoa. Hauteskundeetako emaitzak ikusi aurretik baieztapen arriskutsua izan daiteke, baina herriko bi alderdi botatuenek begiz jota dute kiroldegia berritzea. Hala adierazi zuten abenduko osoko bilkuran EAJk eta EH Bilduk–nork bere aldetik–, eta hauteskundeak hurbildu ahala asmo hori berretsi dute biek.

Nolakoa izango den, lanak noiz hasiko diren, zenbat iraungo duten, zenbat kostatuko diren eta nola finantzatuko diren guztiz argitu gabe dauden galderak dira, eta hauteskundeetako emaitzek asko baldintzatuko dituzte horien erantzunak.

Horren harira, Udal Gobernuak otsail bukaeran aurkeztu zuen aurreproiektua, aurrez erabiltzaileen eta kirol kluben beharrak batu ostean. Itziar Larzabal arkitektoak eta bere lantaldeak eman diote forma aurreproiektuari, bost astez egon da herritarrentzako ikusgai –lau kiroldegian eta bat Kulturaten– eta horri buruz herriko alderdiek duten iritzia jaso nahi izan du GOIENAk.

Aurreproiektua, berritasunekin

Otsailaren 28an aurkeztutako egitasmoak berrikuntza nabariak hartzen zituen barne.

Igerilekuei dagokienez, kanpoko igerilekua erabat ludikoa izatea planteatzen du aurreproiektuak; 4.500 metro koadroko azalerarekin eta 1.500 lagunentzako edukierarekin –oraingoak 950 lagunentzako edukiera du–. Handiagoa izateko eta errekari itsatsita egoteko, Gipuzkoa etorbideko 47 eta 49. atarteetan dauden etxebizitzak eraistea aurreikusten dute –Mojategirako sarbidean daudenak; elkarte gastronomikoaren alboan eta errekari itsatsita– "ordenantzatik kanpo daudelako eta "uholdeen eragina pairatzeko arriskua dutelako".

Zein iritzi duzu kiroldegia berritzeko aurreproiektuari buruz?

MARIA UBARRETXENA
EAJ

"Ezin dugu gehiago itxaron; kiroldegi berria behar dugu"

"Duela 40 urteko kiroldegi zaharkitua dauka Arrasatek; gaur egungo beharretara egokitzen ez dena, aluminosia duena, Mojategirekin integrazio falta duena, kanpoko igerilekuko berdegunean espazio falta duena, gabezia nabarmenak dituena. Arrasatearrok ezin dugu gehiago itxaron, kiroldegi berri baten beharra dugu. Hilabeteak daramatzagu gaia lantzen, eta kluben eta erabiltzaileen beharrak kontuan hartuz herritarrek ikusgai duten aurreproiektua diseinatu da. Proposatzen dugu herritarrekin eta kirol klub guztiekin ekimen parte hartzaile bat abiatzea irailean, ondoren azken proiektua idazteko. Hiru urteko lana izango da, proiektuari gogoz eta arduraz heltzen badiogu. Ekiteko garaia dela iritsi dela uste dugu".

ENEKO BARBERENA
EH BILDU

"Aurreproiektu honek hutsune asko ditu"

"Musakolako kiroldegi berria gure lehentasunetako bat da hurrengo agintaldirako. Baina aurreproiektu honek hutsune asko ditu: bizkarra ematen dio iaz onartutako Plan Estrategikoari; deszentralizazioaren demanda ahazten du; genero ikuspegirik ez dauka; finantzazio eta bideragarritasun planik ere ez. Eta larria da, Udalaren urte oso bateko aurrekontua motz utziko lukeen proiektua delako. Hainbat profesionalekin kontrastatu dugu eta mantentze arazo itzelak aurreikusten dizkiote. Oinarrizko espazio askori ere eskas irizten diote; kanpoko igerilekuei, tartean. Laburbilduz, ikuspegi estrategiko eta sozialik gabe egin dela, herriko beste kirol instalazio guztiak hipotekatzeko arriskuarekin. Hauteskundeei begira?".

OSCAR GARCIA
PSE-EE

"Kiroldegiaren exekuzioa estrategikoa da guretzat"

"Hurrengo agintaldian exekutatu beharreko proiektua dela uste dugu, baina gauzak lasaitasunez egiteak ez digu kalterik egingo. Abian dago aurreproiektu bat eta ondo deritzogu tresna hori edukitzeari; ezinbestekoa baita dirulaguntzak lortzeko, eta horren garestia den obra batean horien beharra izango dugu. Baina etxeak ez dira teilatutik hasi behar, eta lehen pausoa eragileekin hitz egitea izan behar da; euren beharrak aseko dituen proiektua elkarlanean lantzeko. Bigarrena alderdi guztien iritziak jakitea litzateke. Hurrengo lau urteak oso garrantzitsuak izango dira, eta sozialistak, beti bezala, hor egongo gara lanean. Aurreratu dezakegu kiroldegiaren exekuzioa programan daramagula, proiektu estrategiko bat delako guretzat".

IGOR URIZAR
BALEIKE

"Zoramen hutsa da; kostua 40 milioira hel daiteke"

"Kiroldegiak berritzea behar du; dituen defizitak konponketa serioa eskatzen dute. Baina aurkeztutako aurreproiektuak proposatzen duena zoramen hutsa da, eta hau burutzeak ekarriko lituzkeen kostu ekonomiko eta sozialak onartezinak dira. Alde batetik, ez ditu kostu ekonomiko errealak azaltzen; 24 milioi horiek lasai asko igo daitezke 40 milioira, eta Gobernuak ez du argitu nondik aterako duen kopuru hori. Bestalde, San Isidroko auzokideekin ez da deus hitz egin eta aurreproiektu honek zuzenean eragiten die. Kiroldegian konponketa sakonen alde gauden arren, arrasatearrek lehentasunezko beste behar batzuk dituzte, dirutza hori guztiori aurreproiektu erraldoi horretan xahutu beharrean".

JUAN LUIS MERINO
IRABAZI

"Hauteskundeei begira egindako proiektua da"

"Lehenik eta behin, ez gaude batere ados aurreproiektua egiteko Udal Gobernuak martxan jarri duen prozedurarekin. Era berean, zorakeria deritzogu bertan estimatzen diren 24.000.000 euroko kostua izateari, eta, gure iritziz, hauteskundeei begira egindako proiektu bat da.

Ezinbestekotzat jotzen dugu herritarrekin hausnarketa bat egitea, kirol aktibitate guztia Musakolako kiroldegiaren baitan zentralizatu nahi duten edo ez jakiteko. Baliteke herritarrek instalazioa atomizatu nahi izatea, eta kokaleku berrien beharra edukitzea. Baina, horretarako, eztabaidatzeko borondatea behar da, eta, hain zuzen ere, EAJren eta PSE-EEren Gobernuak ez dauka hain beharrezkoa den borondate hori".

Barruko igerilekuak, aldiz, hiru gune izango ditu: 25x25 metroko igerileku bat –10 kalerekin–, spa-gune bat askotariko txorrotekin eta igerileku txiki bat. Barrukoa eta kanpokoa aldi berean erabili ahal izatea da beste berritasun bat, oraingo ponpak ez baitu biak aldi berean erabiltzeko gaitasunik.

Beste berrikuntza bat erabilera askotariko bigarren kantxa da. Saskibaloirako, eskubaloirako edo areto futbolerako erabiltzen den kantxa bat dago orain, eta etorkizunekoak bi izatea planteatzen du aurreproiektuak. Bi kantxak behe solairuan joango dira eta harmailak, aldiz, lehen solairuan. Solairu horretan, 445 metro koadroko kafetegi bat kokatu du Larzabal buru duen taldeak.

Sarrera bakarra

Aurreproiektuko diseinuak sarrera bakarra proposatzen du instalazio guztietarako. Une honetan, Mojategiko futbol edo errugbi zelaietara sartzeko, ez dago zertan kiroldegiko sarreratik pasatu. Hori saihesteko, 600 metro koadroko *hall* bat proposatzen du Larzabalek. "Kale itxura izango luke, eta asmoa da topaketa espazio bat izatea", azaldu zuen aurkezpen egunean. Sarrera berria ez da oraingoaren leku berean planteatzen, aparkalekutik gertutxoago baizik. Horrez gain, ikusleak eta kirolariak bereizteko sarrerak ditu, eta "sarreren eta irteeren kontrolak hobetzeko" balioko duela adierazi zuten aurkezpenean.

Sabai berdeak eta erabilgarriak

Sabaiak gune berde eta erabilgarri bezala proposatzen dituzte. Kafetegi gaineko sabaia, adibidez, ur jolasetarako eta eguzkia hartzeko bideratzen dute. Kantxetakoa, aire libreko aktibitateak egiteko –yoga, edo k-strecht– litzateke eta tenis eta padel kantxen sabaia, aldiz, energia berriztagarrien inguruko ibilbide didaktikoak egiteko. "Gune berdeak eraikinaren isolamendu termikorako lagungarri dira, eta hau ingurumenarekin integratzeko", azaldu zuen Larzabalek. "Zero balantze energetikoa" lortzea izan da diseinuaren beste helburu bat, eta, horretarako, eguzki plakak eta argi naturala baliatzeko *solar tube* sistemak ditu, besteak beste.

Gipuzkoako zaharrena

Musakolako kiroldegiak 42 urte beteko ditu aurten, eta, une honetan, Gipuzkoako zaharrena da. Altzakoa zaharragoa zen, baina jada eraitsita dago; beraz, Arrasatekoa da lehena zaharrenen zerrenda horretan. Adina albo batera utzita, aluminosi arazoak ditu, eta, aurreproiektuaren aurkezpenean alkateak esandakoaren arabera, agintaldi honetan "ia milioi bat euro" bideratu dituzte arazo hori estaltzera.

Lanak hasi arte, hiru urte

Tamaina honetako proiektuek ibilbide burokratiko luzea izaten dute, eta aurkezpen egunean hori nabarmendu nahi izan zuen alkateak: "Azkar eginda ere, hiru arte pasako dira lanak hasten direnera arte".

Hauek dira aurretik dauden faseak: prozesu parte hartzailea egin, proiektua idazteko lehiaketa publikoa deitu, proiektu horri ekarpenak egiteko tartea ireki, proiektu finala idatzi, lanen exekuzioa esleitzeko lehiaketa egin eta, azkenik, lanak hasi.

Kostua eta finantziazioa

23,935.620 euroko aurrekontua du –BEZik gabe– Izaskun Larzabal buru duen arkitekto taldeak egin duen aurreproiektuak: 23.662.620 eraikuntza lanetarako eta 273.000 euro eraispenak egiteko.

Gobernutik ez dute argitu nola finantzatuko luketen, eta "zorpetu edo ez aztertzeko" plan bat egitea da euren asmoa. Tarifak eta kuotak igo edo ez eta lanak faseka edo aldi bakarrean egitea aurrerago definituko litzatekeela esan zuten.

Kiroldegi berria, guneka eta solairuka

1. SOLAIRUA
- **Gune amankomuna** Korridore banatzailea, aldagelak, biltegiak...
- **Askotariko pistak** Fitnessa, muskulazioa, spinninga, kirol aktiboak, kirol lasaiak, arte martzialak, kirol kluben gimnasioa, eskalada eremua –hiru pisuko altuerarekin–.
- **Aparkalekua** Langileendako.
- **Instalazio mekanikoak** Igerilekuena, nagusiki.

BEHE SOLAIRUA
- **Gune amankomuna** Ataria, kontrola, administrazioa...
- **Gune hezea** Barruko igerilekuak, saunak, aldagelak...
- **Askotariko pistak** Bi kantxa saskibaloirako, eskubaloirako...
- **Tenis eta padel pistak** Bina pista.
- **Antoña** Bi pilotaleku, hiru squash pista eta soinketa gela bat.

1. SOLAIRUA
- **Gune amankomuna** Ataria, komunikazio nukleoak, komunak...
- **Gune hezea** Igerilekuko harmailak.
- **Askotariko pistak** Bi kantxetako harmailak.
- **Kafetegia** 445 metro karratukoa.
- **Antoña** Saskibaloi pista.

2, 3 ETA 4. SOLAIRUAK
- Administrazioa, komunak eta komunikazio nukleoak.

KANPOKO IGERILEKUA
- 4.500 metro karratu eta 1.500 laguneko edukiera.

ESTALKI ERABILGARRIAK
- **Kafetegikoa** Eguzkia hartzeko gunea eta ur-jolasak.
- **Kantxetakoa** Aire zabaleko kirolak.
- **Tenis-padelekoa** Ibilbide didaktikoak.

Kanpoko igerilekuak, erabilpen ludikorako bideratuta. IZASKUN LARZABAL

Gimnasioak -1 solairuan kokatzen dira, baina argi naturala sartzeko aukerarekin. I.L.

600 metroko *hall*-a, bereizitako sarrerekin. IZASKUN LARZABAL

445 metroko kafetegia kanpoko igerilekuei begira kokatu dute. IZASKUN LARZABAL

ART taldeko kideek asteburuan Gasteizen jokatutako partiduan. LARTAUN ITURBE

Mailari eustea dago jokoan, baina bulegoetan

Gasteizen jokatutako ligako azken partidua galdu eta Getxo B-k inork espero ez zuen garaipena eskuratu eta gero, orain momentuan, Arrasate Rugby Taldeak maila galduko luke. Zuri-moreek, baina, errekurtsoa jarri dute Federazioan

Xabier Urzelai ARRASATE

"Domeka beltza izan da honako hau Arrasate Rugby Taldeko seniorrentzat, aurreikuspen negatiboenak bete baitira", adierazi dute klubeko ordezkariek, Gaztediren kontra asteburuan ligako azken partidua galdu eta gero (25-5). Porrot horrek ez zuen inor ezustean harrapatu; zuri-moreek txukun jardun zuten, gasteiztarren kontra, baina Gaztedi ligako talde onenetako bat da. Hala, Arrasatekoen helburua liga azken aurreko postuan amaitzea zen, eta kontua da atzean zegoen Getxo B-k aurre hartu diela, talde horrek bai lortu duelako inork aurreikusten ez zuen garaipena.

Azkena zuzenean jaitsiko da

Azken aurreko postuan sailkatzeak promozio fasea jokatzeko aukera ematen du, eta hortxe zuten ARTkoek esperantza, azken sailkatua zuzenean jaitsiko da-eta behera. Eta, asteburuko emaitzaren ondoren, Arrasate da azken postu horretan dagoen taldea, Getxoko bigarren taldeak aurre hartu die eta; talde horrek sorpresa eman du Faduran, eta sekulako errepasoa eman dio Atletiko San Sebastianeko eta Hernaniko jokalariekin osatu duten taldeari (51-10). Hala, inork ez zuen halakorik espero, baina aurtengo ligan ezusteko bat baino gehiago izan da. Eta, garaipen horri esker, azken momentuan talde arrasatearra aurreratu dute bizkaitarrek.

Behin-behineko sailkapena?

Gauzak horrela, azken postuan amaitu du liga txapelketa Kanpanzar Arrasatek –21 punturekin–, 24 punturekin amaitu duen BRT Menditarraken atzetik. ARTren errekurtsoak aurrera egingo balu –azalpena taulan–, baina, zuri-moreek garaipen bat gehiago izango lukete, eta horrek erabat aldatuko luke egungo egoera, sailkapena irauli egingo litzateke-eta atzealdeko postu horietan.

Errekurtsoa jarri du ARTk

Duela hamabost egun Bera Bera B-ren aurka jokatutako partiduaren harira, helegitea aurkeztu du Arrasate Rugby Taldeak. Donostiarrek Ohorezko B mailako bi jokalari zelairatu izana salatu du klub zuri-moreak: jokalarietako batek talde nagusiarekin 18 partidu jokatu ditu eta besteak, zazpi. Arautegiak dio talde nagusiarekin sei partidu baino gehiago jokatzen dituzten jokalariak ezin direla bigarren taldearekin lehiatu.

Hala, ARTren etorkizuna Federazioaren eskuetan dago; hortaz, oraindik mailari euts diezaiokete.



FACEBOOK

Brasilgo jiu jitsuko txapeldun

Joan den astean egin zuten, Langraiz Okan (Araba), Brasilgo jiu jitsuko txapelketa, eta 82 urtez azpikoen kategorian Julen Barrutia arrasatearrak urrezko domina irabazi zuen –maila absolutuan bigarren izan zen–. "Coliseum gimnasioko bost taldekide egon ginen txapelketan eta gustura bueltatu ginen egindako lanarekin. Brasilgo jiu jitsu borroka arteak judoarekin antzekotasuna du", adierazi du arrasatearrak.

Never Surrender bueltan, Arrasateko gaztetxean

Punk-rock gau zoro batez gozatu ahal izango da bihar, zapatua, 22:30ean, Never Surrender taldearen eta Batec talde katalanaren eskutik. Hain zuzen, 21. Korrikaren alde eskainiko duten itzulerako bigarren kontzertua izango da

Aitor Agiriano ARRASATE

Azken bost urteetan *geldi* egon diren arren, bueltan da berriz, etxean, Arrasateko Never Surrender taldea.

Bi kontzertu eskaintzeko bueltatu dira: "Barruko harra gero eta handiagoa zen, gure kantuak berriz oholtza gainean jo, agertoki gaineko sentipenak bizi eta lagun zaharrekin gozatzeko gogoz geunden", dio taldeko kide Asier Uribeetxebarriak.

Izan ere, orain dela bi aste egin zuten lehenengo kontzertua, Tafallan: "Itzela izan zen harrera; aurpegi ezagun pila bat hurbildu zen emanaldira eta gau borobila igaro genuen".

Never Surrender taldea, Tafallako kontzertuan. POLI BENGOA

Bihar, zapatua, eskainiko dute bigarren emanaldia, 22:30ean, euren *etxe* den Arrasateko gaztetxean: "Berezia izango da bihar emango dugun kontzertua. Oso gogotsu gaude, betiko jarraitzaile-lagunak ikusi eta daukagun sentimendu hau eurekin partekatu eta elkarrekin gozatu ahal izango dugulako. Bestetik, urduritasun puntu bat ere badugu, baina jotzeko gogoz gaude. Sentsazio polita dugu taldeko lau kideok berriz agertokia partekatuko dugulako".

21:30ean, ateen irekiera

Horrenbestez, hankaz gora jarriko dute Arrasateko gaztetxea taldekideek, eta taula gainean Batec talde katalana ikusteko aukera ere izango dute ikusleek bihar.

Hori bai, gose daude jarraitzaileak, eta adi ibili beharko dute kontzertuaz gozatu nahi dutenek; izan ere, unean bertan gaztetxeko atean eskuratu ahal izango dira kontzerturako sarrerak, 3 euroren truke. Gainera, esan beharra dago pertsona bakoitzak sarrera bakarra erosi ahal izango duela.

Ane Zuazubiskarrek irabazi du VII. Osin Berde Saria

Osinberde kultur elkartean izandako bertso saioan txapeldun izan da bertsolari arrasatearra; bai epaileen puntuazioagatik, baita entzuleen botoengatik: "Ezustean hartu nuen, ez nuen espero". Apirilaren 27an izango den finalerako txartela lortu du Zuazubiskarrek: "Mikrorik gabeko plaza berezia izango da, eta gozatzera joango naiz".

Arrasate Musikalen kontzertua gaur, Kulturaten

Ikasturteko bigarren hiruhilabeteko kontzertua eskainiko dute, 18:30ean, Arrasate Musikaleko ikasleek. Suzuki metodoa lantzen ari den ikasle taldeak, tronpeta, oboe, eta abarrekin bakarlari arituko direnek eta talde mistoek eskainiko dizkiete pieza herrikoi, tradizional eta gaur egungoak bertara gerturatzen diren entzuleei.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturrietz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Duela lau urte frontoian egindako festaren irudi bat. IMANOL SORIANO

Endika Agirre eta Ander Lopez –ezkerreko biak–. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Pilota partidua ere, festa barruan

Herriko lehen txapelketako finala izan behar zena, lagunartekoa izango da azkenean. Beñat Arregi eta Oihan Bideburu min hartuta daude, eta Ander Lopez eta Endika Agirre dira, hortaz, txapeldun. Mikel Balanzategi eta Julen Olaizola izango dituzte aurkari.

'Klika' egin eta ibiltari bihurtu dute Korrika jaia

Goizaldera iritsiko da Korrika Aramaiora, baina, behar den bezalako harrera egiteko, beroketa erara, hainbat ekintza izango dira herrian gaurtik aurrera. Umeen txanda izango da aurrena eta ginkana eta jaia egingo dituzte bihar, hainbat txokotan zehar

Julen Iriondo ARAMAIO

Korrika badator. Bihartik domekarako goizaldean, 02:00etan sartuko da Oletatik, eta ordu erdi ingurura iritsiko da San Kristobalgo txabola ingurura; 02:50ean du ordua Gureian, eta 03:00ak alderako ailegatuko da Ibarrara; 03:25ean zeharkatuko du Araba eta Gipuzkoa arteko muga, Arrasaterantz.

Bihar, hainbat ekintza izango dira giroa berotzeko. 11:00etan plazan hasita, ginkana herrikoia egingo da, ume eta nagusientzat. Arratsalderako, berriz, Korrika jaialdia antolatu dute: 18:00etan hasiko da Ibargoiako plazatxoan, eta trikitilariak, txalaparta, txistulariak, bertsolariak, Alaiak abesbatza eta dantzariak izango dira han; 18:30ean, plazan, Papargorri eta dantzariak; 19:00etan, eliza aurrean, trikitilariak eta Bizente Goikoetxea abesbatza; eta 19:30ean, parkean, Manex Arriolabengoa eta Maria Izaga kantuan.

21:00etan afaria izango da eskolan, norberak etxetik eramandakoarekin; eta 22:30ean, frontoian, pilota, herriko bertsolariek lagunduta.

Umeak ere protagonista

Zapatuan eta domeka goizaldean izango da hori guztia. Aurretik, baina, eskolako umeak izango dira herria girotuko dutenak, gaur bertan: 11:00etan Kantuz Bizi tailerra egingo dute, Alaiak abesbatzako eta eguneko zentroko kideekin batera –betiko kantuak gogora ekarriko dituzte–; 15:00etan, Korrika Txikia, Iturri Zuri kalean hasi eta eskolan bukatuz; eta amaitzeko, berriz, txokolate-jana egingo dute han bertan.

Gasteizko azken jaian ere bai

Bestalde, Korrika amaierako egitarauaren barruan, Gasteizen, Paula Amilburu eta Andere Arriolabengoa ariko dira bertsotan, Aroa Arrizubieta eta Oihane Perearekin batera. 15:30ean izango da, Aihotz –Matxete– plazan.

Lekukoa, kilometroka

- **2.416** Oletako auzoa.
- **2.417** Behi Alde.
- **2.418/9** Korrikalariak.
- **2.420** Bertso eskola.
- **2.421** Pilota Elkartea / Marixeka / Murumendi / Leixar Ondo.
- **2.422** Trikitixa taldea / Papargorri / Kurtzetagain.
- **2.423** Lagun Artean / Itur Zuri.
- **2.424** Uribarriko auzoa.
- **2.425** Txirritola.
- **2.426** Eskola / Guraso Elkartea.
- **2.427** Udala / ATGA.
- **2.428** Eki / Arbel / Paska / Dukiena.
- **2.429** Herriko kirolariak.

Lehen Gazte Egunaren emaitza ikusita, jarraitzeko asmotan

Jende kopuru polita ibili zen antolatutako ekitaldietan, eta artistak eurak ere oso gustura geratu ziren jaiarekin

J.I. ARAMAIO

Poteo musikatuarekin ekin zioten egunari, eta bazkarian 85 lagun elkartu ziren: "Gehienak herrikoak, baina Otxandiotik eta Arrasatetik etorritakoak ere baziren, eta iluntzean, eta gauean, bereziki, jende askoz gehiago etorri zen", zioen Gazte Asanbladako Unai Etxenausiak.

Bertso Pikie egin zuten bazkalostean, Aramaioko Aitor Ugarte eta Peru Abarrategi, Oñatiko Aitor Tatiegi eta Abadiñoko Txaber Altube lagun: "Jende guztiari ez zaizkio bertsoak gustatzen, eta, horregatik, ondo neurtu genituen saioaren iraupena eta baita bertsotan egiteko aukeratutako gaiak ere". Saio umoretsua izan zen.

"Gaueko kontzertuetan ikaragarria izan zen zenbat jende batu zen, eta musikariek ere –Wood Strings eta Unidad Alavesa taldekoak– oso gustura izan zirela adierazi ziguten". Jaia errepikatzeko baldintza guztiak betetzen dira, beraz.

Aretxabaletako Wood Strings taldekoak oholtzan. IMANOL SORIANO

Auzo-konpost gune berria, maiatzaren 2tik

Organikoa bereiziz hondakinen kudeaketa egokiagoa egitera bidean, herriko beste 40 familiak izango dute laster aukera zentzu horretan euren ekarpena egiteko. Azpiegitura prest dago, eta informazio bilerak egiten ari da Udala interesdunekin

Auzo-konpost gune berria prest, Aita Gabirel Jauregi kale ertzean. JULEN IRIONDO



MIKEL ARANTZABAL
INTERESDUNA

"Papera, beira eta ontziak birziklatzen ditugu, eta organikorako pausoa emango dugu orain etxean. Nahikoa oker egiten diogu naturari".



JONE MARTINEZ
INTERESDUNA

"Ostetako gunea jarri zenean itxarote-zerrendan geratu ginen, eta orain sartuko gara. Egin beharreko gauza da, ingurumena zaintzeko".

Julen Iriondo ARAMAIO

Aita Gabirel Jauregi kale ertzean dago kokatuta azpiegitura berria, eta Udalaren asmoa da udaberriko oporraldiaren ostean jartzea martxan. Ostetako gunean bezala, 40 familiak izango dute aukera auzo-konpostean parte hartzeko. Lehenengo aldi hartan lekuak bete eta itxarote-zerrendan geratu zirenek izango dute lehentasuna, eta gainerako lekuak eskatu ahala joango dira betetzen –etxearekiko kokapenagatik guneak trukatzeko aukera ere egongo da–. Interesa dutenek datorren asteko bileran eman dezakete izena, edo ondoko helbidean, bestela: *ingurumena@gorbeialdea.eus*.

Zenbait datu

Hondakinen arloan, abiapuntua edo aurrena egiten saiatu beharrekoa prebentzioa da, ahalik eta hondakin gutxien sortzen ahalegintzea, alegia –2017an, Gorbeialdean, 524,05 kilo hondakin sortu ziren, batez beste, pertsonako–. Behin hondakina sortuta, berriz, kontua da nola kudeatzen den, nora doan eta nola; eta Gorbeialdean %35era ez da iristen gaika jasotzen dena –Arabako datua are kaxkarragoa da–; beste era batera esanda, %65etik gora errefusaren edukiontzira doa (ikus eskuineko zerrenda), eta, ondorioz, zabortegira.

Baina ze gai egon ohi dira errefus horretan? Bada, Gorbeialdeko Ingurumen teknikari Jon Toñak emandako datuen arabera, organikoa da errefusaren ia erdia. Beraz, organikoa bereizi eta harekin aparteko kudeaketa eginez gero, nabarmen hobetzen da panorama.

Horrela, Aramaion hondakinen gaian hartutako neurriekin, herrian sortutako errefus kopuruak %8 egin du behera bi urtean; aipatutako neurriak organikoaren kudeaketarekin lotutakoak izan dira, gehienbat: etxeko konpost kanpaina eta Ostetako azpiegitura, bereziki.

Udalaren asmoa da, auzo-konposterako gune berria jarrita bide beretik jarraitzea, gero eta errefus gutxiago sortuta.

Eguazten arratsaldean egindako informazio bilera. J.I.

Hurrengo batzarra, martitzenean

Ingurumen teknikariak gidatuta, eguaztenean egin zuten auzo-konpostari buruzko lehen batzarra. Etxean sortutako organikoa konpostatzera eramanez ingurumenari lagundu nahi diotenek martitzenean dute beste aukera bat, 18:00etan, udaletxean.

Hondakinak Gorbeialdean

2017an egindako neurketan, ondorengoa izan zen jasotako hondakinen sailkapena, pisuaren araberaxxxxx.

- **%65,57** Errefusa.
- **%8,47** Inausketa.
- **%6,15** Beira.
- **%6,10** Obretako hondakinak.
- **%5,08** Papera.
- **%3,98** Ontzi arinak.
- **%3,49** Traste handiak.
- **%0,66** Arropa.
- **%0,49** Beste batzuk.

ITURRIA: GORBEIALDEKO KUADRILLA.

NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

Egunak joan, egunak etorri

Zein erraz bihur daitekeen egun paregabe bat amesgaizto, eta komeriak, gero, eguna begi xamurrez ikusi ahal izateko. Beste batzuetan, aldiz, zein erraza den egunari irribarre egitea; hobe esanda, zein zaila den irribarre ez egitea. Izugarri desberdinak dira egunak, nahiz eta jarraian izan; baina, zerk bultzatzen gaitu umorea horrela aldatzera? Lanak? Bikotekideak? Lagunek? Familiak? Diruak? Denborak? Osasunak? Hauen faltak? Ziurrenik, aurreko faktore guztien nahaste korapilatsu baten baitan dago erantzuna. Dena den, hutsala da oso, benetan garrantzitsu dena bizipoza delako, energia, bizi gosea. Zure abesti gustukoena entzutea; eguzkipean belarretan botatako lo kuluxka; lagunekin eginiko solasaldia; bikotekidearen kilimak gerritik behera doazela; garagardo hotz bat lanetik irtetean; familiakoekin bazkaria… Egiaz, zein gutxi behar dugun, eta zenbat buruhauste sortzen dizkigun behar ez duguna lortzearen irrikak. Egunak joan, egunak etorri, merezi izan al du joan denak? Eta, are garrantzitsuago: mereziko du datorrenak?

Astelehenera arte dago hautesle errolda begiratzeko

Maiatzaren 26ko hauteskundeetara begira, astelehena da hautesle errolda kontsultatu ahal izateko azken eguna. Udaletxean egin daiteke kontsulta, bulegoen ordutegian. Erreklamazioak egiteko epea ere astelehenarekin amaituko da. Erroldako datuak behar bezala egotea ezinbestekoa da hauteskundeetan botoa eman ahal izateko.

Lekukoa iritsi bitartean ekitaldi mordoa herrian

Korrika badatorrela girotzeko dantzan egingo dute herritarrek gaur, plazan, eta ondoren, bertso afaria izango da Unai Iturriaga eta Oihana Iguaranekin; bihar, murala margotuko dute, eskulanak egin, paella jan eta herriko taldeek emanaldiak eskaini

Mirari Altube ARETXABALETA

Kantuan hasi dituzte motorrak berotzeko ekitaldiak, eguaztenean, hain zuzen, Kantu Poteo taldekoen eskutik. Eta gaur, egubakoitza, dantzan eta kantuan jarraituko dute Korrikaren etorrera girotzeko. Dantza plaza ekitaldira dei egin diete herritarrei (18:15) Korrika batzordeko kideek, eta gero, bertso afaria egingo dute Uratz Alde elkartean, Unai Iturriagak eta Oihana Iguaranek girotuta mahaiaren buelta (21:00).

Kantu Poteo taldekoak kantuan, eguaztenean, kaleak girotzen. MIRARI ALTUBE

Herriko taldeak Pagaldaixenean

Jai giroak bihar, zapatua, jarraituko du. Santa Kurtz kaleko horma batean murala margotuaz ekingo diote egunari (11:00), eta gaztetxoen txokoa zabalduko dute gero (12:00), eskulanak eta marrazkiak egin ditzaten, eta aurpegiak margotu. Herriko hainbat artisauk ere bat egin dute egunarekin, eta postuak jarriko dituzte Durana kalean. Bien bitartean, Pagaldaixenean, paella dastatuko dute gerturatzen direnek eta taberna ere izango da.

Iluntzean (19:00), kontzertuen txanda etorriko da, eta herriko hiru talde elkartuko dira Pagaldaixenean: Wood Strings, Jasan eta Txerrikumeak.

Emakumeek, bi kilometro

Lekukoa 04:27an sartuko da Aretxabaletan. Mugarriko biribilgunetik Ederlan lantegi aurreko bidegurutzeraino dauden bi kilometroetan, hamalau elkarte eta enpresatako ordezkariek eroango dute eskuz esku. Hona hemen taldeak –errenkadan–: EH Bildu, EAJ, Aretxarte, Udala, Emakumeak –bi tarte–, Loramendi, Kurtzebarri Eskola, Arizmendi Ikastola, Pausoka Haur Eskola, UDA, Aretxabaleta Lanbide Eskola, Arteman, Copreci eta Assembly.

Herriko feministek, Aretxabaletako emakumeen izenean, bi kilometro erosi dituzte, eta kuartelean jaso eta Amaia Berri Iturgintzaraino eroango dute. "Oraindik ere dirua jasotzen gabiltza, eta gainerako hori borondatezko ekarpen moduan bideratuko diogu Korrikari", adierazi dute. Lekukoa eroango dute, besteak beste, iaz sortu zen Pikarraituz taldeko hainbat ordezkarik.

Udalaren izenean Unai Elkoro alkateak jasoko du eta Loramendi elkartearen izenean, ostera, Auzoko egitasmoko kideek.

Donapaleu inguruan (Nafarroa Beherea) korrika egin zuen kuadrilla. I. ZANGITU

Korrikaren atzetik han eta hemen

Hainbat kuadrilla eta familia izan ziren Nafarroan eta Iparraldean joan den aste bukaeran lekukoaren atzetik. Eta aste barruan Araba aldera ere joan dira batzuk; Arizmendi Ikastolako kideak, esaterako. Ezin hobeto jardun dute guztiek tipi-tapa.

Iñaki Uribeetxebarria, Jesus Mari Herrasti eta Joselu Gonzalez. M.A.

Sukaldariak gertu paella egiteko

Eskarmentu handiko herriko hiru sukaldarik paella gertatuko dute bihar eguerdian, Pagaldaixenean. Horretarako, 12 kilo arroz erabiliko dituzte, eta oilaskoa ere botako diote, besteak beste. 200 lagun baino gehiagorendako egongo dela iragarri dute.

Aste Santurako gertu daude parrokiako kideak

Gaur, egubakoitza, hasi eta Pazko-domekara bitartean otoitzaldi eta elizkizun mordoa iragarri dituzte

M.A. ARETXABALETA

Andre Mariaren Zeruratze parrokiako kideek garizumako otoitzaldiarekin emango diote hasiera Aste Santuari gaur, egubakoitza (19:00), eta apirilaren 21ean bukatu Pazkoarekin. Bihar, Erramu-zapatuko elizkizuna izango da (19:00) eta etzi, Erramu-domekako meza nagusia (11:00). Astelehenean, ostera, elkarteko penitentzia dago (19:00).

Eguenean, apirilaren 18an, bete-betean sartuko dira Aste Santuan, Jaunaren azken afariaren elizkizunarekin (19:00). Ostiral Santuan, ostera, hiru ekitaldi izango dira: gorespenak (09:00), gurutze-bidea Izurieta auzora parrokiatik abiatuta (11:00) eta Jaunaren nekaldiko elizkizuna (19:00).

Zapatuan, apirilaren 20an, ere izango dituzte gorespenak (09:00), eta gauean, Pazko Gaubeila ospatuko dute (21:00). Aste Santuari bukaera emango diote Pazko-domekako meza nagusiarekin (11:00).

'Txirrindularitza eta potentziometroa' hitzaldia martitzenean

Aitor Alberdi prestatzaile fisikoa potentziometroaren gaineko argibideak ematera etorriko da martitzenean, hilaren 16an, (19:00) Ibarra kiroldegiak gonbidatuta –hilaren 9an zen egitekoa–. Edozein mailatan diharduten txirrindulariei gomendatu diete, eta kiroldegian da. Izena emateko epea zabalik dago: 943 03 98 42.

Argazkizkiak lehiaketa deitu du Loramendik

Hautatu duten gaia elkarlana da eta horrekin zerikusia duten argazkiak eta testuak eskatu dituzte, edozein formatutakoak –bertsoa, poesia, narrazioa…–; lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 3a da, egubakoitza

Mirari Altube ARETXABALETA

Seigarrenez deitu du Loramendi elkarteak –Udalaren babesarekin– Argazkizkiak lehiaketa, eta aretxabaletarren lanekin batera gainerakoenak ere onartuko dituzte. Azken bi urteotan ez da egin –argazkian, azken sarituak: Martin Antxia irabazlea, Aiora Padilla eta Markel Bengoa–, eta berreskuratu egin gura izan dute helduendako lehiaketa hori. "Argazkigintza ikastaroak antolatu izan ditugu, eta lehiaketa horri lotutako beste ekarpen bat izan daitekeela uste dugu", adierazi du Loramendiko teknikari Ane Berazak. Eta argazkiek besteko garrantzia izango dute euskaraz idatzitako testuek.

Azken lehiaketan saritutakoak argazkiak esku artean dituztela. M.A.

Maiatzaren 3a azken eguna

Aurtengo gaia elkarlana da, eta hori erakutsi beharko dute argazkiek zein testuek, bata bestearen osagarri izanik. Argazkien tamaina izango da 20x30 zentimetro, eta testua DIN A-4 batean aurkeztuko da. "Edozein formatutakoa izan daiteke testu hori: bertsoa, poesia, narrazioa… Eta luzera ere librea da, norberak gura beste", argitu du Berazak.

Kartazal batean sartuta eroan beharko dira lan horiek –izenabizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa zehaztuta– Loramendi elkartera –Durana kalea 11–; posta elektronikoz ere bidal daitezke: *euskara@loramendielkartea.eus*. Azken eguna maiatzaren 3a da, egubakoitza. Edozein argibidetarako, elkartera bertara deitu daiteke: 943 77 09 70 edo 685 75 67 29.

Jasotako lanak baloratzeko, hainbat aditurekin osatuko dute epaimahaia Loramendiko kideek. Eta behin onena hautatuta, irabazleak Errigorako otarre zuria jasoko du saritzat.

Euskaraldiari jarraipena

Loramendi elkarteko kideek Euskaraldiaren bueltan lanean jarraitu gura dute, egindako lana ahaztu ez dadin eta 2020ra begirakoak gertatzen jarraitzeko. Horretarako, herritarrekin batera batzorde bat osatzea da asmoa –iaz egindako lez–.

EH Bilduko kideak, martitzenean, komentuaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

Komenturako duen proposamena aurkeztu du EH Bilduk

Elkarteendako bulegoak, musika taldeendako entsegu gelak eta Basotxoren egoitza zehaztu ditu, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

EH Bilduk uste du herriko taldeek eta elkarteek sortutako gizarte mugimendu handia dagoela Aretxabaletan, eta horiek ondo lan egiteko lekua behar dutela: "Horretarako komentuak eskaintzen digun aukera aprobetxatu behar dugu". Hala, eraikin horretarako aurreikusitako proposamena aurkeztu dute.

Estalitako plaza

Komentuak aukera asko eskaintzen dituela uste dute: "Herriaren erdian dago, 1.500 metro koadro baino gehiago ditu eta kanpoalde ederra".

Hiru solairu ditu eraikinak, eta sotoan intsonorizatutako entsegu lokalak sortzea proposatu dute. "Horrekin, kuartel zaharrean dagoen jasanezinezko egoerari irtenbidea emango genioke". Tailerrendako lekua egongo litzatekeela ere aipatu dute.

Beheko solairuan, kapera egon zen aretoa egokituko lukete hainbat erabileratarako: kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak edo ezkontza eta hileta zibilak. Era berean, beheko solairu horretan kokatuko lituzkete Basotxoren taberna, bulegoa eta bazkideentzako txokoa.

Lehenengo solairuan, elkarteendako bulegoak kokatzeko asmoa agertu dute, baita bilera gelak eta dantzarako gela bat ere. Loategian, ostera, estalitako plaza handi bat sortu gurako lukete, 1.000 metro koadrokoa: "Aretxabaletan urtetan egon den eskaera bati erantzungo genioke", eta gaineratu dute: "Ibairaino jaitsiko litzatekeen parke batekin bukatuko litzateke proiektua, pasarela barne". Proiektuaren dimentsioa jakinik, EH Bilduren asmoa da hainbat epetan banatuta aurrera eramatea: "Eta bereziki guztion artean kodiseinatuta".

ANDRA MARI
Aholkularitza
2018ko errenta kanpaina
Aholku pertsonalizatua
Etorri eta lagunduko dizugu
Andra Mari Auzunea 3 • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com

VI. Euskarazko Tesien saria, Agirreurretarentzat

JUAN MARI AGIRREURRETA FILOSOFIA IRAKASLEA

EHUk eta Euskaltzaindiaren Iker sailak antolatutako 2018 Koldo Mitxelena saria jasoko du Juan Mari Agirreurretak, Jean-Paul Sartreren filosofiaren ikerketagatik

Aitor Agiriano ARETXABALETA

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena saria sortu zuten, euskarazko ikerketa bultzatu eta sustatzeko asmoz. Bost jakintza-arlotan daude banatuta sariak: Zientzia, Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Artea eta Giza Zientziak; eta Gizarte eta Lege Zientziak, hain zuzen. Hain zuzen, Gizarte eta Lege Zientziak jakintza- alorrean eskuratu du Juan Mari Agirreurretak Euskarazko Tesien VI. Koldo Mitxelena saria, Jean-Paul Sartreren filosofiari heltzen dion ikerketagatik.

Juan Mari Agirreurreta. J. M. AGIRREURRETA

EHUk eta Euskaltzaindiaren Iker sailak bi urtean behin antolatzen dituzte sari hauek. Nola animatu zinen zure euskarazko tesia bertara aurkezten?

Doktore-tesia 2017ko irailean defenditu nuen, EHUn, Donostiako Filosofia Fakultatean. Emaitza oso ona izan nuen orduan, eta oso pozik nengoen. Gainera, Jakin argitaletxeak tesiko ikergaiari dagokion atala argitaratu zuen handik hilabete gutxira. Hau da, nik tesian euskaratu eta aztertu nuen testua bera: Jean-Paul Sartre, *Begirada* (Jakin, 2017). Hori horrela, sari horren deialdia irakurri nuenean, nire lana aurkeztera animatu nintzen.

Zer jasotzen du aurkeztu duzun tesiak?

Ikerketak Jean-Paul Sartreren filosofiari heltzen dio, zehazki bere obra nagusia den *Izatea eta Ezereza* (*L'être et le néant*, 1943) tratatu filosofikoari. Sartreren tratatuak existentzialismoaren oinarri teorikoa ezarri zuen; eta, nire ustez, Filosofian idatzi den liburu bikainenetakoa da. Ikergai gisa, ordea, obra mardul horren atal esanguratsu bat hautatu nuen, *Le Regrad;* tesirako propio eskuratu nuen, hain zuzen ere: *Begirada*.

"GARRANTZITSUA DA, EREDU AKADEMIKOAN, EUSKARA JAKINTZA ARLO GUZTIETARA ERAMATEA"

Zein izan da prozesua lana gauzatzeko?

Funtsean, tesian aztertzen dudana zera da, nola ezkontzen diren Sartreren filosofia eta filosofia horren adierazpena; alegia, nola lotzen zaion testuaren jomuga teorikoa idaztankerari. Ikerketa prozesuak hiru atal nagusi ditu: horietako lehenengoa, teorikoa, ikerketaren eremua zedarritzen duena; bigarrena, berriz, enpirikoa, diskurtso-egituraren argitan testua handik eta hemendik arakatzen duena; eta, azkenik, hirugarrena itzulpena bera izan da.

Denbora luzeko ikerketak izaten dira hauek. Zenbat denbora igaro da lanean hasi eta azken emaitza lortu duzun arte?

Tesiarekin 2012ko irailean hasi nintzen lanean eta 2017ko irailean defenditu nuen. Beraz, zehatz-mehatz, bost urte. Baina tira, filosofia eta Sartre bera irakurtzen urteak neramatzan jada.

Espero zenuen Gizarte eta Lege Zientzia jakintza-arloko Euskarazko Tesien saria jasotzea?

Egia esan, oso pozik nago. Pentsa, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak aitortu didate saria! Doktore-tesi bat egin duenak eta egiten saiatu denak ondo baino hobeto daki zer bide luzea eta neketsua den ikerketarena, zenbat buruhaste eta ahalegin dakartzan horrek. Sariak izugarri poztu nau, batez ere, bost urte luzez isilean eta bakarrik egindako lan guztia gogora ekartzen didalako eta lanean jardundako denbora horretan guztian izandako zalantza eta bakartasun horretan ez nuelako amorerik eman.

Maiatzaren 6an, Bilbon, jasoko duzu saria; diploma eta 2.000 euro gordineko zenbatekoa jasoko duzu, hain zuzen. Zer egiteko asmoa duzu eskuratutako sariarekin?

Egingo dudan lehenengo gauza, saria jasoko dudan egun horretan bertan, etxekoak bazkaltzera eraman eta gonbidatzea izango da. Ondoren, egia esan, ba, ez dakit, udan izango dugu non ospatu...

Haurrentzako eta nerabeentzako aisialdia udaberriko oporraldian

Aste Santuko oporraldia gozatzen hasteko, apirilaren 15erako, 16rako eta 17rako egitarau zabala antolatu du Gazteria Zerbitzuak

Aitor Agiriano ARETXABALETA

LH-1 eta DBH-4 arteko nerabeek oporren lehen egunetan etxetik atera eta ondo pasatzeko aukera paregabea izango dute.

Jolas-jolasien! programaren baitan, LH-1eko eta LH-2koek ludotekak dinamizatutako eskaintza izango dute herriko hainbat txokotan. Apirilaren 15ean, 16an eta 17an izango dira jolasak, eta, parte hartu ahal izateko, hilaren 13ra arte eman ahal izango da izena, Arkupe kultura etxean.

Egun beretan, LH-3koek eta LH-4koek Ibarraundiren, Txillidaren eta Oteizaren lanak ezagutzeko aukera izango dute; LH-5eko eta LH-6ko ikasleek kimika eta esperimentu tailerra edukiko dute; eta eguzki, orientazio astronomiko eta izar tailerra ere izango dute LH-4ko, LH-5eko eta LH-6ko ikasleek.

2017ko *Gaztekonkis!* GOIENA

Azkenik, *Gaztekonkis! Aitxorrotx Gazteluaren konkista*-z gozatu ahal izango dute 12-17 urtera arteko nerabeek; Erdi Aroarekin loturako erronkak gainditukо beharko dituzte.

Ekintza horiek guztiek plaza mugatuak izango dituzte.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

Uztailaren 1etik 19ra bitartean egingo dituzte, aurten, udaleku irekiak, eta jada eman daiteke izena, hilaren 17ra bitartean. Horretarako, Arkupe kultura etxean, Ibarra kiroldegian eta Gazteria Zerbitzuan, udaletxean, eskuratu daitezke bete beharreko eskuorriak.

Aurten, gainera, udalekuetan parte hartzeko adinean dauden herritarren etxeetara galdetegi bat bidali zuen, martxoan, Udalak, eta, bueltan jaso dituzten erantzunak aintzat hartuta, ordutegi berria izango dute: astelehen, martitzen, eguazten eta egubakoitzetan, goizez bakarrik arituko dira, 09:00etatik 13:00etara. Eguenetan, 09:00etatik 17:00ak bitartean egingo dituzte ekintza bereziak. Eta, bestetik, 4 urtekoek, txikienek, aurreko urteetako ordutegi bera izango dute: 10:00etatik 12:30era. 75 euroko prezioa dute.

Argazki erakusketa bat dago ikusgai Arkupen

Hilaren 29ra arte dago *Emakume aurpegia duen nikaraguar erresistentzia* argazki erakusketa Arkupe kultura etxean ikusgai.

2018ko apirilaren 18an izan ziren herritar protesta baketsuen aurrean Gobernuaren errepresioa bistaratzen du, Nikaraguako emakumeen begiradatik. Protesta horiek polizia nazionalak, talka taldeek eta Gobernuari loturiko talde paramilitarrek erreprimitu zituztela eta indarraren gehiegizko erabilera eginez ikasleen, nekazarien eta herritarren gain sarraski krudela eragin zutela jasotzen du argazki erakusketak.

Hain zuzen, zabalik izango da astelehenetik egubakoitzera, goizetan 11:00etatik 13:00ak bitartean eta arratsaldeetan 18:00etatik 20:00ak arte; larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara; eta igande eta jaiegunetan, itxita egongo da erakusketa.

Eskoriatzako EAJko zerrenda-kideak mahaiaren bueltan, batzokian. EAJ ESKORIATZA

Alderdi jeltzalea proiektu eta kide berriekin dator

Eskoriatzako alderdi jeltzalearen zerrendan emakumeen presentzia nabarmena da; lehen postuetan –lehen 8 lekuetan 5 dira emakumeak– eta hamaikakotik 7 independenteak dira. Horrekin batera, partaidetzazko programa zabala aurkeztu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako alderdi jeltzaleak aurkeztu du maiatzeko udal hauteskundeetara begirako zerrenda. Egungo alkate Joserra Zubizarreta izango da alkategaia: "Ilusioa berrituta eta herri sendo bat eraikitzen jarraitzeko proiektu berriekin, gogotsu hartu dut izendapena", adierazi du Zubizarretak. Harekin batera, zerrendan orain arte egondako hainbat kide eta berriak ere badaude: Maite Uribe, Antonio Regaño, Puri Regidor, Josu Ezkurdia, Ana De Castro, Maite Zubia, Sorkunde Pagalday, Emeterio Gallastegi, Kati Perea eta Jesus Mari Izaguirre. Ordezkoak, berriz, Pedro Mari Armendariz, Edith Altuna eta Karmelo Azkoitia dira.

Emakumeen presentzia handia

Zubizarretak azaldu duenez, egungo taldearen esperientzia zerrenda-kide berriek ekarriko dituzten ideia eta gogoen berritasunek osatuko dute. Hautagaitza berri honetan, emakumeen presentzia nabarmena da lehen postuetan –lehen 8 lekuetan 5 dira emakumeak–, eta hamaikakotik 7 independenteak dira. "Nabarmentzekoa bai, baina ez da nobedadea. Gaur egun Eskoriatzako udalbatzaren bost zinegotzi jeltzaleetatik hiru emakumeak baitira eta lau independenteak".

Partaidetzazko programa

Zerrenda aurkeztearekin batera, hauteskunde programan jasotako apustu nagusiak ere aurreratu ditu Zubizarretak, hain zuzen, "herritarren eta elkarteen proposamenetatik landutakoak". Apustuen artean, irisgarritasunaren eta mugikortasunaren alorrean, proposatzen da unibertsitatearen eta Dorleta artean errekaren gainetik joango den pasabide bat egitea, plazako zorua berritzea eta Arana kalean bidegorria egitea. Halaber, gune publikoak hobetzen jarraitzeko apustua egiten du EAJk, "herritar guztiek erabili ahal ditzaten". Hala, San Pedroko goiko parkea txukundu egingo dute, dagoeneko baduena ariketa fisikorako gunea, eta Dorletako parkea ere berrituko dute. Partxisaren parkea ere bai, eta Bidebarrietako pasealekua bide berde bilakatuko da. Elizateei dagokienez, azpiegiturak hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dute –bidea, argiztapen publikoa, Internet–, eta baserri-auzoak biziberritzekoa –auzo-lokalak, aisialdirako guneak, nekazaritza azokak–.

Kirol arloan apustu sendoa

Kirolerako udal instalazioak hobetuz eta kirol taldeei babesa emanez, planteatzen da kiroldegi kanpoan igerileku bat egitea, Eskoriatzako eskaera historikoetako bat dena, eta pilotalekua askotariko erabileretarako egokitzeko proiektua abiaraziko dute, berokuntza sistemarekin. Era honetara, herri bazkari eta ekitaldietarako erabili ahal izango da. Alkategaiaren ustez, "kirola gazteentzako oso alternatiba ona da eta eurekin batera landuko dira aisialdirako ekimen berriak". Azkenik, adin guztientzako kirol, aisialdi eta osasunerako orientazio programa berreskuratu nahi dutela aurreratu du alkategaiak, adin guztietarako.

Ekonomiaren garapen jasangarriari dagokionez, bertako merkatariei eta enpresei babes osoa ematen jarraitu nahi du. Zubizarretak gogorarazi du agintaldi honetan komertzio berriak sortu direla herrian, "bertako ekintzaileen eskutik, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen berri bat barne".

Errekaren garbiketarako ekintza-plan berria ere garatuko dute, Ura agentziarekin lankidetzan, eta jasangarritasun energetikorako lege berria eta erosketa publiko berdea ezarriko dituzte.

Herritarren partaidetzan, eskoriatzar guztien ardurei konponbidea aurkitzeko eztabaida bultzatu nahi dute. Hala, "txakurjabeentzako ordenantza berria bideratuko da, herritarrek osatutako lantalde batek gidatuta".

Kultura eta euskara alorrei dagokienez, herriko hezkuntza zentroekin eta kultura taldeekin harremanak estutzen jarraituko du, eta, azkenik, gizarte zerbitzuetan, inklusioa, berdintasuna eta bizikidetza ardatz, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana sendotzen jarraituko dute.

MANUEL MUÑOZ KIROLDEGI KANPOAN IGERILEKU BAT EGITEA PROPOSATZEN DU ALDERDI JELTZALEAK

Herriko emakume erreferenteekin solasaldia

Lau emakumeren bisita izan dute Herri Eskolakoek, eta euren esperientziak haurrekin partekatu dituzte

I.B ESKORIATZA

Herriko emakume erreferenteen bisita izan dute Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasleek. Pasa den astean, 5. eta 6. mailetako haurrekin Olatz Pagalday aktorea izan zen –argazkian, haurrekin batera–. Bere bizipenen inguruan hitz egin zuten, aktore moduan egindako lanen inguruan… eta ikasleek galderak egiteko aukera ere izan zuten. Apirilaren 2an, Argitxu Zubillaga Atama Kenpo taldeko borrokalaria 3. eta 4. mailetakoekin izan zen, Espainiako kenpo txapelketan 3. postuan geratu zenekoa azaltzen, besteak beste. Apirilaren 3an, Naiara Bereciartua Luis Ezeizako irakasle eta Euskal Selekzioko jokalariak kirolean izandako esperientzia kontatu zien. Azkenik, Aitziber Gorosabel eskolako ama ohia eta emakume baserritarra izan zen, 1. eta 2. mailetakoekin. Azken horrek gazta nola egiten den erakutsi zien ikasleei, eta praktikan ere jarri zuten.

Pagalday, herri eskolan. LUIS EZEIZA

Tortolisen egin behar da udalekuetarako izen-ematea

Astelehena ezkero eman daiteke izena uztailaren 4tik 23ra izango diren 2019ko udaleku irekietarako. Horretarako, Tortolis ludotekan jaso beharko da izen-emate orria; izan ere, aurten, ez dituzte ikastetxeetan banatuko. Berrikuntza moduan, zaintza zerbitzua eskainiko dute Txirikila Aisialdi Elkarteko kideek.

Iaz, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketako sari banaketan, biloba bere amonaren biografia irakurtzen. IMANOL BELOKI

Mamitsua izaten ari da Literatura Zikloa

Antolatzaileek Literatura zikloaren balorazio positiboa eginda, gaur, 'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' lehiaketako sari banaketa egingo dute Zaldibar antzokian, 18:30ean, Beheko Errota Musika Eskolakoen ipuin musikatuek lagunduta

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirilaren 2an hasitako Literatura Zikloak bere fruituak eman ditu. Izan ere, orain arte egindako hitzorduetara herritar asko joan da, eta, oraindik amaitu ez den arren, gaur izango da egitarauko ekimen nagusia: *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketako sari banaketa, hain zuzen ere.

Aitona-amonak ezagutuz

Duela sei urte hasitako egitasmoak indarra hartu du urtez urte, eta edizio hau ere arrakastatsua izatea aurreikusten dute antolatzaileek. Aitona-amonen eta biloben arteko harremanak sustatzeko baliagarria izateaz gainera, liburuetan kontatzen ez diren gauza asko ikasteko helburuarekin sortutako ekimena da. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako Luis Ezeiza Herri Eskolako eta Arizmendiko Almen guneko haurrek euren aiton-amonen biografia idatzi, eta lehiaketara aurkezten dute. Epaimahaiak, hainbat irizpide kontuan hartuz, aurkeztutako bi biografia onenak aukeratu eta saritu egiten ditu. Hala, 65 haurrek hartu dute parte guztira, eta gaur, 18:30ean, lehiaketako saridunek idatzi duten historia kontatuko diete Zaldibar antzokira bertaratzen direnei. Gainera, gonbidatu bereziekin. Izan ere, idatzitakoa jendaurrean irakurtzeaz gain, alboan euren aitona edo amona ere izango da bilobaren irakurketa entzuten. "Lan oso txukunak egin dituzte haurrek, eta saridunak aukeratu ditugu dagoeneko. Luis Ezeizako bat eta Almeneko beste bat dira irabazleak, baina zaila izan da hauek aukeratzea, esan moduan, lan oso onak egin dituztelako. Aurtengoa seigarren edizioa da, eta, ekimen oso polita izanik, egiten jarraituko dugu", adierazi du Iñaki Agiriano Bibliotekako arduradunak.

'EZAGUTUZ ULERTU ETA ULERTUZ MAITATU' LEHIAKETAN 65 HAURREK HARTU DUTE PARTE

Sari banaketari bide emateko, gainera, Beheko Errota musika eskolako ikasleek *Kanta galduak* izeneko ipuin musikatua eskainiko dute, aurreko urteetan moduan.

Zikloak, erantzun bikaina

Literatura kedada lehenengo aldiz egin da aurten, eta antolatzaileak pozik agertu dira emandakoarekin: "10 herritar igo ziren Zaldibar antzokiko oholtzara euren gomendioak ematera, gustuko duten liburu baten pasarte bat irakurriz. Honekin batera, musika ere izan genuen. Jexus Perezek eta Bea Rubiok kantak eta poema errezitatuak musikarekin lagunduta eskaini zituzten. Hala, parte-hartzaileak pozik geratu ziren egitasmoarekin".

Egungo egoera, etorkizuneko erronkak eta konpromisoa hizpide

Eluska Irazuk eta Gorka Elejabarrietak solasaldia eskainiko dute zapatuan, 13:00etan, kultura etxean

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduk antolatuta, zapatuan, 13:00etan, solasaldia izango da kultura etxean. Bertan parte hartzen bi hizlari arituko dira: alde batetik, Gorka Elejabarrieta, Senaturako zerrendaburua Gipuzkoatik apirilaren 28ko hauteskundeetan, gaur egun EH Bilduko zuzendaritzako kidea dena eta Nazioarteko Harremanen eta Politiken zuzendaria; eta, bestetik, Eluska Irazu, Eskoriatzako EH Bilduko alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako.

Gaur egungo egoeraz, etorkizuneko erronkaz eta konpromiso pertsonalaz arituko dira ordubete inguruko solasaldian. Jendearen galderak erantzuteko prest ere agertuko dira, saio amaieran.

Solasaldia bukatzean, herri bazkaria egingo dute, 14:30ean. Helduentzako menua honako hau izango da: entsalada, haragi-biribilki betea, gazta, menbrilloa, ardoa, kafea eta txupitoa –12 euro–. Haurrena: makarroiak, solomoa eta postrea –6 euro–. Txartelak Inkernun daude salgai.

Errosario Santuko Ospitalera bisita egingo dute zapatuan

Gaur egun Huhezi unibertsitatea dagoen eraikina Errosario Santuko Ospitalea izan zen. Lau mendeko historia du, eta eraikin lanak 1600. urtean hasi ziren, Perura joandako Juan de Mondragon arkarazotarraren aginduz. Ordutik hona, ugariak izan dira jasan dituen gorabeherak –sute handiak, jabetza aldaketak, erromesen abentu-rak…– eta eman zaizkion erabilerak –txiroentzako ospitalea, odol ospitalea, umezurztegia, fraideen komentua, unibertsitatea…–.

Bisita honetan, eraikinaren nondik norakoak ezagutuko dituzte bertaratzen direnek Ana Isabel Ugalde historialariaren eskutik. Hala, ele bitan eta doan izango da bisita, baina izena eman beharra dago, Ibarraundi museoan. Zapatuan, elkartzeko lekua ere museoa izango da, goizeko hamaiketan.

ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Kirola eta euskara ardatz

Martin Perez –saskibaloi egokituko Zuzenak taldeko jokalaria– eta Beñat Illarramendi –Aretxabaletako futbol jokalaria– eskoriatzarrak gaztelekuan izan dira euren esperientziak partekatzen. Kirolaren bueltan, solasaldia eskaini zieten nerabeei, baina, horrez gain, Euskaraldian Eskoriatzako hamaikakoaren parte izatearen bueltan ere jardun zuten.

Pasa den astean jokatutako partiduaren ostean, aldageletan garaipena eta igoera ospatzen. IMANOL SORIANO

Ospakizunak eginda, lanean bete-betean

Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan Maila Nazionalean dute burua Eskoriatzako mutilek. Datorren urtera begira ez du aldaketarik egin nahi Iker Molina entrenatzaileak, eta taldea "gogotsu eta motibatuta" dagoela adierazi du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Lortu du Eskoriatza areto futbol taldeak Maila Nazionalera igotzea. Hamalau urteren ondoren, Iker Molinaren gidaritzapean eta talde gazte baten indarrarekin, lortu dute urteetako helburua betetzea. Gauzak horrela, denboraldi hau amaitzeko jardunaldi bat geratzen den arren, hasi dira aurrera begirakoak prestatzen. Dena den, hurrengo jardunaldian, bigarren postuan geratzea edo hirugarren amaitzea denboraldia izango dute jokoan.

Ederto ospatu arren, gogotsu

Araiako Zirauntzaren aurkako partiduan (4-3) lortutako garaipena ederto ospatu zutela taldekideek adierazi du Iker Molina entrenatzaileak: "Hamalau urte pasa behar izan dira berriz Nazionalera igotzeko, eta hori ospatzeko modukoa da. Gasteizera joan ginen guztiok eta festa ederra egin genuen. Hala ere, oso motibatuta daude jokalariak azken jardunaldira begira, eta etorriko zaigun denboraldiari begira ere bagaude, gogotsu. Hala, lasai hartzea da asmoa, baina entrenamenduekin jarraituko dugu. Honi dagokionez, kantxan ordu gehiago izateko eskaera egin nahiko genuke datorren urtera begira, baina zaila izango da lortzea. Izan ere, oso okupatuta dago...".

Taldean aldaketa barik

Maila Nazionalera begira, ez du jokalari berririk gura Molinak. Igoera lortu dutenekin jarraitu nahi du, eta, aldaketa handi barik, horiek mantentzea da bere helburua: "Dagoeneko badakit bi jokalari ez ditudala izango. Izan ere, Erasmusean doaz, eta pentsatu beharko dugu zerbait. Ikusiko dugu, baina gazte mailako bi jokalari igotzeko apustua egingo nuke nik. Hala ere, oraindik goiz da erabakiak hartzeko".

MAILA NAZIONALERA BEGIRA, EZ DU JOKALARI BERRIRIK GURA IKER MOLINA ENTRENATZAILEAK

Ekonomikoki suposatzen duena

Maila Nazionalean Euskal Herriko herri ezberdinetako taldeak daude, eta normalean, Euskal Ligarekin alderatuta, bidaia luzeagoak egin behar izaten dituzte taldeek, partiduak jokatzeko. Hala ere, ez da datorren urteko kasua izango: "Zorte kontua da, baina egon naiz taldeak zeintzuk izango diren ikusten, eta aurtengo denboraldiaren antzera ibiliko gara".

Nazionalean mantentzea zaila izaten da, eta diruak ere zeresan handia du. Izan ere, jokalarien fitxak, arbitrajearen ordainketa... askoz garestiagoak dira. "Esaterako, aurten, 120 euro ordaindu badugu arbitrajea, datorren urtean, 240 inguru ordaindu beharko dugu. Zigorrak ere askoz garestiagoak dira...".

Gaztainuzketako mendi-etxe baten kanpoaldean sastrakak garbitzen. IMANOL SORIANO

Mendi-etxeak bigarren aldiz atera ditu lehiaketara Udalak

Apartamentu turistikoen gunea ustiatzeko eta mantentzeko zerbitzuak ez du eskaerarik izan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako mendi-etxeak apartamentu turistikoen gunea lehiaketara atera zuen Leintz Gatzagako udalak, baina, eskaerak egiteko epea pasata, ez da interesaturik egon. Hori horrela, apirilaren 4ko R-19-033 alkate-dekretu bidez erabaki dute Leintz Gatzagako Udalarena den Gaztainuzketako gunearen ustiapena eta mantentze-zerbitzua esleitzeko prozedura irekia hutsik jotzea.

"Jende dezente eraman dugu bertara ingurua eta mendi-etxeak erakustera, baina gero, hartzeko eskaerarik ez dute egin, aurkezteko epean, nahiz eta interesa erakutsi duten. Orain, bigarren aldiz aterako dugu lehiaketara, eta 15 egun baliodun izango dira eskaerak egiteko, ea norbait animatzen den...", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

Auzolana berriro

Gaztainuzketa erakargarriagoa izateko ahaleginak egiten segituko dute, eta, horretarako, martxoaren 30ean egindako auzolanari jarraipena emango diote Aste Santuan edo ostean.

JON ANDER ALBERDI

Liburuaren Eguna, musikaz betea

Musikarekin ospatu dute Liburuaren Eguna Leintz Gatzagan. Eñaut Zubizarretak kontzertu didaktikoa eskaini zuen, biolontxeloa lagun. Instrumentuaren eta musikaren gaineko historia pixka bat kontatu zuen, eta bertan batutakoekin abesti bat sortu zuen. Amaitzeko, Zubizarretak *Trigger* bere diskoaren aurkezpena egin zuen, hainbat pieza jota.

Bidegorria Urteagaraino eramatea eskatu dute

Bergara eta Antzuola lotuko dituen bidegorri zatia amaitzeko eta ur-zikinen kolektorea egiteko eskatuz, gutuna bidaliko die herritar talde batek Bergara eta Antzuolako udalei eta Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasun eta Azpiegitura departamentuei

Maider Arregi ANTZUOLA

Herriak lotu, bidegorria amaitu lelopean, Antzuolatik Bergarara egin zuten pasa den zapatuan makina bat herritarrek gorriz jantzitako bizikleta martxa. Helburua bidegorriak gaur egun duen egoera azaleratzea eta ur-zikinen kolektorea egitearen beharra aldarrikatzea izan zen.

Protesta bultzatu dutenek eskatzen dute Antzuolatik Bergararako bidegurutzeraino moduan, handik Bergarako herrigunerainoko zatian, hau da, Urteaga kalean ere bidegorria egitea. Diote egin egingo dela uste dutela, baina ahal bezain azkarren egitea nahi dutela. Erakundeek ez dezatela gaia ahaztu nabarmendu gura izan dute: "Une honetan, errepide nagusira irten behar dugu, eta kezka eta ardura handia sortzen digu horrek. Helduak arriskuaren jabe izango dira, baina gaztetxoak ez. Horrez gain, oinezkoendako ere zati oso arriskutsua da hau. Guk irtenbide bat gura dugu, eta ez zein den erantzule seinalatzea. Ikusten dugu bai bi udalek eta baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzukizuna dutela gai honetan. Istripuren bat gertatu aurretik irtenbidea gura dugu", argitu dute martxaren antolatzaileek.

Dena den, adierazi dute euren asmoen berri ezagutzeko ez direla zuzenean Bergarako Udalarekin eta Foru Aldundiarekin egon. Baina, orain, antolatzaileek gutuna bidaliko diete Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun diputatu Marisol Garmendiari, Azpiegitura diputatu Aintzane Oiarbideri, Bergarako alkate Elena Leteri eta Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriari.

Gutunean, Antzuolatik datorren bidegorria Bergararakoarekin konektatzeko eman behar diren pausoak emateko eskatzen dute. Eta gutun berean eskatuko dute ur-zikinen kolektoreari behin betiko irteera ematea.

Bizikleta martxari hasiera emateko prest. IMANOL SORIANO

"ANTZUOLA ETA BERGARA ARTEKO BIDEGORRI ZATIAREN FALTAK SEGURTASUNIK EZA SORTZEN DU"

Obraren garapena martxan da

Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegitura Sailak GOIENAri azaldu dio obrak eta bere garapenak martxan jarraitzen duela; eta esandako hitza eta epeak bete direla orain artean: "Deskargako obrarekin batera agindutako bidegorriaren zatiaren garapena egiten ari gara. Bergarako Urteaga kalerainoko zatia, berriz, laster egingo da. Agindutakoa beteko da eta gure obran, Galartzako zubiraino bidegorria bukatuta gelditukо da aurki. Esan moduan epeak beteko dira".

Gipuzkoako Aldundiak gaineratu du Bergararako bidegurutzetik aurrerako bidegorri zatiaren proiektua, hau da, Urteaga kaleko zatiarena, eginda dagoela, eta lizitaziorako prest. Aldundiaren arabera, hurrengo agintaldian egingo da Antzuola-Bergara bidegurutzetik Bergarako autobus geltokirainoko bidegorri zatia, "aurreikusita zegoen moduan", eta, ondorioz, bidegorriz lotuta geratuko dira bi herriak. Aldundiak GOIENAri emandako informazioan ez da zehazten hurrengo agintaldian noiz egingo dituzten lanok. Lanon eskumena ordea, Foru Aldundiko Mugikortasun diputatu Marisol Garmendiaren departamentuarenak eta Bergarako udalarenak dira.

Ur-zikinen kolektoreari dagokionez, kolektorea nola egin aztertzen ari da Ura agentzia une honetan. Ura agentziarena dela kolektorea egitearen ardura azaldu du Azpiegitura Sailak, eta une honetan hainbat aukera aztertzen ari direla. "Efizientziagatik, gure bidegorriaren obrarekin koordinatzen ari gara. Galartzaren eta Urteaga kalearen hasieraren artean behin-behineko pasabide bat utziko dugu obra honekin, Ura agentziak behin betiko soluzioari argi berdea eman arte eta hurrengo fasearekin hasi gaitezkeen arte".

NIRE USTEZ

ION LIZARAZU

Bazen garaia?

Amorrarazi egiten nau ikusteak zeinen erraz sartu diguten buruan dena amaitu dela, proiektua azkenik txukun irten dela eta orain Antzuolan –edo Antzuloan– herritar guztiak obrarekin pozik gaudela. Antzuola Debagoieneko bidegorri sarearekin lotzeko proiektua eta Antzuolako ur zikinen kolektorea Bergaran lotzekoa beti autobideko obrarekin eskutik joan dira eta errepidea ireki da eta komunikabide guztiak obra amaitu dela kontatzen dauzkagu; hala ere, errepidearen inguruetan bukatu gabe utzi dituzten lantxoek albokalteak sortzen jarraitzen dute, kolektorearen gaia bukatu gabe dago, eta bidegorria Bergarako ateetara soilik eramango da.

Bazen garaia baino gehiago, bada garaia esango nuke. Azken hamarkadetako kalteak handiak izan dira, hurrengo hamarkadetako ondorioak horrenbestekoak ez izatea espero izatea besterik ez daukagu. Oraingoz, sakeak bat, erreferak esperantza.

KORRIKA 21

Aiherran Korrikarekin bat

Domekan festa giroan batu ziren antzuolarrak aihertarrekin, Korrikarekin bat eginez. Asteburuan Korrika 21 bailaratik pasako den arren, ez da Antzuolatik igaroko. Hala ere, bihar eguerdirako bergararrekin bat egiteko dei egin diete antzuolarrei Antzuolako Korrika batzordeko kideek. Gaur, berriz, 16:00etan Errekalden abiatuko da Korrika Txikia.

Abian da jaietako zapiaren diseinua aukeratzeko lehiaketa

Aurtengo jaietarako zapiaren diseinua aukeratzeko lehiaketa abian da. Interesa dutenek maiatzaren 17ra arte dute parte hartzeko aukera –nahi duen orok parte har dezake–. Lanak Antzuolako jaien ezaugarriak islatu beharko ditu eta *Antzuolako jaixak 2019* testua izan beharko du. Irudiak, gehienez, triangelu formako gainazal hau hartuko du: 70x70x100. Diseinuak edo irudiak bi kolore izango ditu. Koloretzat hartzen da zuria. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira.

Diseinuak udaletxeko idazkaritzan aurkeztuko dira DIN-A4 neurriko bi gutun-azaletan. Batean lana joango da eta bestean parte-hartzailearen datuak jarriko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Lan bakoitzeko gutun bat aurkeztuko da. Informazio gehiago: *Goiena.eus/antzuola*.

Entzuteko eta, batez ere, kontatzeko ekimena

'Ahotik bihotzera' ekimena egingo dute etzi, domeka; eguerdian, ipuin kalejira egingo dute; eta arratsaldean, ipuinak kontatuko dituzte Olaranen, 18:30ean. Herritarrak animatu nahi dituzte oholtzara igo eta ahozko tradizioaren festan parte hartzera

Arantzazu Ezkibel Galdos ANTZUOLA

Ahotik bihotzera ipuin maratoia egingo dute etzi, domeka. Ahozkotasunaren festa izan nahi duen ekimenaren seigarren aldia izango da aurtengoa.

Ahozkotasuna eta ipuinekiko zaletasuna zabaltzea da egitasmoaren asmoa. Horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute. 13:00etatik 14:30era bitartean, ipuin kalejira egingo dute, Virginia Imaz ipuin kontalariak gidatuta; herriko kaleetan ibiliko dira ipuin kontalariak trikitilarien laguntzarekin.

Kalejira hori zabalduko du Iñaki Mata aktore eta sortzaile antzuolarrak. 2018an Valladolideko kaleko antzerki jaialdian estreinatutako *Welcome* ikuskizuna eskainiko du. Mata ipuin kalejiraren aurretik joango da herriko kaleetan zehar.

Herritarren saioak, Olaranen

18:30ean, herritarren txanda izango da. Olaranen ipuin saioak kontatuko dituzte. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte ahozko tradizioaren festan parte hartzera. Parte hartzeko bi modu daude: entzutea da bat, eta kontatzea bestea.

Ipuinak, istorioak, garai bateko bizimoduaren pasarteak, bertsoak, kantuak... nahi dena kontatzeko aukera egongo da, eta aukera zabala izango da. Baldintza bakarra izango da kontatu egin behar dela, "ez irakurri", dio Jone Larrañaga Kultura teknikariak.

Norberak nahi duen hizkuntza aukeratzeko aukera egongo da ipuina edo dena delakoa kontatzeko. Gehienez, hamar minutu izango ditu pertsona bakoitzak.

Nola parte hartu

Ahozkotasun festan parte hartu nahi duen herritarrak eta Olaranen zerbait kontatzeko gogoa duenak izena eman beharko du. Horretarako, Udaleko Kultura

Dorleta Kortazar ipuin kontalaria, iazko ekitaldian. GOIENA

VIRGINIA IMAZ IPUIN KONTALARIAK GIDATUTA IPUIN KALEJIRA EGINGO DUTE, 13:00ETAN

Sailarekin harremanetan jarri beharko du 943 76 62 46 telefono zenbakian edo *kultura@antzuola.eus* helbidean. Larrañaga teknikariak dio zaila izaten dela oholtzara irtengo den jendea animatzea, "ez da-eta samurra izaten jendaurrean zerbait kontatzea".

Virginia Imazek gidatuko du saioa eta lagundu ere egingo du, jendeari erakutsiz nola kontatu istorio bat. Oholtzara igotzen direnek "maila polita" erakusten dutela gaineratu du Larrañagak, "saiatu" egiten direla eta hori guztia igarri egiten dela.

Ahotik bihotzera ekimena jendeak gustura hartzen duela dio: "Ekimen xumea da, baina goxoa, gertukoa, eta jendea egiteko desiratzen egoten da". Domekan izango dute gozatzeko aukera.

Mataren 'Welcome' ikuskizuna

Iñaki Mata antzuolarrak *Welcome* ikuskizuna eskainiko du herriko kaleetan. Eguerdian izango da, ipuin kalejirarekin batera: "Ipuin kontalarien aurretik joango naiz", azaldu du. *Welcome* poesia ikusgarria eskaintzen duen obra ibiltaria da, edozein barne migrazio prozesuri "ongietorria egiteko modua. Giza itxura duen panpina errealista da protagonista, panpina itxura duen gizarte batean", azaldu du Matak. Helburua jendea "martxan" jartzea dela dio Matak, jendeak galderak planteatu ditzan.

Kaleko proposamen berri bat da *Welcome* ikuskizuna: "Estatuak, performanceak... egin izan dira kalean; baina hau formatu berri bat da, objektuak eta aktoreak nahasten dituena", azaldu du Matak. Jorge Montero musikariaren laguntza izango du.

PILOTA ELKARTEA

Eskolartekoan, txapeldun

Olalde pilota elkarteko Inar Cabok, Beñat Larreak eta Oier Aldasorok txapela jantzi dute Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketan. Soraluzeren aurka jokatu zuten infantil mailako finala, zapatuan, Donostian. Txandaka jokatzen dute hiru pilotariek; hain zuzen, finalean Cabo eta Larrea irten ziren pilotalekura. Samur nagusitu ziren antzuolarrak (16-4).

Idiazabalen aurka jokatuko du Antzuolak zapatuan, 16:30ean

Bihar, zapatua, jokatuko du Antzuolako futbol talde nagusiak Idiazabalen aurka. "Azkeneko bi partiduak irabazita, denboraldi bukaera nahiko txukuna egiten dabilen taldea da Idiazabal; bestalde, gu dagoeneko erlaxatuta gaude", dio Iosu Zubikarai entrenatzaileak. "Denboraldi ona" egin dutela gaineratu du, nahiz eta denboraldia duda askorekin hasi. "Ahal den goren amaitzea daukagu buruan, baina ez da erraza izango; izan ere, helburu nagusia bete dugu eta taldea momentu honetan motibatuta izatea ez da erraza izaten", dio. Antzuola 8. tokian dago, 38 punturekin. Partidua 16:30ean izango da.

Erretiratuen elkarteak batzordea berritu du, eta bazkide kuota igo

Erretiratuen eta pentsiodunen Landatxope elkarteak urteko batzar orokorra egin berri du. Alde batetik, batzordea berritu dute: M. Karmen Larrañagak eta Venancio Tenak batzordea utzi dute eta Brigida Rodriguez, Jose Mari Iturbe eta Juan Jose Jauregi sartu dira. Pilar Etxanizi batzordea uztea egokitzen zitzaion aurten, baina jarraitu egingo du eskualdeko idazkari lanetan eta Debagoieneko Nagusien Kontseiluko presidente gisa. Bestalde, bazkide kuota 10 eurora igotzea erabaki zuten, eta baita manifestazioetara joateko autobusen prezioa igotzea ere –2018ko defizita gutxitzeko–.

Balentziaga Oroitzarreko maillot zuria, Antzuolara

Espainiako Koparako puntuagarria den Balentziaga Oroitzarrea jokatu zen aste bukaeran, Eibarren. Kortabarriak hasiera zaila izan zuen –jausi egin zen eta bizikleta aldatu behar izan zuen–; baina, ondoren, eguneko ihesaldia harrapatu eta esprint berezietako saria irabazi zuen –maillot zuria–. "Gustura eta sentsazio onekin" amaitu zuen.

Aritz Kortabarria. GOIENA

Apirilaren 27an, enduro diziplinako martxa herrian

Piñukoku taldeak 25 bat kilometroko ibilbidea prestatu du eta egunean bertan izango dira izen-emateak, plazan. Helburua da dagoen afizioaren berri ematea, landuta dauden bidezidorrak inguruko zaleei erakustea eta egunaz disfrutatzea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hiruzpalau orduko buelta izango dela aurreikusten dute antolatzaileek. Parte-hartzaileak 09:00etan abiatuko dira plazatik eta bidea seinaleztatuta izango dute. Goikomendiri ezkerraldetik buelta eman eta Karabietatik Azkonabietara egingo dute *rider*-ek. Hor izango du hasiera lehenengo jaitsierak. Araotzerainoko jaitsiera dago prestatuta, baina erdi pare inguruan gelditu eta berriz egingo dute Karabietara txirrindulariek. Goikomendira igo eta tontorretik presarainoko jaitsiera egingo dute. Santamarinazar izango da hurrengo helburua. Bertatik San Romango bidera jaitsiko dira. Azkenik, Elgetako zaleek prestatu duten azken jaitsiera egingo dute, eta Aixolako presan emango diote amaiera martxari.

Enduro diziplinako martxa dela azpimarratu dute antolatzaileek eta jakinarazi dute ibilbideak baduela kontuan hartzeko modukoa den zailtasun maila bat: "Igoera eta jaitsiera teknikoak daude eta beharrezkoa da gutxieneko jakintza bat. Eguraldi txarra bada, zer esanik ez!". 08:00etan zabalduko dute izen-ematea, herriko plazan.

Elgetako zale bat basoan saltoa egiten. ARTXIBOKO IRUDIA

HIRUZPALAU ORDUAN EGITEKO MODUKO 25 BAT KILOMETROKO BUELTA IRAGARRI DUTE ANTOLATZAILEEK

"Bideak landuta daude eta oso ibilbide politak ditugu eginda"

ETOR GARATE ELKORO PIÑUKOKU TALDEKO KIDEA

Urtebete pasatxo da herriko endurozaleek taldea sortu zutela. Martxa antolatzeko, elkarte izaera ere eman diote.

Zenbat zarete taldean?

Enduroa egiten dugunak hamar bat gara. Mendiko bizikletarekin hasi ginen eta gero etorri zen enduroa. Elgetan aldapa asko dago eta exijentzia handiko terrenoa izan daiteke, baina ingurunea oso polita da.

Jende asko espero duzue lehenengo martxarako?

Ez da erraza izango jende asko etortzea. Elgeta ezagutzen dutenek badakite hemen zein zailtasun maila dagoen. Gure lehen martxa izanik, helburua da ingurukoei lekuak erakustea eta egunaz disfrutatzea.



L.Z.L.

Aholkurik emango zenuke?

Ibilbide nahiko exijentea da eta eguraldiak eragin handia izango du. Gurpil-azalak ondo aukeratu eta suspentsioa zein pija delako zela-tutua puntuan ekarri.

Lan handia izan da martxa antolatzea?

Aseguru-etxeak elkarte izaera eskatu digu eta orain amaitu dugu hori. Bestalde, bidezidorrak ondo edukitzea lana da. Mantentze-lanei denbora dezente eskaini diegu azkenaldian. Gure gusturako ibili gara, eta orain lan hori eginda dago neurri handienean.

Afiziorik bada inguruan?

Gero eta handiagoa. Ibiltzeko lekuak ere gero eta gehiago daude, eta horrek erakarri egiten du jendea. Gaur egun, mendiko bizikletako martxa askotan sartzen dituzte enduro modalitateko tarteak.

Iñaki Etxaniz Tesouro, *Air Pyrénées* airelineari buruz hitzaldia egiten, Elgetan. L.Z.L.

'Air Pyrénées' airelinea sortu zuen lehen Eusko Jaurlaritzak

Gerrako blokeoa gainditzeko helburuarekin, sei hegazkin eta lau pilotu izan zituen; hiru urte iraun zuen

L.Z.L. ELGETA

Martxan da Intxortako erresistentzia aldarrikatzeko apirileko programazio berezia. Iñaki Etxaniz Tesouro historialariak ireki zuen, *Air Pyrénées* airelineari buruzko hitzaldiarekin, martitzenean.

Pasarte harrigarriak kontatu zituen, eta egoera benetan sinesgaitzak. Guztiak ditu jasota *Air Pyrénées, la aerolinea de Euzkadi* izeneko liburuan.

Hegazkin konpainiak 1936tik 1938ra bitartean funtzionatu zuen eta erabili zuten Baiona eta Bilbo arteko hegaldiak egiteko. "Konpainia zibil moduan egin zuten lizentzia eskaera Frantzian, eta, pertsonak eta merkantziak garraiatzeko baliatu bazuten ere, dokumentu garrantzitsuak bidaltzeko eta gerrarekin lotutako misioak egiteko ere bai. Lau pilotu izan zituen eta britainiar fabrikazioko sei Airspeed, baina modelo berriak ziren eta motorrak berotzen zitzaizkien. Arazoak izan zituzten", dio Etxanizek. "Sondika eta Lamiako zituzten aireportu, baina frankistak gerturatu ahala Laredoko hondartza ere bihurtu zuten aerodromo".

Aixolan ur maila jaitsi egingo dute, eta arrantza debekatu

Zebra-muskuiluaren hedapena neurtzeko eta galarazteko adostu dituzte neurriok hainbat erakundek

L.Z.L. ELGETA

Gipuzkoako Ur Partzuergoa astelehenean hasi zen urtegiko ur maila jaisteko neurriak hartzen. Horrela adierazi du Uraren Euskal Agentziak. Aurreko astean Donostian egindako batzar batean hartutako erabakia da. Urtegiko jardueretan eskumena duten eragileak izan ziren bertan. "Neurri horrek ahalbidetuko du zebra-muskuilu gehiago dagoen antzematea eta horrekin batera egonkortzeko gustuko dituen eremuak lehortzea", adierazi dute. Ur maila zenbat jaitsiko duten zehazteko dago. Adituek uste dute hamabost bat metro egin beharko lukeela behera ur mailak neurria benetan eraginkorra izateko.

Gainera, era guztietako arrantza jarduerak galarazi egingo dituzte Aixolan. Espezie inbaditzaile arriskutsua da zebra-muskuilua eta gizakien jarduerek ahalbidetzen dute neurri handienean larbak ur eremu batzuetatik besteetara pasatzea. Horrelakoak ekiditeko debekatuko dute arrantza Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiek.

Egitarau zabala gaur eta bihar Korrikaren alde

Aurtengo Korrika Elgetatik pasako ez den arren, hainbat elgetarrek Bergarako kilometro bat egingo dute bihar: Mekoaldetik Osintxura, hain zuzen ere. Horrez gain, gaur, besteak beste, Korrika Txikia eta Herri Korrika izango dira herriko kaleetan

Maialen Regueiro ELGETA

Garestik abiatu zen Korrika pasa den eguenean eta domeka honetan iritsiko da Gasteizera. Hala, edizio honetan euskararen aldeko lasterketa ez da Elgetatik igaroko, baina herrian Korrikaren baitan antolatutako hainbat ekintza egingo dira gaur eta bihar artean. Gainera, hainbat elgetarrek Bergarako kilometro batean egingo dute korrika bihar –Mekolaldetik Osintxura– , 14:00 aldera. Horretarako, 12:30ean autobusa hartuko dute Bergarara.

2015eko Korrika Elgetatik igarotzen. GOIENA

Herri Korrika, gaur

Gaur, hainbat ekintzarekin gozatzeko aukera egongo da Elgetan. 15:00etan, Korrika Txikia hasiko da herri eskolatik, eta ondoren, Guraso Elkarteak antolatutako txokolate-jana izango da. Horrez gain, apirilaren 2an izan zen Haur Liburuaren Eguna eta apirilaren 23an izango den Liburuaren Eguna aitzakia hartuta, Geaxi Ezpeletak plazara aterako du liburutegia 16:00etatik 18:00etara bitartean. Ordu tarte horretan, 17:00etan, hain zuzen ere, Elgetako liburutegiak antolatutako *Sorgina txirulina* ipuin kontaketa musikatua hasiko da. Horren ostean, 18:30ean, egingo da Herri Korrika. Bertan,

ELGETARREK BERGARAN EGINGO DUTE KORRIKA BIHAR: MEKOLALDETIK OSINTXURA

Elgetako hainbat elkartek hartuko dute parte –23 izango dira– eta honako hau da egingo duten ibilbidea: San Roke, Artekale, Bolatokia, Salvador eta herriko plaza. Ondoren, Elgetako 21. Korrikako argazki proiekzioa egingo dute. Gaurko egitaraua bertso afariarekin amaituko da. Izan ere, Ozkarbi elkartean izango da saioa eta Onintza Enbeita eta Sustrai Colina bertsolariak arituko dira. Afaria, berriz, Ozkarbi elkarteko kideek prestatuko dute. Aipatu behar da gaur iluntzeko saiorako sarrera guztiak salduta daudela.

Zunba beroketa, bihar

Bergarako kilometroa egin aurretik, zunba beroketak egingo dituzte plazan, eguerdiko hamabietan.

Izturitzen Korrikarekin bat

Hilaren 7an, domekan, 09:30ean abiatu ziren hainbat elgetar Izturitzera klika egiteko asmoz. Korrika pasatzeko ordurako jende dezente elkartu zen herriko erdigunean eta elgetarrek egindako kilometroa koloretsua eta zaratatsua izan zen. Arratsaldean, berriz, Hoki herrirako bidea hartu zuten Urdiñarbeko gazteen maskarada emanaldiaz gozatzeko.

Elgetarrak Izturitzen klika egiten. LARRAITZ ZEBERIO

Abesbatza emanaldia eta dantza saioa domekan, Espaloian

Northern Harmony abesbatzaren emanaldia 18:00etan hasiko da eta ondoren kontradantza saioa izango da

M.R. ELGETA

Elgetako Udalak eta Herrixa Dantzan egitasmoak antolatuta, abesbatza emanaldia eta dantza saioa izango dira domeka arratsaldean Espaloian. Northern Harmony Ameriketako Estatu Batuetako abesbatzak Bulgaria, Georgia, Korsika, Hego Afrika eta Ameriketako kanta tradizionalak abesten ditu eta bira egiten ari da hainbat tokitan zehar: Ingalaterran, Frantzian eta Euskal Herrian, hain zuzen ere. Hala, domekan Espaloian eskainiko duten emanaldia birako azken emanaldia izango da; 18:00etan hasiko da.

Abesbatzaren emanaldia amaitzen denean, kontradantza saioaren txanda izango da, Jeremy Carter Gordonekin. Dantza eta kantu tradizionalen irakaslea da hura eta banjoa ere jotzen du. 2009az geroztik, gainera, modalitate horretako dantza ikastaroak ematen ditu. Hala, domekan, Ameriketako kontradantzak eta beste dantza batzuk eskainiko ditu. Sarrera debaldekoa izango da, baina amaieran borondatea eskatuko dute.

XALBADORPE ERRETIRATU ELKARTEA

Debagoieneko txapeldunak

Oñatin jokatutako karta-jokoko kanporaketa irabazita, Debagoieneko txapeldun dira Mertxe Elorriaga eta Irene Bolinaga, eta Urretxun jokatu zen saiorako sailkatu ziren; eguaztenean izan zen hori, eta Elorriaga, Bolinagarekin beharrean, Jesusita Iturricastillorekin aritu zen, baina ezin izan zuten Tolosaldeko bikotearen aurka irabazi.

OHARRAK

Euskal Herriko Itzulia Elgetatik igaroko da

Itzulia Elgetatik igaroko da bihar, 17:00 aldera. Angiozartik Asentziora egingo dute eta Asentziotik Elgetara.

Frontenis txapelketarako izen-ematea

Apirilaren 18a da txapelketan izena emateko azken eguna. Txapelketa egiteko beste lagun dagoela esan dute antolatzaileek.

Auto telegidatuak Pagatzako ziburuetan

Gaztelekuak antolatuta aditu bat etorriko da, bihar, 17:00etan.

Odol-ateratzea udaletxean

18:00etatik aurrera izango da odol-ateratzea, apirilaren 15ean.

Urteko feriarik kutunena, Korrikaren erritmora

San Martin plaza, Munibe, seminarioko patioa, Fraiskozuri eta Simon Arrieta hartuko ditu Erramu Zapatuko feriak bihar, eta Korrika heltzerakoan (13:35) biziko da egun bereziko unerik gorena; herri bazkarirako 450 txartelak hamabost minutu eskasean saldu ziren

Jokin Bereziartua BERGARA

Erramu Zapatuko ospakizuna berez berezia bada hainbat bergararrentzat, aurtengoa are bereziago egingo du Korrikaren etorrerak. Izan ere, Erramu Zapatuaren puntako orduan, 13:35ean, helduko da Korrika Bergarara, Labegaraietatik. Gero, Ozaeta kaletik igaroko da eta handik, Zubiarre, San Antonio, Mintegi, Espoloia, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Zubieta, Mugertza, Lizaria eta Amillaga zeharkatu ostean, Osintxurantz abiatuko da.

Giro euritsua izan arren, hainbat herritar –eta joaldunak– kalera irten ziren iaz. GOIENA

Ikusi, erosi eta ikasteko aukera

Ohi moduan, eskaintza zabala izango da postuei dagokienez. San Martin plazan 41 postu egongo dira eta Muniben, 12; horietan artisauak izango dira protagonista, eta, denetariko produktuak erosteko aukera izateaz gain, lana nola egiten duten ikusi ahalko da bertatik bertara. Seminarioko patioan animaliak, makineria eta tailerrak egongo dira. Fraiskozurin –31 postu– eta Simon Arrietan –16 postu– elikagaiak izango dira nagusi, eta mokadutxorako aukerarik ez da faltako; Eusko Labelen hanburgesa dastatzeko aukera San Martin plazan eta talo-postua Fraiskozurin.

450 txartel hamabost minutuan

Herri bazkarirako 450 txartelak 15 minutuan agortu dira aurten. "Jende mordoxka bat geratu da txartelik gabe, eta haiengatik sentitzen dugu. Logistika arrazoiengatik, baina, ez dugu aurreikusten kopurua handitu ahalko dugunik", diote antolatzaileek. Menu ederra izango dute: txorizo egosia, txerri-patea, humusa –aukera barazkizalea txertatzen joan gura dute pixkanaka–, oilaskoa patata erreekin eta Bergarako gozotegietako pastelak eta bidezko merkataritzako kafea. Edatekoen artean, sagardo-kupelak egongo dira.

Erramu Zapatuko egitaraua

Egubakoitza, apirilak 12

- **11:00** Korrika Txikia, Bergarako erdiguneko kaleetan barrena. San Martin ikastetxean hasiko dira eta Irala kalean bukatu.
- **18:00** Korrika Txikia, Osintxuko kaleetan barrena.
- **19:00** Moises Azpiazu dantza taldearen erakustaldia Iralan. Eguraldi txarra egiten badu, Boluko frontoian egingo da.
- **22:00** Bertso jaialdia Seminarixoan.

Zapatua, apirilak 13

- **09:30** Feria. Ibargarain, abelburuen eta makineriaren erakusketa. San Martin plazan, Eusko Label produktuen dastatzea eta artisautza. Fraiskozurin, Simon Arrietan eta Ibargarain, elikagaien postuak.
- **11:00** Bergarako Musika Eskolako trikitilarien, txistularien eta dantzarien emanaldia Irala kalean.
- **11:30** Jardun euskara elkartearen eskutik, txorimalo lehiaketa. Erakusketa Ibargarai kalean jarriko dute.
- **11:30** Aurtizko joaldunak kaleetan zehar.
- **11:30** Ikastaroak eta tailerrak. San Martin plazan, otarregintza, zeramika eta telarrak. Seminarioko patioan, intsektuen hotela, erlezaintza eta kandelak.
- **13:35** Korrikaren etorrera. Labegaraietatik sartuta, Artekalea eta Amillaga zeharkatu ostean, Osintxurantz joango da.
- **15:00** Txapa Irratiaren eta Xaxauren eskutik, herri bazkaria frontoian.
- **17:30** Gaztetxoendako zezentxoak, seminarioko patioan.
- **Arratsaldean zehar** Kale animazioa egongo da txarangarekin.

Oharra: Ibargarai, Fraiskozuri eta Bideberri trafikoari itxita egongo dira goiz osoan, eta zirkulazioa saihesbidetik desbideratuko dute. Garajea dutenei gomendatzen zaie egun horretan autoa barrura sartzeko eta herritar guztiei erdigunera oinez joatea eskatzen zaie.

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Autobus geltokiko aterpea, puskatuta

Herritar batek Ibargaraiko geltokiko aterpea apurtuta dagoela ohartarazi eta dagokionari lehenbailehen konpontzeko eskatu dio, euria bada autobusaren zain daudenak ez daitezen busti.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Bergararren Arreta Zerbitzuak otsailaren 14an ireki zituen ateak. JOKIN BEREZIARTUA

"Datu onak" eman ditu arreta zerbitzuak lehen bi hilabeteetan

Martxoan, batez beste, 104 pertsonak jaso dute zuzeneko arreta eta batez besteko itxaronaldia zortzi minutukoa da

J.B. BERGARA

Otsailaren 14an ateak ireki zituenetik, hainbat izan dira udaletxeko Bergararren Arreta Zerbitzutik pasatu diren herritarrak. Otsailean, batez beste, 85 pertsonak jaso zuten egunero zuzeneko arreta eta martxoan, batez beste, 104 herritar izan ziren; batez beste, itxaronaldia zortzi minutukoa izaten da. "Datuak onak dira, baina oraindik goiz da finkatzeko; ziur denborak aurrera egin ahala datu horiek egonkortu eta laburtu egingo direla", dio Udal Gobernuak. Jende gehien astelehenetan eta eguenetan hurbiltzen da eta gehienak goizez gerturatzen dira –10:00etatik 13:00etara–.

Pilaketak ekiditeko, gogora ekarri dute zuzeneko arretarako ordutegia honako hau dela: astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 15:30era, eta eguenetan 16:00etatik 19:00etara ere badago zabalik. Hori bai, Aste Santuko oporretan, apirilaren 15etik 26ra, 07:30etik 14:30era egongo da zabalik eta bi eguen horietan itxita egongo da arratsaldez. Hala ere, hainbat tramite bulego elektronikoan egin daitezke, 06:00etatik 22:00etara, asteburuak barne.

Espetxean dago sutea eragin zuen bergararra

Apirilaren 4an San Pedro kalean atxilotu zuen Ertzaintzak martxoaren 1ean Donostiako etxe huts baten sutea eta pertsona baten heriotza eragin zuen 49 urteko gizonezkoa eta astelehena ezkero Martutenen dago; albistea bolo-bolo ibili da asteon Bergaran

T. Madina / J. Bereziartua BERGARA

Hutsik zegoen Donostiako eraikin batean sutea izan zen joan den martxoan, eta sute horren ondorioz lagun bat hil zen eta beste bi zauritu. Apirilaren 4an, ustezko egilea atxilotu zuen Bergaran Ertzaintzak, eta pertsona hori Martutenera bidali zuen astelehenean epaileak.

Atxilotutakoa Bergaran bizi den 49 urteko gizonezkoa da, eta, Ertzaintzaren esanetan, su hartu zuen etxebizitza horretan bizi izandakoa sasoi batean bikotekidearekin batera. Orain, urruntze agindua du gizonezko horrek, eta, hain zuzen, etxeari su eman izanaren arrazoia mendekua izan daitekeela uste du Ertzaintzak.

Donostiako tren geltokiko kamerek hartutako irudian, gizonezkoa bidoi batekin. ERTZAINTZA

Susmagarria hasieratik

Martxoaren 1ean, 05:30 inguruan, gertatu zen sutea Donostiako Zubiberri bidean utzita dagoen eraikinean, eta erabat txikituta geratu zen. Etxegabeek erabili izan dute eraikin hori, babes hartzeko, eta sutea sortu zen unean hiru gizonezko zeuden lotan bertan.

Hiru pertsona horietako bik zauriak eta erredurak izan zituzten eta berehala eraman zituzten Donostia ospitalera. Hirugarren gizonezkoa, ostera, eraikinaren goiko partean zegoen lotan eta su-garrek harrapatu zuten. Suhiltzaileek topatu zuten haren gorpua, erabat erreta.

Ikerketa abiarazi zuten orduan Ertzaintzaren Polizia Zientifikoko eta Ikerketa Kriminaleko kideek, eta segituan antzeman zuten nahita sortutako sutea izan zela. Bergaran atxilotutakoa izan da susmagarri nagusia hasieratik, eta, ikerketari esker, ertzainek gertakariaren aurreko asteetan egindako mugimendu guztiak jakin ahal izan dituzte; otsailaren 28an iritsi zen Donostiako autobus geltokira eta sutearen ondoren trenean alde egin zuen Bergaran bizi den 49 urteko gizonezkoak. Sutea sortzeko erabilitako erregaia zelan lortu zuen ere jakin dute; hirugarren lagun bat erabili zuela horretarako adierazi du Ertzaintzak, hirugarren horrek zertarako behar zuen jakin barik. Gasolina arrastoak ere jaso dituzte erretako eraikinaren hondarretan.

EGOTZITAKO DELITUAK ETA AURREKARIAK IKUSITA, 20 URTERA ARTEKO ESPETXE ZIGORRA JASO LEZAKE

San Pedro kalean atxilotu zuten

Lekukoen arabera, atxiloketa apirilaren 4an izan zen, 11:00 aldera, San Pedro kalean. Kale horretako hamahirugarren zenbakian igarotzen omen zituen gauak azken asteetan atxilotuak. Sute delitua, lesio delitua eta erailketa delitua egotzi zizkioten, eta hilaren 5ean, Donostiako 3. epaitegiaren esku utzi zuten. Apirilaren 8an erabaki zuen epaileak espetxera bidaltzea; Ertzaintzaren iturri batek GOIENAri adierazi dioenez, egozten zaizkion delituak eta espetxeratuak dituen aurrekariak ikusita, 20 urtera arteko espetxe zigorra jaso lezake.

Albistea bolo-bolo herrian

Albistea bolo-bolo ibili da asteon bergararren artean, espetxeratua ezaguna da-eta herrian. GOIENAri emandako erantzunen artean, gehienak ez dira askorik harritu, "beti" halako saltsetan ibili izan dela iritzita; hala ere, badira azken gertakari hau "gehiegizkoa" izan dela diotenak.

Hauteskunde atarian ere, "irmo" defendatuko dituzte pentsioak

Pentsioak defendatuko dituztenei botoa emateko eskatu dute: "Batak zein besteak gobernatu, pentsioak defendatu"

J.B. BERGARA

Bergarako erretiratuen eta pentsionisten biltzarra beste astelehen goiz batez elkartu zen San Martin plazan, "pentsio duinak" aldarrikatzeko.

Asteroko aldarrikapenaz harago, asteleheneko biltzarrean bertan hartutako erabaki baten berri eman dute ohar bidez: "Hauteskunde atarian sarturik gauden honetan, irmo esan nahi dugu gure aldarrikapenak lortu arte ez dugula etsiko. Astelehenero elkarretaratzeak egiten jarraituko dugula, oraingo eta etorkizunerako erretiratuek eta pentsiodunek duintasunez bizi ahal izateko. Horregatik, dei egiten diegu erretiratuei eta pentsiodunei gure aldarrikapenekin bat egiten duten alderdiei botoa ematera. Batak zein besteak gobernatu, pentsioak defendatu egin behar direlako!".

Pentsionisten protesta, astelehenean. I.U.

Manifestazioa Donostian, bihar

Bihar, apirilak 13, manifestazioa egingo da Donostiako Alderdi Eder parketik irtenda, 17:00etan. Manifestazioarekin bat egin du Bergarako biltzarrak eta eragileei zein norbanakoei bertaratzeko dei egin die.

Preso gaixoen askatasun eske

Apirilaren 7a Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zela-eta, Gure Artera-Sarek herriko zubi gehienak aldarrikapenerako gune bihurtu zituen larriki gaixo dauden euskal presoen etxeratzea eskatzeko. Gogora ekarri zuten egun espetxean dauden 265 euskal presoetatik 20 larriki gaixo daudela. "Guztion ardura da bizi duten muturreko egoera", adierazi dute.

GURE ARTERA-SARE

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UGARTE
AROZTEGIA · ALTZARIAK
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
21 K KALITATEA

Doako wifi librea martxan herriko zortzi puntutan

Angiozarren, Osintxun, udaletxeko Bergararren Arreta Zerbitzuan, Agorrosinen, Labegaraietan, Fraiskozurin, Oxirondon eta Boluko frontoian jarri ditu Udalak Internetera doan eta "modu pribatuan eta seguruan" konektatzeko puntuak

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko zortzi puntutan jarri du Udalak doako wifi librea: Osintxun, Angiozarren, udaletxeko Bergararren Arreta Zerbitzuan, Agorrosinen, Labegaraietan, Fraiskozurin, Oxirondo azokan eta Boluko frontoian. Landa-auzoetara ere zabaldu gura zuen Gobernuak ekimena eta Angiozar eta Osintxu aukeratu ditu, biztanle gehien dituen auzoak direlako. Zortzi puntutan abiatu dute ekimena, baina herritarren artean harrera ona izaten badu puntu gehiagotara zabaltzeko asmoa du Gobernuak.

Lete eta Azkarate Angiozarren, wifira konektatzen –atzeko plaka zuria–. J. BEREZIARTUA

450 euroko kostua hileko

Lehiaketa publikoa Euskaltel enpresak irabazi zuen eta bi urteko kontratu sinatu du Udalarekin –luzatu egin daiteke–; bi urte hauetan Udalak 450,23 euro ordainduko dizkio hilero Euskalteli –BEZa barne–. Wifira konektatzeko modua "oso erraza" da, eta mugikorrean edozein telefonia konpainiarekin funtzionatzen du, Sustapenerako zinegotzi Sabino Azkaratek argitu duenez.

Zer egin behar den konektatzeko? Bada, wifi plaka dagoen zortzi puntu horietako baten inguruan mugikorreko wifia aktibatu, udaletxearen argazkia duen webgunean posta elektronikoaren helbidea eta izena jarri, eta baldintzak onartu. "Argi laga gura dut Udalak ez duela sarbiderik izango konexio indibidualetarako, eta, beraz, pribatutasuna erabat bermatu dagoela. Trafiko fluxuak zenbatekoak diren jakiteko aukera izango dugu, herritarren artean nolako harrera izaten ari den neurtu gura dugulako, baina konexio indibidualak erabat pribatuak eta seguruak izango dira. Konfiantza osoz erabili ahalko da", gaineratu du zinegotzi jeltzaleak.

Kohesiorako "oso garrantzitsua"

Elena Lete alkatearen ustez, ekimen "oso garrantzitsua" da lurraldearen kohesiorako: "Konpromisoa hartu genuen doako wifi librea jartzeko, ulertzen genuelako lurralde kohesiorako oso garrantzitsua dela. Gaur egun, ezinbestekoa da sareko beharrei teknologikoki erantzun bat ematea, eta horregatik abiatu genuen bide hau".

EUSKALTELEKIN BI URTERAKO SINATU DU UDALAK ETA HILEKO KOSTUA 450 EURO DA, BEZ-A BARNE

Makina hondeatzailea Beheko kalean lanean, atzo eguerdian. JOKIN BEREZIARTUA

Abiatu dira Beheko kaleko lanak

Martxo amaieran abiatu ziren Beheko kalea berriro urbanizatzeko lanak, eta, dena ondo bidean, uda hasierarako amaituta egongo dira. Lanok Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu dizkio Udalak, 110.139 eurotan; Jaurlaritzak 42.000 euroko dirulaguntza eman zion Udalari.

MARIAREN LAGUNDIA

Herbehereetan, elkartrukerako

Mariaren Lagundiko 36 ikasle eta hiru irakasle Herbehereetako Warnsveld herrian egon ziren martxoaren 23tik 30era, hango familien etxeetan ostatu hartuta. "Harrera ezin hobea egin digute. Gure ikasleentzat onuragarria izan da beste kultura bat ezagutzea, eta elkarbizitza sustatzeko eta harremanak sendotzeko aukera ere izan dute. Esperientzia ahaztezina izan da, ikasleen garapen pertsonalean eta integralean lagundu duena". Elkartrukerako ekimena izan da; herbeheretarrak irailaren 30etik urriaren 4ra egon ziren Bergaran.

OHARRAK

EH Bilduren hautagai zerrendaren aurkezpena

Gaur egingo dute maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaitzaren eta programaren aurkezpena, Muniben (20:00): "Programa ezagutzeaz gain, hautagaiei harrera beroa egin eta hauteskundeak irabazteko indarrak hartzeko zita izango da".

Hautesle-errolda erakusgai hilaren 15era arte

Maiatzaren 26ko hauteskundeetarako hautesle-errolda ikusgai dago hilaren 15era arte, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten.

Mugikortasun diagnostikorako inkesten zozketa

Inkestak 210 herritarrek bete zituzten eta Paula Larrañaga eta Gurutze Lete izan dira irabazleak; 150 euroko bonu bana jaso dute.

Erretzeari uzteko ikastaroa, taldean

Maiatzaren 6an hasiko da, doan; izen-ematea, osasun zentroan.

Askotariko ikastaroak Bizikasiren eskutik

Mindfulness ikastaroa, mugikorrarekin edo ordenagailuarekin bideoak modu erraz baten nola egin ikasteko tailerra eta sukaldaritza osasuntsuaren gaineko saioa izango dira maiatzean zehar. Izena emateko: 943 76 93 94 edo *info@bizikasi.com*.

Bergarako eskubaloi talde nagusia, zaleekin batera, Urnietako partidua berdindu eta gero. SORALUCE BKE

Igoera fasea jokatuko du Soraluce Bergarak

Azken hamar partiduetatik zazpi irabazi eta beste bat berdindu eta gero, Soraluce BKEk urte hasieran aurreikusten ez zuen helburua bete du: igoera faserako sailkatzea. Hilabete izango dute jokalariak errekuperatu eta azken txanpa ondo prestatzeko

Xabier Urzelai BERGARA

Ligako azken partiduko azken segundoetan lortu du Soraluce BKEk igoera faserako sailkatzea, Gipuzkoako txapelketan laugarren postuan sailkatu eta gero: "Berdinketaren gola [21-21] partidua amaitzeko hogei segundo falta zirela lortu genuen, eta partiduaren azken jaurtiketan Urnietak ez zuen atera asmatu", adierazi du Josetxo Muniategik. Parekatua izan zen partidu hasiera, baina ondoren Urnietak abantaila polita hartu zuen (15-9). Mahoneroek, baina, ez zuten amorerik eman eta alde hori txikitzen joan ziren, defentsan hobetuta eta ate aurrean gehiago asmatuta, azken segundoetan partidua berdindu eta azken jokaldia ondo defendatu eta gero.

Laugarren sailkatzeko lehian

Bergararrak puntu beharrean joan ziren Urnietara, laugarren postuagatik borroka estua zuten-eta Eibarko Haritzarekin batera –bi taldeek amaitu dute 26na punturekin–. Talde horrek ez zuen Elgoibarren kontra barkatu (26-22) eta horrek mahoneroen partidua baldintzatzen zuen, derrigorrez behar zuten-eta, gutxienez, puntu bat. Eta baita lortu ere: "Urnietara partidua ikustera gerturatu ziren Bergarako zaleei eskerrak eman gura dizkiegu".

Sei talderen arteko lehia

Hori horrela, Munttarpe, Legazpi, Urnieta eta Soraluce Bergara sailkatu dira Gipuzkoako multzoan. Arabako ordezkaririk ez da egongo igoera fasean, eta Bizkaitik beste bi ordezkari egongo dira: "Oraingo asteburuan jakingo dugu Bizkaiko ze talde egongo diren fasean". Hala, apirilaren 27ko eta 28ko asteburutik aurrera mahoneroek beste bost jardunaldi izango dituzte ametsagatik borrokatzeko.

GIPUZKOAKO LAU TALDE ETA BIZKAIKO BI IZANGO DIRA LEHIAN IGOERA FASEAN

"Taldearendako opari ederra da fasean egotea"

JOSETXO MUNIATEGI
ENTRENATZAILEA

GOIENA

Bergarako taldeari beste bost astez –gutxienez– luzatuko zaio denboraldia. Apiril amaieran hasiko dute fasea.

Ez zenuten halakorik espero.

Ez; urteko helburua iaz baino hobeto ibiltzea zen, larritasun barik. Duela bost aste jabetu ginen posible zela lau onenen artean sailkatzea.

Taldeko ordezkariek lanean jarraitu beharko dute.

Bai; astoetan ondo estutu ditugu, gainera. Asko justu samar daude, min hartutakoak ditugu... baina ilusio handiarekin ekingo diogu faseari; hilabete dugu egindako esfortzutik errekuperatzeko.

Ederra izango litzateke bailarako hiru ordezkari izatea Euskadiko Txapelketan.

Ba, bai, baina oraindik urrun ikusten dugu hori; kar, kar.

Jostailugilea ipuin musikatua antzeztu zuten musika eta mugimendu tailerreko ikasleek. IMANOL SORIANO

Antzokiak beteta eta antolatzaileak "pozik"

'Apirilean musika' ekimenaren barruan hainbat ekitaldi egin zituzten joan zen astean; Musika Eskola dago ekimenaren atzean, eta, Marije Ugalde zuzendariak azaldu duenez, "oso gustura" geratu dira ekitaldi guztiek izan duten harrerarekin

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA

Apirila aurrera doa, eta berarekin batera baita *Apirilean musika* ekimena ere. Martxa onean, gainera, Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu duenez. Musikagintzaren askotariko aurpegiak eta gaiak ezagutzera emateko balio du ekimenak, eta ikasgeletan egindako lanaren erakusleiho ere bada.

Aurrera begira jarrita, zapatuan izango dute musikariek hurrengo ekitaldia: tradizioari eutsiz, dantzariak, trikitilariak eta perkusio ikasleak Erramu Zapatuko kalejiran irtengo dira, 11:00etan.

Elkartrukearen bigarren zatia

Musika Eskolako bandak eta orkestrak elkartrukearen bigarren zatia gauzatuko dute apirilaren 27an, Pazko asteko zapatuan. Segorbeko eta Mislatako musika eskoletako bandak eta orkestrak izango dira Bergaran –bergararrak martxoaren 8tik 10era izan ziren Valentzian–. 19:00etan izango da emanaldia, Santa Marina elizan. "Bakoitzak bere programa eskainiko du, eta kontzertu amaieran elkarrekin joko dugu piezaren bat", dio Ugaldek.

Bi ekitaldi horiek aurrera begira jarritakoak dira, baina, atzera begira jarrita, eskaintza zabala eta oparoa izan da. "Orain arteko ekitaldiak oso ondo joan dira, jende asko etorri da kontzertuetara", azaldu du Ugaldek.

'Jostailugilea'

Musika eta mugimendu tailerreko ikasleek eta Begigatze gitarra taldeak Josu Elberdinen *Jostailugilea* ipuin musikatua antzeztu zuten, egubakoitzean. "Txikienek parten hartu zuten, 14 ikaslek, eta, gitarraren laguntzarekin, ikuskizun polita eskaini zuten", azaldu du Ugaldek. Zabalotegin izan zen emanaldia eta aretoa bete egin zen.

Egubakoitzean bertan, beste hiru ekitaldi ere egin zituzten. Barakaldoko Boris Bringas *beatboxer*-ak aho zabalik utzi zituen musika eskolan eskaini zuen ikastarora joan ziren hamabost lagunak; ordu eta erdiko saioan, gorputzarekin musika egiteko teknika irakatsi zien. "Oso gustura eta pozik izan ziren guztiak, eta, horrelako gehiago antolatzeko gogoa adierazi zigutenez, errepikatzeko modukoa izan daiteke", gaineratu du Marije Ugaldek.

Une berean, eskolako beste gela batean, Fernando Camachok, besteak beste Euskadiko Orkestrako musika tresnak konpontzen dituen adituak, metalezko musika tresnak zaintzeko aholku interesgarriak eskaini zituen: "Camacho erreferente dela esan daiteke metalezko musika tresnen ezagutzan. 20:30ak arte izan zen Musika Eskolan ikastaroa eskaintzen", dio Ugaldek. Ikasleak "oso gustura" egon zirela gaineratu du zuzendariak.

Kantu ikasleen emanaldia

Kantu ikasleek *backstage*-a erakusteko aprobetxatu zuten emanaldia. Seminarixoan eskaini zuten kontzertua eta aretoa bete egin zen. "Ikusleak sarrera nagusitik sartu beharrean ezkerreko atetik sartu ziren; modu horretan, atzetik, oholtza pasata sartu ziren jarlekuetara", dio Ugaldek. Izan ere, emanaldiaren helburuetako bat kontzertuen atzealdean gertatzen dena ezagutzera ematea izan zen. Agertokia bera bi zatitan banatu zuten: alde batean pianoa zegoen, eta abesten zuten lekua; eta bestea *backstage*-a zen.

Suzuki ikasleen emanaldiak eta gitarra taldeen topaketak ere "harrera oso ona" izan zuten herritarren aldetik.

Bandaren kontzertu didaktikoa

Haur eta gazteei zuzendutako kontzertua egin zuen Musika Bandak frontoian. Enrike Txurruka bandako zuzendariordeak zuzendu zuen emanaldia, eta Igor Larrañagak aurkeztu.

Ezohiko kontzertua izan zen musikarientzako, errepertorioari eta jotzeko moduari begiratuta: haurrek ezagutzen eta gustuko dituzten kantuak eskaini zituzten, kantuen artean azalpenak emanez, eta pieza batzuk jotzen zituzten bitartean, jarlekuetan beharrean, ikusle gazteak alboan zituztela; amaitutakoan, musika tresnak probatzeko aukera ere izan zuten hara joan ziren gaztetxoek.

BANDAREN SAIOAN, GAZTETXOEK MUSIKA TRESNAK PROBATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN

'Vera la soñadora' liburua aurkeztuko du Usoa Mendikutek

Apirilaren 25ean izango da aurkezpena, 19:00etan, Irizar jauregian; gaztelerazko bertsioa aurkeztuko du

A.E. BERGARA

Usoa Mendikute ilustratzaile bergararrak *Vera la soñadora* haurrendako liburua argitaratu zuen joan zen urteko azaroan: hala, apirilaren 25ean, Irizar jauregian aurkeztuko du.

Sardiniako Cinzia Tuveri idazlearekin elkarlanean egindako lana da *Vera la soñadora*. 2017ko ekainean argitaratu zuten liburua; orduko hartan, italieraz, *Vera Mongolfiera*, 4 eta 7 urte bitarteko irakurleendako.

Lehenengo edizioak izan zuen harrera ona ikusita, gaztelerazko bertsioa egitea erabaki zuten, eta euskarazkoa ere badute buruan. Gaztelerazko bertsioa argitaratu dute Sevillako Babidi-Bu argitaletxearekin; gainera, bost urterako kontratua sinatu dute eta epe horretan ezingo dute beste argitaletxe batekin liburu hori argitaratu. Argitaletxetik esan diete beste argitaletxe batzuekin negoziatuko dutela beste hizkuntza batzuetan argitaratu ahal izateko.

Aste Santu ostean, haurren eta nagusien ipuin kontaketak

Bi ipuin kontaketa egingo dituzte apirilean. Haurren saioa apirilaren 29an izango da, astelehena, 18:00etan, Osintxuko liburutegian. Ixabel Agirresarobe izango da ipuin kontalaria. Nagusiena, aldiz, apirilaren 30ean izango da, martitzena, 19:00etan, Udal Liburutegian. Nagusien saioa Amaia Arriaran kontalariak gidatuko du.

'Los dioses deben de estar locos' eskainiko dute zineklubean

Kartzela zaharreko Dynamo zineklubean eskainiko dute filma eguaztenean, 21:00etan. *Los dioses deben de estar locos* filma Jamie Uys-ek zuzendu zuen, 1980an. Komedia bat da, eta kontatzen du Botswanako boskimano tribu baten istorioa: Cocacola lata bat eroriko zaie hegazkin batetik eta Jainkoen *opari* bat dela pentsatuko dute

Klika

KORRIKARAKO GERTU? EGIN KLIKA GOIENAN

JARRAIPEN BEREZIA ETA UNEOROKOA

APIRILAREN 14AN, DOMEKAN, AMAIERA EKITALDIA GASTEIZTIK ZUZENEAN, GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS-EN: 11:30EAN HASI ETA 13:00AK ARTE.

APIRILAREN 14AN, DEBAGOIENEAN KORRIKA SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS-EN, 22:00ETAN.

KORRIKAK DEBAGOIENEAN BARRENA ZAPATUAN ETA DOMEKAN, 13AN ETA 14AN, EMANDAKOA, BIDEOAK ETA ARGAZKIAK, GOIENA.EUS-EN.

KORRIKAK DEBAGOIENEAN BARRENA ASTEBURUAN EMANDAKOA ETA GASTEIZKO AMAIERA EKITALDIAREN GAINEKO KRONIKAK, BALORAZIOAK, ARGAZKIAK ETA BESTE GOIENA ALDIZKARIAN APIRILAREN 17AN.

BABESLEA: MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S COOP

Goi Mailako
HEZIKETA ZIKLOAK
2019-2020
lanerako gertu!

goiena
Zu hemen zaude.

EH Bilduk maiatzeko hauteskundeetara aurkeztu duen lantaldea. EH BILDU

"Oso talde indartsua" aurkeztu du EH Bilduk

EH Bilduk maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztuko duen taldea "aditua, plurala eta lanerako gogoarekin dagoena" dela adierazi du Izaro Elorza alkategaiak. 20 laguneko zerrenda eta lau zutabetan oinarritzen den programa aurkeztu du

Oihana Elortza OÑATI

Maiatzeko hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrenda eta programa aurkeztu du EH Bilduk. Izaro Elorza izango da alkategaia eta harekin batera taldea nortzuek osatuko duten eta zein programa defendatuko duten erakutsi zuten gaztelekuan egindako aurkezpenean.

Zutabeak

Izaro Elorza alkategaiak berak egin zuen taldearen aurkezpena, taldekideak ondoan zituela. Pozik zegoela aitortu zuen: "Hasieratik zen gure asmoa talde aditua, plurala eta lanerako gogoarekin dagoena osatzea. Eta uste dut, duda barik, lortu dugula. Nik uste dut oso talde indartsua dugula, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest gaudela".

Eta talde horrek datorren agintaldiko hauteskundeetara zein programa eramango duen ere azaldu zuen EH Bilduko alkategaiak. Harittu prozesuaren bidez azken urtean landu duten programa izango dela aurreratu zuen, eta lau zutabetan oinarrituko dela: pertsona lehenetsiko duen jendartea, askatasuna ardatz izango duen jendartea, bere kultura sustatuko duen jendartea bultzatzea eta bizi ohitura jasangarrien eta natur baliabideen ustiapen arduratsuaz arduratuko dena.

Azken urteetan EH Bilduk egindako lanari dagokionez, "balio aurrerakoietan oinarritutako herrigintza" egitea posible dela erakutsi duela gainera-tu zuen Elorzak. Emakume den aldetik, "gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko alternatiba bakarra EH Bildu" dela argi duela esan zuen. "Politika publikoak aldatzetik hasi behar dugu esparru guztian hau benetako errealitatea izateko".

Izagirre eta Iriarte

Programaren eta zerrendaren aurkezpen ekitaldian, Juan Karlos Izagirrek, Gipuzkoako ahaldungai nagusiak, parte hartu zuen. Aurretik, herriko hainbat proiektu ezagutzeko aukera izan zuen: Eltzia, merkatua eta eskola kirola, esaterako. Eta adierazi zuen eredugarriak direla beste herri batzuetan eta herrialdean aplikatzeko.

Legebiltzarreko bozeramaile Maddalen Iriartek ere hartu zuen hitza zapatuko aurkezpenean. Apirilaren 28an izango diren Espainiako hauteskundeetan "hutsik ez egiteko" eskatu zien bertaratuei.

Zerrenda, alfabetikoki

Lehena EH Bilduren alkategaia da. Gainerako kideak alfabetikoki daude ordenatuta.

Zerrendakideak

- Izaro Elorza Arregi.
- Ander Aberasturi Elkorobarrutia.
- Nerea Agirre Garcia.
- Susana Altuna Ugarte.
- Maite Anton Leno.
- Mertxe Arregi Erostarbe.
- Mikel Biain Berraondo.
- Jose Luis Fernandez Maure.
- Amaia Goitia Añorga.
- Karmelo Guridi Gallastegi.
- Xabier Igartua Loidi.
- Axier Iraeta Izagirre.
- Alaitz Kortabarria Igartua.
- Iñaki Olalde Altzelai.
- Iker Oñate Aiastui.
- Aritza Rueda Gonzalez.
- Lurdes Ugarte Alzola.
- Santi Ugarte Maiztegi.
- Bixente Urrutia Elexpuru.
- Anik Zubizarreta Arturo.

Oharra: Zerrenda ordenatuta aurrerago jakinaraziko dutela adierazi du EH Bilduk.

"Herritarrei esker" helduko da bihar Korrika Oñatira

Gaur arratsaldean, Korrika Txikia egingo dute LHko ikasleek herri barruan, musikak lagunduta

O.E. OÑATI

Udana gainera 11:30ean helduko da bihar Korrika eta goitik behera, korrika, herri erditik pasa eta Elorregirako bidea hartuko du, Zubillaga barrutik zeharkatuta. Goizetik girotuko dituzte herriko kaleak Korrika handiari ongietorria egiteko.

Lekukoaren eramaileak

Guztira, hamabost kilometro zenbatu ditu Korrikak Oñatin eta 30 herri eragileren artean egingo dituzte. Hauek dira lekukoa eramango duten taldeak: Tatarraz, Txanda, EAJ, Joxely, Bizipoz, Goiena, Antxintxiketan-Abixaran, Bildu, MU, Musika Eskola, Oñatz, Urgain, Txantxiku ikastolako langileak, Eltzia, gaztetxea, Elkar Hezi, ikastolako ikasleak, Euskaraldia, Lagun Leku, bideoklika irabazleak, Chinchurreta, Lana, Fagor, Ulma Fundazioa, Artzain Txakurra, Makalena, Erakunde Sanitario Integratua, Udala, Ulmako langileak eta Goma2.

Korrikak herria zeharkatu ostean egingo dute herri bazkaria, Antixena gaztetxean. Txartelak Arrano eta Ona tabernetan eros daitezke oraindik.

Lehen Hezkuntzako ikasleek gaur, egubakoitza, egingo dute Korrika Txikia. Plazatik Etxaluzeko iturri bitarteko tartean Txantxiku ikastolako ikasleek eramango dute lekukoa; handik Santa Marina plazara Elkar Hezikoek eta handik plazara Urgain Errekaldekoek. Sei bira egingo dituzte guztira, musikak lagunduta.

Debagoieneko Korrikako koordinatzaileak, Josu Zubiak, eskerrak eman gura dizkie, lerro hauen bidez, batzordean parte hartu duten eragileei: "Lan ikaragarria egin dute. Baita herria girotzen eta ekitaldietan parte hartu dutenei ere. Herritar guztiei eskerrak. Abestiak dioen moduan, zuek gabe ez zen posible izango".

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Aterkia ez ahazteko burutapena

Patinetean bai, baina aterkiaren beharra ere bai, tarteka. Eta zer egin bata edo bestea kalean utzi barik etxera ez bueltatzeko? Ba, biak elkarren ondoan *aparkatu*.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Ainhoa Galdos, eguazten iluntzean egindako ekitaldian, babesa eman dioten herritar talde bat atzean duela. IMANOL BELOKI

"Herria berriz martxan" jarri gura du EAJk

Oñatik "lozorroan" ezin duela geratu adierazi du Ainhoa Galdos EAJko alkategaiak astean egindako ekitaldian: "Berriz martxan jarri behar dugu herria, erabakitasunez eta proiektu sendo batekin". Herritarrak, Egibar eta Olano izan ditu ondoan Galdosek

Oihana Elortza OÑATI

Oñatin "lozorroan" ezin duela geratu adierazi zuen Ainhoa Galdosek, alkategai jeltzaleak, eta "aldaketaren aldeko hautua" egitera deitu zituen oñatiarrak: "Ordua da EAJk berriz lekukoa hartu eta alkatetzan Oñatirendako proiektu sendo baten gidaritza hartzeko".

Eguazten iluntzean MUk Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean egin zituen adierazpenak, hainbat herritarren aurrean. Ondoan zituen, era berean, Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar eta Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaia.

Programa lantzen

Hautagai gisa "proiektu handi baten parten izan eta ekarpena egiteko" aukera sentitzen duela gaineratu zuen ekitaldian Galdosek, "eredu argi batean oinarritutako proiektuan: ekonomia sendo baten aldeko apustua, gizarte zerbitzuak eta ongizatea bermatuko dituena; alegia, EAJren eredua".

Maiatzeko hauteskundeetarako EAJk aurkeztuko duen programa lantzen ari direla esan zuen alkategai jeltzaleak, baina zein proiektu nahi duten badakitela aurreratu zuen: "Bizi kalitatea, inguru garbi eta atsegin batean, adin guztietarako Oñati, irisgarria eta guztiok kontuan hartuko gaituena".

Azken bi agintaldietan oposizioan egindako lanari buruz, "jarrera ireki eta kolaboratzailea" izan zuela esan zuen Ainhoa Galdosek eguazteneko ekitaldian, eta hauxe gaineratu zuen EH Bilduk gobernatzeko izan duen moduaz: "EH Bildu majo aprobetxatu da jasotako herentziaz, eroso egin dute lan, baina denbora ez da alferrik pasatzen eta ezker abertzaleak herri honetarako duen apustu eta anbizio falta gero eta nabarmenagoa da, eta begi-bistakoa da lekuko aldaketa baterako garaia iritsi dela".

OPOSIZIOAREKIKO JARRERA "IREKIA ETA KOLABORATZAILEA" IZAN DELA ESAN DU GALDOSEK

Egibar eta Olano

Herritarren aurrean hitz egin zuen Ainhoa Galdosek, atzean babesa adierazi zion herritar talde bat zuela; tartean, egun zinegotzi direnetako hainbat, izan direnetako batzuk eta aurreko hauteskundeetako zerrendetan aurkeztu izan diren herritar batzuk.

Markel Olanok adierazi zuen "Gipuzkoa sendoagoa" lortu dela "kudeaketa zorrotz, eraginkor eta jasangarria" eginez. Eta Joseba Egibarrek ere kudeaketa ereduak garrantzia duela esan zuen, hauteskundeetako "klabea" hori izango dela gaineratuz, "han eta hemen, Oñati, Madrilen edo Bruselan".

Zortzi tona pasa batu dituzte Greziako errefuxiatuendako

Hotz Oñatik aurreko asteburuan egindako produktu bilketan 8.075 kilo batu dituzte, iaz baino %28 gehiago

O.E. OÑATI

Oso pozik dago Hotz Oñati elkartea aurreko asteburuan egindako produktuen bilketan batutako kopuruarekin. Janari eta higieneko produktuen artean, ia zortzi tona batu zituen, 8.075 kilo guztira. "Herritarrek oso ondo erantzun dute beste behin, elkartasun handia erakutsi dute orain ere. Oso pozik gaude".

Herriko bost supermerkatuetan egin zuten elikagai eta higiene produktuen bilketa hiru egunez. Ia 100 herritar ibili ziren hori antolatzen: dendetako bilketa zuzenean bideratzen, batutakoa garraiatzen eta almazenean egoki jasotzen, besteak beste. Hotz Oñatik eta Hermansoloña elkarteek koordinatu zuten lana eta herritar askoren laguntza izan zuten, tartea Larrañako hainbat lagun eta baita parrokiako misio taldeko saharararrak.

Jasotako guztia Zaporeak elkarteak Irunen duen biltegira eraman zuten Oñatitik eguaztenean eta handik koordinatuko dituzte Greziarako bidalketak. Hango errefuxiatuendako izango da batutako guztia.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots datoz bihar kiroldegira

Txantxiku Ikastolaren astearen barruan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak datoz bihar, zapatua, Zubikoara. *Musua* ikuskizunaren bi emanaldi egingo dituzte: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak ikastolako idazkaritzan edo Txokolateixian eros daitezke, zortzi eurotan. Gaur, egubakoitza, ikasleen eguna ospatuko dute ikastolan.

Hautesle zerrendak astelehenera arte egongo dira ikusgai

Maiatzaren 26an egingo diren Europako, Aldundiko eta udaleko hauteskundeetako hautesle zerrenda ikusgai dago dagoeneko HAZ bulegoan; astelehenera arte egongo da ikusteko moduan. Hauteskunde horietan mahaietan egongo diren presidente eta bokalen zozketa HAZen egingo dute apirilaren 27tik maiatzaren 1a bitartean.

NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Harrotasuna

Harro egoteko arrazoirik ez dugu sarri izaten. Beharbada, inoiz ez. Hitz hau erabiltzean bereizi behar da nori edo zeri buruz ari garen. Pertsona harroak ez dira inoren gustukoak izaten.

Baina bere zentzu hoberenean erabilita, gai mota eta ingurunea kontuan hartuz gero, ez da eragozpenik izaten edozein harrotasun onartzeko. Badu bere parte oso positiboa. Gaitasun, ezaugarri horri esker, pertsonok, herritarrok ahalegintzen gara geure bizitza, geure herriak hobetzen. Sentimendu horrek, besteak beste, laguntzen du gizartearen aurrerabidean. Baina, zoritxarrez, harrotasun hori ezin dugu ageri gai guztietan. Eta horietako bat, oso garrantzitsua, euskararen erabilera da. Herri gutxi izango dira euskararen erabileraz harro sentituko direnak. Denok ezagutzen ditugu dauden zailtasunak, oztopoak. Baina geure eskuetan dauden bideak ez ditugu erabiltzen. Bere neurriko herrien artean, Oñati izan daiteke salbuespena. Nahiz eta kanpotarrak ugaritzen ari diren, euskararen erabilera nahiko ondo mantentzen dela esan daiteke.

Antonio Guerra eta Elisa Gallego artisten erakusketa gaur zabalduko dute, Gandiaga Topagunean. E.A.

Argazkilaritzak mugarik ez duela erakutsi nahian

Antonio Guerraren eta Elisa Gallegoren erakusketa inauguratuko dute egubakoitzean Gandiaga Topagunean, 19:00etan. "Argazkilaritzatik harago" doan erakusketa izango da, "bi obraren arteko elkarrizketa" islatzen duena, eta hilabetez egongo da zabalik

Eneko Azurmendi OÑATI

Argi festibala bigarren asteburuan sartzera doa, eta ezohiko erakusketa baten inaugurazioa izango da horren lekuko. Arantzazuko paisaia izango da erakusketaren ardatza: "Paisaiari buruzko erakusketa klasiko batetik harago doa hau. Guk diogu paisaiak paretatik atera egiten direla, eskulturaren laguntzarekin", azaldu du Gallegok. "Proiektu berri bat daukat, Arantzazuko paisaiari erreferentzia egiten diona. Oñatin material bila ibili naiz, hemengo paisaia ahalik eta ondoen islatzeko. Antoniorena, berriz, lehenagoko obra bat da, hemengo paisaiara egokitu duena", gaineratu du.

Paisaia "begiradarekin" eraikitzen da, Gallegoren esanetan, eta erakusketa hau "kontzeptuaren gaineko hausnarketa bat da, azken finean".

Antonio Guerraren obrari dagokionez, "paisaiaren transformazio prozesua" lantzen du, "irudiaren bitartez". Horretarako, hainbat formatu erabili dituela dio. "Argazkiak, eskulturak, instalakuntzak... Era berean, paisaiaren transformazio hori argazkiaren transformazioarekin lotzea ere gura izan dut".

Erakusketa honen helburuetako bat da "ikuslea identifikatuta sentitzea inguruan daukagun paisaiarekin".

Deialdi ireki baten ondorioz

Ilunpetan Argazki Taldeak elkarlanean aritu izan da aurreko edizioetan ere Arantzazu Gaur fundazioarekin, eta formatu ezberdinak landu izan dituzte. "Aurtengoari dagokionez, deialdi ireki bat egin genuen lan batzuk aukeratzeko. Bi pertsona aukeratu gura genituen, euren lanetan oinarrituta, eta saria izan da 15 eguneko egonaldi artistiko batean bien lanak bateratzea eta erakusketa bikoitz baterako lanketa bat egitea", azaldu du Itziar Baztarrikak, Ilunpetaneko kideak. "Hala, bi astez buru-belarri lanean aritu dira biak. Zoriondu egin behar ditugu, lan izugarria egin dutelako. Haiek ere oso gustura aritu dira, jende askorekin harremanetan jarriz".

BOOKJOCKEY SAIOA ESKAINIKO DU DANIEL GARCIA VALEROK BIHAR, UDALETXEKO ARKUPEAN

Bookjockey saioa

Iaztik hona errepikatuko den ekintzetako bat bookjockeya izango da. "Argazkilaritzara gerturatzeko beste modu bat da hau. Oso arina, freskoa eta atsegina", dio Baztarrikak. "Daniel Garcia Valero etorriko da, Madrilen bizi den bergararra. *V de Bergara* lana aurkeztuko du. Berarentzat erreferentzia izan diren lanekin istorio kontakizun bat egingo du eta bukatuko du bere lan propio hori aurkezten". Bihar, 22:00etan, kontzejupean.

Bihar jokatuko dute Txinparta Bertsolari Txapelketako finala

Sei bertsolari ariko dira lehian gaztelekuan, 18:00etan hasita; txapelketaren zortzigarren edizioa da aurtengoa

E.A. OÑATI

Andoni Goitia, Joseba Lasagabaster, Urko Egaña, Urko Arregi, Egoitz Aizpuru eta Beñat Alberdi izango dira txapelaren bila oholtza gainera igoko diren sei bertsolariak. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Mirari Sagarzazu eta Egoitz Atxaga ariko dira.

Gaiak herritarrek proposatutakoak izango dira. Izan ere, txapelketa hasi zenetik apirileko lehen asteburura bitartean gai kutxak egon dira hainbat tabernatan, herritarrek finalerako gai proposamenak aurkeztu zitzaten. Gai-jartzaile taldeak bildu, landu eta egokitu egin ditu proposamenok, biharko saioan bertsolariei planteatzeko.

17:30ean zabalduko dituzte gaztelekuko ateak eta saioa 18:00etan hasiko da. Gainera, saioak irauten duen bitartean, barra irekita egongo da.

Elkarlana herriko eragileekin

Herriko eragileen arteko elkarlana bultzatu dute, eta banatuko diren sari guztiak Oñatiko artisau, ekoizle edo Eltziako kideek sortu eta ekoitzitakoak izango dira. Hala, bertsolariek jasoko dituzten sariez gain, gaiak proposatu dituztenen artean ere zozketa egingo dute.

Txapela, Xabier San Miguelek

Txapela jartzeko ardura Xabier San Miguel Oñatiko Bertso Eskolaren sortzaileetako bati ematea erabaki dute, "urte luzez bertso eskolaren alde eta herriko bertsozaletasuna bultzatuz egin duen lanaren aitortza gisa".

Zortzigarren txapela izango da. Aurrez, Andoni Goitiak, Maider Arregik, Joseba Lasagabasterrek, Josu Igartuak, Andres Kortabarriak –bi aldiz– eta Rufino Alkortak jantzi dute.

Itxaron egin beharko du Construcciones Ugarte Aloña Mendik

Hasiera batean, behintzat, beste urtebetez jarraituko du Euskal Ligan Construcciones Ugarte Aloña Mendik.

Ioritz Agirianok zuzentzen duen taldeak pasa den asteburuan jokatu zuen azken jardunaldia, eta partidu garrantzitsua zen, gainera, Urdaibairen aurkakoa. Irabazi beharra zuten, baina ezin izan zuten garaipena lortu.

Hala, bederatzigarren postuan bukatu dute liga –hamabi talde daude–. Hasiera batean, Euskal Eskubaloi Federazioak jakinarazi zuen lau talde izan zitezkeela maila galduko zutenak, baina, oraingoz, ez dago ezer erabakita. Igoera fasea jokatuko dute ligako lehen bost sailkatuek. Horrek eta goitik jaisten diren talde kopuruak baldintzatuko dute oñatiarren egoera.

Oraingoz, atseden hartuko dute asteburuan eta Aste Santu ostean kopa lehiatuko dute.

Igoera fasea jokatuko du Mekalki Aloña Mendik maiatzean

Pasa den asteburuan lortu zuten Aitor Ugareterenek igoera fasea jokatzeko txartela, Take Orbela Taberna talde tolosarrari 67-61 irabazita. Hiru jardunaldi geratzen dira liga erregularra amaitzeko eta bihar, Errotaundi Okidengia taldearen aurka jokatuko dute, 16:00etan, Azpeitian. Aipaturiko fasea, berriz, maiatzaren 18an hasiko dute.

Hileroko kontzertua emango du domekan musika bandak

Etzi, domeka, hileroko kontzertua eskainiko du Oñatiko musika bandak, 12:45ean, Santa Anan. Besteak beste, *Con garbo* pasodoblea eta *Clotilde de nevers* eta *La niña mimada* abestiak joko dituzte, baita hainbat abesti herrikoi; Nekazarien Elkarteari bals bat eskainiko diote. Hurrengo kontzertua Corpus egunean eskainiko dute, plazan.

5 IZARREKO udaberria Gorbeian

Lortu zure kupoia prezio bereziekin eta deskontuekin:

1 i'm lovin' it

1 McMenu®
McDonald's
soilik **4'90 €**

2 CINES GORBEIA ZINEMAK

Gehienez 3 sarrera
Gorbeia Zineman
bakoitza **4 €** -an

3 BIG KARTING

8 minutuko saioa
Big Karting
soilik **9'90 €**

4 KIDS' CITY

Kids' City
Haur parkea
Ordu erdia Doan

5 Burguer 3 zk. edo Gambrinus ogitartekoa + patata anoa ½ + freskagarria edo gargardoa

Gambrinus
soilik **6'90 €**

Kontsulta itzazu promozioaren oinarriak hemen:

Promozio hau indarrean izango da 2019ko apirilaren 10tik 28ra

centrocomercialgorbeia.com

Carrefour · i'm lovin' it · CINES GORBEIA ZINEMAK · BIG KARTING · Gambrinus · KIDS' CITY · GORBEIA

"Kostata lortzen denak balio handiagoa du"

BEÑAT REZUSTA BINAKAKO TXAPELDUNA

PILOTA Txapelaz gozatzeko astirik barik hasiko du buruz burukoa bergararrak: "Gerra ematen ahaleginduko gara, nahiz eta, guretako, txapelketa nagusia binakakoa den"

XABIER URZELAI ARRASATE

Domekan irabazitako txapelaz gozatzeko astirik barik, dagoeneko argitaratu dute buruz burukoan egongo direnen zerrenda. Eta bertan dago Beñat Rezusta. Aste hau atseden apur bat hartzeko baliatu du bergararrak, finalean "astindua" hartu zuten eta. *Harmailatik* saioan aitortu zuen biharamunean nekatuta bai, baina ajerik barik esnatu zela.

Txapela irabazi berri, ia atsedenik hartu barik hasiko duzue eskuz banakakoa. Hau ez da geratzen.

Ez da geratzen, ez. Entrenamendu saio batzuk egingo ditugu, aireko jokoa, errestoa... baina atzelariondako buruz burukoan dena aldatzen da. Aste gutxitan, ezinezkoa da aurrelariek urte osoan egiten duten jokora moldatzea, baina ahaleginduko gara gerra apur bat ematen.

Zuendako, binakakoa da txapelketa handia.

Duda barik; luzeena ere hori da, garrantzi handia ematen zaio, eta, niretako, txapelketa nagusia da.

Inork ez du txapel bat kasualitatez irabazten, baina bigarrena konfirmazio modukoa da.

Bueno... Txapelketan zehar izan ditugu gure gorabeherak, baina orokorrean ondo ikusi dut neure burua. Txapel bat lortzea gauza handia izan zen, eta bigarrena, zer esanik ez.

Beñat Rezusta. GOIENA

"ASTE GUTXITAN, EZIN DUGU AURRELARIEK URTE OSOAN EGITEN DUTEN JOKORA MOLDATU"

Txapelagatik pozik, baina baita egin zenuten partidu borobilagatik, ala?

Bai; batez ere, partidua bera zelan joan zen ikusita. Aurretik joan ginen, baina alde handirik hartu barik; lan handia egitea tokatu zen. Aurrera egiten genuenean, ostera ere gainera etortzen zitzaizkigun...

Zeure gertuko batek sare sozialetan idatzi zuen ospakizunetan inoiz ez zintuela horren pozik ikusi.

Egia da pozik geundela, bai. Gainera, Diman egin ziguten harrera oso polita izan zen, ondorengo afarian ederto egon ginen... Txapelketa zelan joan den ikusteak ere poz handia eman digu, kostata lortzen denak balio handiagoa du eta.

Etxekoen eta gertukoen babesarekin

Bergaratik zale kuadrilla polita joan zen Bilboko finala ikustera –bi autobuskada–. Eta Bergarako frontoian ere giro paregabea izan zen. Hala, txapela irabazita, Rezustak herrikide askorekin egin zituen erretratuak, "babesa eskertzeko". Dimako ospakizunen ondoren, Bergarara etorri zen: "Domeka zenez, ez genuen askorik luzatu".

Rezusta, partidu amaieran, gertukoekin egindako erretratuan GOIENA

Fagor Industrialek Zarautzen jokatuko du lauko finala bihar

ESKUBALOIA Finalerdian, Txikipolit zarauztarrak izango dituzte aurrean; domeka eguerdian izango da finala

Xabier Urzelai ARRASATE

Denboraldiko une politenaren aurrean dago Fagor Industrial. Liga osoan egindako lanari esker bosgarren sailkatu dira txantxikuak Euskadiko Txapelketan, eta postu horrek lauko finalerako txartela eman die Txikipolit Zarautz, Corazonistas eta Basauri taldeekin batera.

Hala, zarauztarrak ligan bigarren sailkatu zirenez, lauko finala etxean antolatzeko eskubidea zuten; hori horrela, Txikipolitekoak kantxa faktorea aprobetxatzen ahaleginduko dira bihar, zapatua (17:30), Oñatiko mutilen kontra: "Partidu bakarrera edozer gerta daitekeela ikusi dugu aurtengo ligan, eta asmo horrekin goaz Zarautzera, haginak estutzera", adierazi zuen Eneko Ugarte atezainak Ford Mugarriren kontrako derbia amaitu berritan (22-22).

Jon Irizar, jaurtiketarako gertu. GOIENA

Domekan, finala

Txikipoliten eta Ford Mugarriren (17:30) partiduaren ostean jokatuko dute Corazonistasek eta Basaurik (19:30); onenak domekako finalerako sailkatuko dira (12:30). Irabazlea maila nazionalerako faserako sailkatuko da.

Aloña Mendik hiru 'final' ditu goialdekoak gehiago estutzeko

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean, Bergarak jokatuko du etxean, bigarren dagoen Anaitasunaren etxean

X.U. ARRASATE

Ohorezko Erregionalean, Bergarak (38) eta Aretxabaletak (38) garaipen bat behar dute urtea lasai amaitzeko, eta poliki-poliki Mondrarekin (42) batera datorren urtean pentsatzen hasteko; hala, geratzen diren bost jardunaldiak aproposak izango dira gutxiago jokatu duten jokalarien artean minutuak banatu eta urtea borobiltzeko.

Bergarak bigarren postuan dagoen Anaitasunaren bisita izango du zapatuan eta Mondrak eta Aretxabaletak kanpoan jokatuko dute: Irunen arrasatearrek eta Zarautzen, berriz, aretxabaletarrek.

Aloñak mailaz igotzea du jokoan

Erregional Preferentean, saltsa polita dago mailaz igotzeko borrokan dabiltzan Urolaren (59), Lagun Onaken (57) eta Aloña Mendiren (56) artean. Oñatikoak Lagun Onaken kontra garaipen ederra eskuratzetik datoz (1-2) eta domekan ezingo dute Soraluzeren kontra hutsik egin. Hiru jardunaldi baino ez dira geratzen, eta azken jardunaldian Aloñak Urola hartuko du etxean.

Gaizka Zelaia baloiarekin. GOIENA

Iazko Arrasate-Udalatx lasterketaren lehenengo metroak, Arrasateko plazan. IMANOL SORIANO

Badatoz etzi Udalatx igoko duten korrikalariak

MENDI LASTERKETA Domekan (10:00) 350 korrikalarik hasiko dute Arrasate-Udalatx lasterketa. Azken edizioetako lasterkari onenak egongo dira irteera puntuan; tartean izango dira Aritz Egea, Aitor Ajuria, Oihana Azkorbebeitia eta Ane Zabala

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondraitz klubeko ordezkariek hainbat datu nabarmendu dituzte aste barruan egindako aurkezpen ekitaldian: "Ibilbideari dagokionez, ez da aldaketarik egongo, baldin eta azken orduan eguraldiak txarrera nabarmen egiten ez badu", adierazi zuen Eneko Urrizalkik: "Baina ez dugu halakorik espero". Hori horrela, lasterketak 21 kilometroko eta 1.250 metroko desnibel positiboari eutsiko dio: "Eta betiko ezaugarriak izango ditu: korrika azkar egiteko zatiak, behetik gorako aldapa gogorrak, harri arteko jaitsiera teknikoak... Lasterketa konpletoa da".

Eta distantzia hori 350 lagun ahaleginduko dira gainditzen, Iñigo Alzolak esan duenez: "Lau ordutan agortu ziren dortsalak, eta pena da; izan ere, azken orduko bajak itxarote-zerrendan zeudenekin osatzen joan garen arren, jendea kanpoan geratu da". Hala, lasterketan izango direnetako 200 korrikalari Debagoienekoak dira –119 arrasatear– eta, emakumezkoei dagokienez, iazko datu antzerakoa izango dugu: 27 korrikalari egongo dira lasterketan".

Azken urteotako irabazleak

Hain zuzen, lasterketaren bosgarren urteurren hau ospatzeko, Arrasateko plazan besoak altxa dituzten korrikalariak gonbidatu dituzte: "Denek ezin dute etorri, baina maila oso oneko korrikalariak izango ditugu; tartean, Euskal Selekzioko kideak. Salomon taldeko Aritz Egea, lasterketako errekorra duen Aitor Ajuria, Iban Letamendi, Hasan Ait Chaou...". Eta emakumezkoen artean ere oso maila oneko korrikalariak izango dira: "Hor izango ditugu Oihana Aizkorbebeitia, Maite Etxezarreta, maila ona erakusten dabilen Ainara Uribarren oñatiarra, iazko irabazle Ane Zabala arrasatearra, Isa Casado...".

Sariak bikoiztu dituzte

Bosgarren urteurrena ospatzeko, antolatzaileek sariak bikoiztu dituzte, eta zainduko duten beste detaile bat da korrikalariendako edalontzi berreralbilgarriak jarriko dituztela –anoa postuak betiko tokietan egongo dira–. Gaur –egubakoitza– eta bihar, dortsalak Interesport Loramendi dendan jaso ahal izango dira.

Udalara oinez igotzea, ondo

Mondraitzeko kideek eskerrak eman zizkieten babesleei, boluntarioei eta ikusleei: "Eskaera egin gura dugu: eguraldi ona bada, jende asko joaten da Udalara lasterketa ikustera, eta auto pilaketak izaten dira. Udalara oinez igotzea aukera ona da".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.
Real Union-Mondra
Zapatua. 12:30. Irun.
Bergara-Anaitasuna
Zapatua. 17:00. Agorrosin
Zarautz-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Asti.

ERREGIONAL PREFERE.
Anaitasuna-Mondra
Domeka. 15:45. Orio.
Aloña Mendi-Soraluze
Domeka. 16:30. Azkoag.
Antzuola-Idiazabal
Zapatua. 16:30. Estala.
Zumaiako-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Zumaia.

OHOREZKO GAZTEAK
Ilintxa-Bergara
Domeka. 17:00. Bikuña.
Aloña Mendi-Mondra
Zapatua. 18:00. Azkoaga.
Aretxabaleta-Urola
Zapatua. 17:30. Ibarra.

EMAKU. OHOREZKO E.
L. Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Bergara-Tolosa
Zapatua. 12:00. Ipintza.

EMAKUM. GORENGO M.
Aloña Mendi-Mutriku
Zapatua. 15:30. Azkoaga.

EMAKUMEZKOAK, KOPA
Bergara-Trintxerpe
Zapatua. 16:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO LIGA
Gure Txokoa-Eskoriatz.
Gaur. 20:30. Bera.

OHOREZKO GAZTEAK
Eskoriatza-Zierbena
Zapatua. 18:00. M.Muñoz.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA
Mondrate-P. Rangers
Gaur. 22:15. Iturripe.

EMAKUMEZKO SENIOR
Trintxerpe-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Pasaia

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Antigua-Aloña Mendi
Zehaztu barik.
Arantzazuk.-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.
Mondrate-Bar Lasarte
Zapatua. 13:00. Iturripe.

SASKIBALOIA

EBA MAILA
La Gallofa-MU
Zapatua. 19:00. Santand.

EUSKADIKO BIG. MAILA
Alkideba Oin.-Mungia
Domeka. 17:45. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIOR.
Errotaundi-Mekalki A.
Zapatua. 16:00. Azpeitia.

SENIOR BIG. MAILA
Bergara Sora.-Bosteko
Zapatua. 16:00. Labegar.

SENIOR HIRU. MAILA
Mekalki Aloña-Take
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
MU C-Zalburdi
Zapatua. 16:00. Iturripe.

SENIOR EMAKUMEZKO.
Txintxu-Eskoriatza
Domeka. 16:00. Azpeitia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.
Txikipolit-Fagor Indus.
Zapatua. 17:30. Zarautz.
Finala, domekan, 12:30.

EMAKU. EUSKADIKO TX.
Urdaibai-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Mundaka

GIPUZKOAKO BIG. M.
Sesiñena Aloña-Saieko
Zapatua. 16:00. Zubieta.
Bergara-Egia Kata
Zapatua. 11:30. Bergara.

MENDIA

ARRASATE-UDALATX.
Domeka. 10:00.
Arrasateko plazan.

Lauko finalera Ointxe!-ko gazte eta kadete mailetako neskak

SASKIBALOIA Gazteek bihar jokatuko dute, Gasteizen, kadeteena Iturripen antolatuko dute, 27rako eta 28rako

X.U. ARRASATE

Euskal Ligan nabarmentzeko moduko lana egin dute Ointxe!-ko kadete eta gazte mailetako neskek. Hala, gazteek bihar, zapatua, Gasteizen jokatuko dute lauko finala, eta Iraurgiren kontra neurtuko dituzte indarrak, 13:00etan, Divino Maestro kiroldegian –finala domekan 12:30ean izango da–. Hain zuzen, iaz, kadete mailan, talde horrek Huelvan jokatutako Espainiako Kluben Arteko Txapelketan lortu zuen onenekin batera egotea, eta aurten beste horrenbeste egin gura dute –otsailean DKS sarietan talde onenaren saria jaso zuten–.

Taulapean saskiratzen. ANGEL AYASTUY

Ointxe!-k fasea ekarriko du

Kadete mailan, berriz, Ointxe Araski dagoeneko sailkatu da Espainiako Txapelketarako –liderrak izan dira Euskal Ligan– eta baita Easo Slam! Gigantes taldea ere. Hala, apirilaren 27rako eta 28rako Ointxe!-k Iturripen antolatuko duen lauko final horretan txartel bakarra egongo da jokoan, eta baita Euskal Ligako txapela nork jantziko duen, noski.

Aitor Tatiegi oñatiarra, Eskolartekoan txapeldun

Egubakoitzean jokatu zuten bat-bateko finala, eta Aner Peritz Manterola 'Euzkitze' zarauztarra izan zen txapeldunordea; Oñatiko Bertso Eskolari egin zioten antolatzaileek irabazleari txapela janzteko proposamena, eskolaren ibilbidea txalotzeko asmoarekin

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Saio bizia eta ederra osatu zuten zortzi parte hartzaileek; horien artean, Aitor Tatiegiz gainera, Debagoieneko beste bi ordezkari zeuden: Eskoriatzako Oihana eta Haizea Arana ahizpak. Giro beroa sortu zuten 100 lagunen aurrean Lasturko tabernan egin zuten saioan.

Bertso saioa bukatu bitartean ez zegoen argi Aner Peritz *Euzkitze* zarauztarrak edo Aitor Tatiegi oñatiarrak eskuratuko zuen txapela; azkenean, Tatiegik irabazi zuen. Han zirenen esanetan, "saio orekatuena" egin zuen oñatiarrak. Honela dio Oñatiko Txinparta Bertso eskolako kide Iñaki Olaldek: "Ez zuen akatsik egin eta bakarkako gaian oso ondo sartu zen. Lasai egon zen eta hor izan zuen, nire ustez, bere indargunea".

Bertsolariak, gai-jartzailearekin eta Txinparta Bertso Eskolako kidearekin. B. E.

Txapela, etxekoek jantzita

Zortziko handian, txikian, lau oinak, puntua eta bakarkako bertsoa izan ziren egin beharreko ariketak. Finalera lehenengo postuetan izateko asmoarekin joan zela dio Aitor Tatiegik; hala ere, aitortzen du ezustekoa hartu zuela txapela beretako zela jakin zuenean: "Ondo hastea izaten da garrantzitsuena, eta lasai eta kontzentratuta abestu nuen. Afariko giro onak asko lagundu zidan, aspaldiko lagunak gara bertso-kide izan nituenak. Bukaeran, Anerrek bigarren postua lortu zuela esan zutenean, harrituta geratu nintzen, ez nuen espero, oso ondo ikusi nuen saio osoan, eta poz handiarekin entzun nuen gero nire izena".

Urteetan zehar egindako ibilbidea eskertzeko, Oñatiko Txinparta Eskolakoei eskaini zieten antolatzaileek irabazleari txapela janzteko aukera: "Eskolako ordezkari moduan nik jantzi nion txapela. Polita eta eskertzekoa da elkarteak eman digun aukera, eta politagoa oraindik etxeko bati janztea!", dio Olaldek.

Saran, Euskal Herriko finala

Ekainaren 8an jokatuko dute Euskal Herriko Eskolarteko finala, eta Tatiegi eta Peritz izango dira Gipuzkoako ordezkariak. "Ahalik eta lasaien kantatzen saiatuko naiz, eta ea txapela ekartzerik badudan. Ez dut prestaketa berezirik egingo; Sarakoaren aurretik, maiatzaren 4an hasiko den *Gipuzkoa bertsotan* txapelketan izango naiz".

Huntza eta McOnak taldeen kontzertua gaur Foruen plazan

Gaztelekuaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldietako bat da, eta Korrikari laguntzeko helburua ere badu

A. A. OÑATI

Aurtengo irailean 25 urte beteko ditu Oñatiko gaztelekuak, eta, urteurrena ospatzeko, askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte urtean zehar; besteak beste, gaur 20:00etan Foruen plazan McOnak eta Huntza taldeek eskainiko duten emanaldia. "Hasiera batean, gaztelekuan egitekoak ginen, baina kanpoan egitea hobetsi dugu, jende gehiagok izan dezan joateko aukera, eta iluntzean programatu nahi izan dugu gaztelekuko erabiltzaileek ere joateko aukera izan dezaten. Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan sartu dugu, eta Korrikari laguntzeko txosna txiki bat izango da kioskoaren alboan. Hiru ordu inguru iraungo du", azaldu du Udaleko Gazte Saileko arduradun Ion Lopezek.

2011n Lekeition jaiotako taldea da McOnak, eta hiru lan luze argitaratu ditu; azkena, iaz, *Gure naufragioak* izenekoa. Huntza seikotea, berriz, Bilbon sortu zuten 2014an sei gipuzkoar ikaslek. Iaz kaleratu zuten bigarren lan luzea, *Xilema* izenekoa.

IMANOL SORIANO

12. Huhezinema ere, arrakastaz

Arkupe kultura etxean egin zuten sari banaketa ekitaldiarekin borobildu zuten MUren film laburren jaialdia. Hamabi sari banatu zituzten, besteak beste: euskarazko film onenaren Goiena saria, *Zain* lanari (Pello Gutierrez); Mundukide saria, *Mugak hautsiz* filmari (Asier Toledo eta Xabier Martin); eta Vertigo eta ikusleen saria, Mikel Uralde Arrueren *Minutuak* laburrari.

ARRASATE-UDALATX
MENDI LASTERKETA
GOIENA TELEBISTA, HARMAILATIK
APIRILAREN 15EAN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
XABIER URZELAI GIDARI DUEN SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.

Literatura klasikoa, modu garaikidean kontatuta

Shakespeareren 'Romeo eta Julieta' liburuan oinarritutako 'Julietas Romeo Circo' ikuskizuna eskainiko du Markeliñe antzerki taldeak etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean; sarrerak leihatilan eta 'Arrasate.eus' atarian eros daitezke, 10 eurotan

A. Aranburuzabala ARRASATE

On Kixoteren istorioa kontatu zuen Zornotzako antzerki konpainiak aurreko lan batean, eta, beste literatura klasiko bat aukeratu dute orain, Shakespeareren *Romeo eta Julieta*. "Oraindik ere gaurkotasuna du kontatzen denak; izan ere, erlijio, sexu edo maila soziala dela-eta egungo gizartean ere aurreiritziak ditugu eta bikote batzuk kolokan jartzen ditugu. Narratzaile baten ahotik beharrean, Julietaren ikuspegitik kontatu dugu", azaldu du Markeliñe antzerki taldeko kide Jon Kepa Zumaldek.

Julietas Romeo Circo lanaren une bat. MARKELIÑE

Zirkua, kontatzeko tresna

Testu hutsa den obra klasikoa hitz bako antzezlan bihurtu dutela gaineratu du hark: "Gure lan guztietan moduan, ez dago hitzik; aspalditik genuen zirkura hurbiltzeko gogoa, eta, oraingoan, zirku ariketak baliatu ditugu pertsonaien bizipenak eta sentimenduak adierazteko tresna moduan. Bata bestearen gainean jarrita oreka ariketak egiten, aro edo bestelako tresnetatik zintzilik, eta trapezioaren edo kablearen gainean igota ikusiko ditugu. Akrobaziek, baina, zergatia edo esanahi bat izango dute".

Jim Pichen musikari britainiarrak konposatutako musika ere ezinbesteko tresna dela dio Markeliñekoak: "Testu bako antzezpenetan garrantzi handia hartzen dute beste baliabideek. Entzuteko musika baino gehiago, giro musikala dela esango nuke; istorioa kontatzeko beste baliabide bat da, eta, une batzuetan, ahotsak ere sartzen ditugu. Argiztapena ere oso zainduta dago".

Bi kapela, protagonista

Hain zuzen ere, Itziar Fragua, Javier Garcia *Mimo,* Maitane Azpiroz, Bego Peñaranda eta Garazi Pascual dira taularen gainean daudenak, nahiz eta protagonistak bi kapela diren: "Kapela bat Romeo da eta bestea, berriz, Julieta; eta kapela buruan jartzen duen aktorea bihurtzen da pertsonaia bat edo beste. Hala, buru batetik bestera bidaiatzen dute kapelek eta ikusleak une oro jakingo du zein den pertsonaia kapelen bitartez, kapela ez duten aktoreek beste pertsona batzuk antzeztuko dituzte: apaiza, senitartekoak...".

Abian dago artzaintza-irudiak jasotzeko bosgarren lehiaketa

Lanak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 7a da; 'Turismodebagoiena.eus' atarian daude oinarriak

A. A. ARRASATE

Maiatzaren 28an, Mankomunitatearen turismo sailaren eskutik, VII. Artzaintza Eguna ospatuko da Antzuolan, eta proposatutako ekitaldien artean dago eskualdeko gazta ekoizleen elkartearekin elkarlanean antolatu duten *Debagoieneko pastoriek* izeneko V. argazki digital lehiaketa.

Eskualdean ateratako eta artzaintzarekin lotutako argazkiak izan behar dira, eta edonork parte hartu dezake, lehiaketaren antolaketarekin harreman zuzena dutenek izan ezik. Lehiakide bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, beste sariketa batzuetan aurkeztu bakoak eta inon argitaratu bakoak.

Turismodebagoiena.eus atarian dagoen formularioa bete beharko da lehiaketan parte hartzeko, eta *Debagoienekopastoriek@gmail.com* helbidera bidali behar dira argazkiak, maiatzaren 7a aurretik.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko apirileko sariak!

Klika

Korrikako materiala
Parte hartzeko sariaren izena: Korrika

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: *kluba@goiena.eus* **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
HILARION JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduon atala eta hartu parte!
943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*
KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Bergarako Udalari esker
